

# Amaierako ebaluazioa IV

## Gazte Plana 2018-2021

#gazteplana#

EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

***Dokumentu honek bi txosten biltzen ditu: 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren Inpaktuaren Ebaluazioa, Gazteen Euskal Behatokiak egina, eta 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren emaitzen ebaluazioa, horretarako kontratatutako kanpoko enpresa batek egina.***

# 2018-2021 ALDIRAKO IV. GAZTE PLANAREN INPAKTUAREN EBALUAZIOA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



**GAZTEEN EUSKAL**  
**BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO**  
**DE LA JUVENTUD**

**Izenburua:** 2018-2021 ALDIRAKO IV. GAZTE PLANAREN INPAKTUAREN EBALUAZIOA

**Egilea:** Gazteen Euskal Behatokia

**Ikerketa-taldea:** Nieves Corcuera, Miren Bilbao, Oskar Longo eta Itziar Urresti

**Diseinu grafikoa eta maketazioa:** Gazteen Euskal Behatokia

Bilbo, 2022ko maiatza



(informazio gehiago  
nd/3.0/deed.es\_ES)

Dokumentuaren edizio honetan jasotako edukiak lizentzia honekin argitaratu dira: Aitortza - Ez komertziala - Obra eratorririk gabea, 4.0 Unported, Creative Commons

hemen: [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

## Aurkibidea

1. IV. GAZTE PLANA (2018-2021): AURREKARIAK ETA EGITURA.....	5
2. IV. GAZTE PLANAREN EBALUAZIOA .....	6
3. INPAKTUAREN EBALUAZIOA: JOMUGAK ETA ADIERAZLEAK .....	6
4. IV. GAZTE PLANAREN INPAKTU-ADIERAZLEEN JARRAIPENA .....	8
1. ADIERAZLEA. Unibertsitateko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa .....	9
2. ADIERAZLEA. LHko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa .....	10
3. ADIERAZLEA. Gazteen langabezia-tasa .....	11
4. ADIERAZLEA. Prestakuntzari lotutako enplegua .....	12
5. ADIERAZLEA. Lan-istripuen indizea.....	13
6. ADIERAZLEA. Soldatapeko gazteen behin-behinekotasunaren tasa .....	14
7. ADIERAZLEA. Lanaldi partzialeko enpleguaren tasa .....	15
8. ADIERAZLEA. Norberaren konturako enpleguaren tasa .....	16
9. ADIERAZLEA. Luzaroko langabezia-tasa.....	17
10. ADIERAZLEA. Gehienez ere bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak amaitu dituzten gazteen langabezia-tasa .....	18
11. ADIERAZLEA. Emantzipazio-tasa .....	19
12. ADIERAZLEA. Batez besteko emantzipazio-adina .....	20
13. ADIERAZLEA. Etxebizitza librea alokairuan hartzeko kostua .....	21
14. ADIERAZLEA. Emantzipazioa alokairu-araubidean.....	22
15. ADIERAZLEA. Intolerantzia ideologikoa.....	23
16. ADIERAZLEA. Hirueletasun-tasa.....	24
17. ADIERAZLEA. Eskola-uzte goiztiarraren tasa .....	25
18. ADIERAZLEA. Goi-mailako hezkuntzako titulazioa .....	26
19. ADIERAZLEA. Gainditutako doktorego-tesiak .....	27
20. ADIERAZLEA. Suizidioagatiko hilkortasun-tasa .....	28
21. ADIERAZLEA. Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentzia .....	29
22. ADIERAZLEA. Obesitate-tasa .....	30
23. ADIERAZLEA. Jarduera fisikoa .....	31
24. ADIERAZLEA. Nerabeen haurdunaldi-tasa.....	32
25. ADIERAZLEA. Sexu-harreman arriskutsuak .....	33
26. ADIERAZLEA. Trafikoaren ondoriozko heriotza-tasa gizonen artean .....	34
27. ADIERAZLEA. Ohiko tabako-kontsumoa .....	35
28. ADIERAZLEA. Gehiegizko eta arriskuzko alkohol-kontsumoa.....	36

29. ADIERAZLEA. Ohiko kalamu-kontsumoa .....	37
30. ADIERAZLEA. Benetako pobrezia-tasa .....	38
31. ADIERAZLEA. Lana lortzeko esparruan genero-desberdinkeria hautematea.....	39
32. ADIERAZLEA. Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra.....	40
33. ADIERAZLEA. Ziberjazarpena.....	41
34. ADIERAZLEA. Asoziazionismo-tasa.....	42
35. ADIERAZLEA. Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia.....	43
36. ADIERAZLEA. Kontsumo jasagarria .....	44
37. ADIERAZLEA. Irakurtzeko ohitura .....	45
38. ADIERAZLEA. Jarduera artistikoetan parte hartzea .....	46
39. ADIERAZLEA. Kirola ohikotasunez egitea .....	47
40. ADIERAZLEA. Lagunartean euskara erabiltzea .....	48
<b>5. INPAKTUAREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK, ADIERAZLEETAN ETA ADIERAZLEEN JOMUGETAN OINARRITUTA .....</b>	<b>51</b>
<b>6. COVID-19AREN INPAKTUA: GAZTEEN ETA ADITUEN IRITZIAK.....</b>	<b>57</b>
<b>7. ONDORIOAK.....</b>	<b>63</b>
COVID-19aren pandemiak zeharkatutako plan bat .....	63
Enplegu-hobekuntza agerikoa zen 2018an, baina, 2020an, eten egin zen; 2021ean, berriz, arin hasi da suspertzen.....	63
Emantzipazioa, gainditu gabeko ikasgaia oraindik ere .....	64
Aurrerapausoak hezkuntzan: eskola-porrota txikia da eta ikasketa-maila altua .....	64
Datuek oraindik ez dituzte jaso pandemiak osasunean izandako ondorioak .....	64
Emakumeen eta gizonen berdintasuna, oraindik ere oztopoz josia.....	65
Konpromiso handiagoa ingurumenarekin, eta gai publikoetan parte hartzeko gogo handiagoa .....	65

## 1. IV. GAZTE PLANA (2018-2021): AURREKARIAK ETA EGITURA

2018ko otsailaren 6an, Gobernu Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana (2018-2021) onetsi zuen. Plan hori XI. legegintzaldiko sailen planetako bat da [2017ko urtarrilaren 17ko Erabakiaren IV. eranskina, XI. legegintzaldirako (2017-2020) Jaurlaritzaren plan estrategikoen zerrenda onartzen duena].

Plana autonomia-erkidego osorako erreferentziazko esparru orokorrean kokatzen da; hots, 2012ko ekainaren 12an onartutako “Gazteriaren arloko 2020ko Euskal Estrategia” deiturikoan. Estrategia horretan, EAEko administrazio publikoek gazteen arloan epe ertainera begira izango duten jarduera gidatzeko jardun-ildoak eta gidalerroak jasotzen dira, koordinatuta eta modu globalean.

III. Gazte Plana (2014-2016) ebaluatu eta gazteek 2017an zuten egoeraren diagnostikoa egin ondoren, IV. Gazte Plana (2018-2021) idatzi zen. Plan berri bat egiteko lanak, halaber, Gazteriaren 2020ko Estrategia bera egokitzea ekarri zuen, jomuga eta adierazle berriekin aberastu baitzen.

IV. Gazte Planean (2018-2021), Jaurlaritzak gazteen arloan izango duen jarduera gidatzeko helburu eta ildo estrategikoak ezartzen dira, eta aurreko gazte-planen ezaugarri nagusiei eusten zaie: integrala, zeharkakoa eta sail-artekoa da, eta gizarteak parte hartzeko irekita dago. Planaren edukiari dagokionez, aipagarria da alorretako bakoitzean jasotzen dituela egoeraren analisiaren konklusioak eta, hartara, erronka eta helburu estrategikoak finkatzen dituela.

Aurrekariarekin alderatuz gero, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana bi jarduketa-ardatz edukizetik bost edukitzera igaro da, eta 10 lan-arlo, 23 helburu eta 60 jardun-ildo proposatzen ditu.

1. **ARDATZEAN, Emantzipazioa eta autonomia** deiturikoan, enplegu-, etxebizitza- eta hezkuntza-arloak biltzen dira, eta, horietan, 10 helburu eta 31 jardun-ildo ezartzen dira. Ardatz honen helburuek, besteak beste, honako gai hauek jorratzen dituzte: enplegurako sarbidea eta lan-baldintzak hobetzea, etxebizitza eskuratzen eta emantzipatzen laguntzea eta bakearekin, genero-berdintasunarekin nahiz ingurumenarekiko errespetuarekin lotutako balioetan oinarritutako hezkuntza indartzea.

**Ongizatea eta bizitza osasungarria** deituriko 2. ARDATZAK osasun-arloa jasotzen du, eta lau helburu eta helburuok garatzen dituzten 10 jardun-ildo ezartzen ditu. Bigarren jarduketa-ardatz honetan, osasun mentala, jarduera fisikoa, sexu-hezkuntza eta adikzioen prebentzioa dira helburuen jomuga.

**Berdintasuna eta gizarte-inklusioa** izeneko 3. ARDATZAK gizarte-ekintzaren eta berdintasunaren arloak biltzen ditu, eta 4 helbururen eta 7 jardun-ildoren inguruan egiten du lan. Honako helburu hauek zehazten dute ardatz hau: bazterketa-egoerak prebenitzea, berdintasuna sustatzea eta emakumeen kontrako indarkeria nahiz beste indarkeria batzuk (gurasoen kontrako indarkeria, eskola-jazarpena eta ziberjazarpena) desagerraraztea.

**Parte-hartzeari eta konpromiso sozialari** buruzko 4. ARDATZAK bi arlo dauzka: Parte-hartzea eta kontsumoa. Arlo honi lotutako helburuen jomuga dira administrazioaren eta gazteen arteko komunikazioa sustatzea, gazteek asoziazionismoaren eta boluntarioritzaren bidez parte hartzea eta gazteek kontsumoaren aurrean duten ardura-maila handitzea. Helburu horiek lortzeko, 6 jardun-ildo ezartzen dira.

**Sozializazioa** deituriko 5. ARDATZAK kultura-, kirol- eta aisialdi-arloak biltzen ditu, eta kultura bultzatzea, kirol-jarduera sustatzea eta gazteen aisialdiko guneetan euskararen erabilera sendotzea xede duten 3 helburu ditu. Helburu horiek lortzeko, 8 jardun-ildo diseinatu dira.

## 2. IV. GAZTE PLANAREN EBALUAZIOA

IV. Gazte Planaren (2018-2021) jarraipena eta ebaluazioa hainbat mailatan egin dira.

Lehenengo mailan, **urteko ebaluazioa** egin da, ekitaldi bakoitzean egindako ekintzen jarraipena egiteko. Urteko ebaluazioei esker, jarraipena egiteaz gainera, sor litezkeen premietara eta inguruabarretara egokitzen da Plana.

Bigarrenik, **emaitzen ebaluazioa** egin da, Planaren indarraldia amaitutakoan. Horrela, programek eta esku-hartzeek zuzeneko hartzaileengan izandako ondorioei buruzko informazioa jaso da.

Hirugarrenik, **inpaktuaren ebaluazioa** egin da, Planak esparru zabalago batean izandako ondorioak aztertzeko. Bada, gazteengan oro har izandako eragina begiratu da, ekintzen eta programen zuzeneko hartzaileak izan gabe nolabait eragin ote dien ikusteko.

Azkenik, **amaierako ebaluazioa** dago, aurreko ebaluazio guztien ondorioak jasotzeko eta hurrengo gazte-planari begirako gomendioak emateko.

## 3. INPAKTUAREN EBALUAZIOA: JOMUGAK ETA ADIERAZLEAK

IV. Gazte Plana zehazteko unean ezarri ziren inpaktua ebaluatzeko parametroak. Horretarako, **inpaktu-adierazleen sorta** bat egin zen Plana diseinatzeko fasean, helburuen betetze-mailaren jarraipena egin ahal izateko, IV. Gazte Planak ukitzen zituen eremuei dagokienez gazteen errealitatean izandako aldaketak jasota.

Adierazleak hautatzeko, Gazteriaren 2020ko Estrategiaren tarteko ebaluazioa (2017) hartu zen aintzat. Ebaluazio hartan, Estrategian ezarritako inpaktu-adierazleak egokiak ote ziren baloratu zen, eta, ebaluazioaren harira, adierazle-kopurua handitzea erabaki zen, IV. Gazte Planaren helburuei estaldura handiagoa emateko. Hala, adierazleak 29 izatetik 40 izatera igaro ziren, Planaren indarraldia amaitutakoan ebaluazioak EAEko gazteriaren egoerari buruzko ikuspegi xeheagoa eskaini zezan.

40 adierazleak hautatzeko, ahal zen neurrian, honako hauek hartu ziren kontuan: datuaren garrantzia, informazioaren irisgarritasuna, iturriaren egonkortasuna eta aldizkako eguneraketa eta serie historiko nahikoa edukitzeko aukera. Gehienek 15 eta 29 urte arteko gazteen egoera zehazten dute; alabaina, adierazle batzuek beste adin-tarte batzuk erabiltzen dituzte, neurtzen duten errealitatera hobeto egokitzeko.



1. taula: IV. Gazte Planaren helburuei lotutako inpaktu-adierazleak

Ardatza	Arloa	Helburua	Adierazle zk.	Adierazlea
Emantzipazioa eta autonomia	Enplegua	Gerturatzeko eta abiadura handiagoak hezkuntza-eremutik lan-eremura igarotzean	1	Unibertsitateko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa
			2	LHko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa
		Gazte gehiago kalitateko enpleguarekin	3	Gazteen langabezia-tasa
			4	Prestakuntzari lotutako enplegua
		Gazteen lan-baldintzak hobetzea	5	Lan-istripuen indizea
			6	Soldatapeko gazteen behin-behinekotasunaren tasa
			7	Lanaldi partzialeko enpleguaren tasa
		Gazte ekintzaile gehiago	8	Norberaren konturako enpleguaren tasa
		Bazterketa-arriskuan dauden gazteak laneratzea	9	Luzaroko langabezia-tasa
	Etxebizitza	Etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago gazteentzat	10	Gehienez ere bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak amaitu dituzten gazteen langabezia-tasa
			11	Emantzipazio-tasa
			12	Batez besteko emantzipazio-adina
			13	Etxebizitza librea alokairuan hartzeko kostua
	Hezkuntza	Balioetan oinarritutako hezkuntza	14	Emantzipazioa alokairu-araubidean
			15	Intolerantzia ideologikoa
			16	Hirueletasun-tasa
			17	Eskola-uzte goiztiarraren tasa
			18	Goi-mailako hezkuntzako titulazioa
			19	Gainditutako doktorego-tesiak
Ongizatea eta bizitza osasungarria	Osasuna	Gazteen osasun mental eta emozionala hobetzea	20	Suizidioagatiko hilkortasun-tasa
			21	Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentzia
		Gazteen obesitatea eta gehiegizko pisua gutxitzea	22	Obesitate-tasa
			23	Jarduera fisikoa
		Gazteen artean sexu-bizitza osasungarria sustatzea	24	Nerabeen haurdunaldi-tasa
			25	Sexu-harreman arriskutsuak
		Jokabide arriskutsuak edo adikzioak (substantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean	26	Trafikoaren ondoriozko heriotza-tasa gizonen artean
			27	Ohiko tabako-kontsumoa
			28	Gehiegizko eta arriskuzko alkohol-kontsumoa
29	Ohiko kalamu-kontsumoa			
Berdintasuna eta gizarte-inklusioa	Gizarte-ekintza eta berdintasuna	Bazterketa-arriskuko egoerei aurrea hartzea	30	Benetako pobrezia-tasa
		Identitate desberdinen artean berdintasunean aurrera egitea	31	Lana lortzeko esparruan genero-desberdinkeria hautematea
		Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	32	Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra
		Tratu txar mota berriak prebenitzea	33	Ziberjazarpena
Parte-hartzea eta konpromiso soziala	Parte-hartzea	Komunikazioa, parte-hartzea eta elkar ezagutza sustatzea	34	Asoziazionismo-tasa
	Kontsumoa		35	Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia
Sozializazioa	Kultura	Kultura-kontsumoa sustatzea eta gazteek eta gazteentzat egindako kultura-jardueren garapenarekiko interesa areagotzea	36	Kontsumo jasangarria
			37	Irakurtzeko ohitura
	Kirola	Kirola maila guztietan sustatzea	38	Jarduera artistikoetan parte hartzea
	Aisia	Aisialdiko inguruneetan euskararen erabilera sustatzea	39	Kirola ohikotasunez egitea
			40	Lagunartean euskara erabiltzea

Hautatutako adierazle bakoitzean lortu behar ziren jomugak ezartzeko, Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa hartu zen oinarritzat. Gazteen Euskal Behatokiak egin zuen diagnostiko hori, 2017an, arlo bakoitzean eskumena zuten gobernu-sailen laguntzarekin.

Inpaktuaren ebaluazio honetan, beraz, 2021eko egoera eta 2017ko oinarri-lerroa alderatzen dira, helburua lortu ote den edo, bestela, joera positiboa ala negatiboa den baloratzeko.

Ezarritako helburuak/jomugak bete diren ikusteko ebaluazio kuantitatiboaz gain, ebaluazio kualitatiboa ere egin da eta bertan gazteek beren egoeraren inguruan dituzten iritziak eta aurreikuspenak jaso dira.

#### **4. IV. GAZTE PLANAREN INPAKTU-ADIERAZLEEN JARRAIPENA**

Atal honetan, Planaren helburuei lotutako inpaktu-adierazle guztiak zehazten dira. Fitxa modura, adierazlearen definizioa, datuen iturria, 2017ko abiapuntuko oinarri-lerroa, Planaren indarraldiaren amaierarako finkatutako jomuga eta eskuragarri dagoen azken datua eskaintzen dira. Informazio horretatik abiatuta, betetze-mailaren balorazioa egin dugu, hiru kategoria berezita:

- HELBURUA LORTUTA: Eskakizun handieneko irizpidea hartu da; hau da, helburua lortu dela balioetsi da, baldin eta % 100ean edo hortik gora bete bada. % 100etik behera, ez da tarterik balioetsi.


Hortaz, proposatutako jomuga erabat lortu dela esan nahi du adierazle baterako gehieneko muga bat ezarri bada, eskuragarri dagoen azken datua muga horretan edo mugatik behera dago, eta, aldiz, gutxieneko bat ezarri bada, azken datua mugara iritsi denean edo muga gainditu duenean bakarrik jo da helburua lortutzat.

- Joera positiboa da: kategoria honetan, % 100era iritsi ez arren, oinarri-lerrotik hobera egin duten eta, beraz, planteatutako jomugaranzko aldaketa adierazten duen bilakaera daukaten helburuak sartzen dira.

- HELBURUA LORTU GABE: helburua jomugara iritsi ez denean eta, gainera, eskuragarri dagoen azken datuak adierazi duenean fenomeno nahi denaren kontrako norabidean doala.

Gainera, adierazle bakoitzaren bilakaera eskaintzen da, grafiko batean, 15 eta 29 urte arteko gazteen guztizko datuarekin eta emaitzak sexuaren arabera bananduta. Fitxa osatzeko, iruzkin labur bat egin dugu adierazlearen joerari buruz, emakumeen eta gizonen artean ageri diren desberdintasunei buruz eta garrantzitsuak izan daitezkeen beste desberdintasun edo kontraste-datu batzuei buruz.

<b>1. HELBURUA.</b>	<b>Gerturitze eta abiadura handiagoak hezkuntza-eremutik lan-eremura igarotzean</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Enplegua		
<b>1. ADIERAZLEA. Unibertsitateko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa</b>			
Definizioa	Ikasketak amaitu eta hiru urtera lanean dabiltzaren ehunekoa, UPV-EHUn, Deustuko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean graduatu diren eta aktibo dauden (hau da, ikasten jarraitzen ez duten) pertsona guztiak kontuan hartuta		
Iturria	Lanbide, Ikasketak eta Estatistikak, Laneratzea		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 82 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 80</b>	Azken datua <b>% 87,0 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>




Euskadiko unibertsitateetan unibertsitateko ikasketak amaitu dituztenen laneratze-tasak, prestakuntza amaitu eta hiru urtera neurtuta, oso datu ona eman du, COVID-19aren pandemia egon den arren.

Laneratze-tasa finkatu egin da azken hamarkadan. 2013an, serieko gutxieneko balioa izan zuen (% 77), eta, 2018an, gehienekoa (% 92). Azken datua 2020koa da, eta tasa % 87koa dela dio; Euskadiko unibertsitate batean graduatutako 10etik ia 9k lana zeukaten ikasketak amaitu eta hiru urtera. Adierazle honetan, pandemiak hiru portzentaje-puntuko galera ekarri du, 2019ko datuarekin alderatuta.

Nabarmentzekoa da azken hiru neurketetan emakumeen eta gizonen datua homogeneoa dela, laneratze-maila berbera baitaukatete.

<b>1. HELBURUA.</b>	<b>Gerturatzeko eta abiadura handiagoak hezkuntza-eremutik lan-eremura igarotzean</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Enplegua		
<b>2. ADIERAZLEA. LHko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa</b>			
Definizioa	Erdi- eta goi-mailako zikloetan titulua lortu duten eta aktibo dauden (hau da, ikasten jarraitzen ez duten) gazteen guztizkotik, ikasketak amaitu eta urtebeterra lanean dabiltzaneren ehunekoa.		
Iturria	Lanbide, Ikasketak eta Estatistikak, Laneratzea		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 72,4 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&gt;% 80</b>	Azken datua <b>% 78,5 (2020)</b>	<b>JOERA POSITIBOA</b>




Lanbide Heziketako ikasketak amaitu dituztenen laneratze-tasak, prestakuntza amaitu eta urtebeterra neurtuta, bilakaera ona dauka. Azken datua 2020koa da, eta % 80ko helburutik puntu eta erdira geratu da; hala ere, 2016ko datua gainditu du, zeina 2017ko diagnostikoa egiteko eta jomuga zehazteko oinarritzat erabili baitzen.

2011tik 2015era, laneratze-tasa % 70etik behera zegoen, ekonomia-krisiaren ondorioz. 2018an eta 2019an, jomugatzat finkatutako % 80 gainditu zuen, eta azken datua, 2020koa, % 80tik oso hurbil geratu da, % 78,5 batekin (zalantzarik gabe, pandemiaren eraginez).

2011tik 2014ra bitartean, emakumeen laneratze-tasa handiagoa zen, baina, 2016tik aurrera, gizonak gainditu dute batezbestekoa, 1 eta 4 portzentaje-puntu arteko aldeekin. 2020an azken urteetako joera hautsi dela ematen du, emaitzak oso antzekoak baitira bi sexuetan.

<b>2. HELBURUA.</b>	<b>Gazte gehiago kalitateko enpleguarekin</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Enplegua		
<b>3. ADIERAZLEA. Gazteen langabezia-tasa</b>			
Definizioa	Aktibo dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen guztizkotik, langabezian daudenen ehunekoak. Langabetutzat jotzen dira enplegurik ez duten baina lan egiteko moduan dauden eta lan bila gogoz dabiltzan pertsonak.		
Iturria	EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 23,7 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 15</b>	Azken datua <b>% 17,4 (2021)</b>	<b>JOERA POSITIBOA</b>




2021ean, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 17,4koa izan da. 2018an, % 15eko jomuga lortu zen ia, gazteen langabeziak hainbat urte latzetan gora egin ondoren (2014an, % 29,5ekoa zen tasa). 2021ean, langabezia-tasa Planerako ezarritako jomugatik 2,4 puntura geratu den arren, datua 2016an baino hobea da (urte hura izan zen IV. Gazte Planerako abiapuntua), langabezia-tasa % 23,6koa izan baitzen orduan 16 eta 29 urte bitarteko gazte aktiboen artean.

2021eko datuak erakusten duenez, COVID-19aren pandemiak enpleguan eragindako beheraldia lehengoratu egin da.

2021ean, emakumeek gizonek baino langabezia-tasa txikiagoa izan dute: 2017a kenduta, horixe izan da azken hamarkadan ohikoa.

<b>2. HELBURUA.</b>	<b>Gazte gehiago kalitateko enpleguarekin</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Enplegua		
<b>4. ADIERAZLEA. Prestakuntzari lotutako enplegua</b>			
Definizioa	Jasotako prestakuntzarekin lotura handiko edo lotura nahikoko lanpostuetan lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (inkesta propioak)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 52,7 (2015)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 60</b>	Azken datua <b>% 67,8 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>




Prestakuntzari lotutako enpleguak, 2020an, helburutzat hartutako balioa (% 60) gainditu du: % 67,8ra iritsi da. 2015eko baliotik hona (balio hura erabili zen jomuga finkatzeko), bilakaera oso esanguratsua izan da, urte hartan % 52,7koa baitzen tasa.

Adierazi beharra dago COVID-19aren ondorioak adierazle honetan eragiten egon daitezkeela. Ikasketekin lotura txikiena duten enpleguak (ostalaritza...) dira pandemiaren ondorioz gehien suntsitu direnak; hortaz, pentsatzekoa da hobeto iraun duten enpleguak espezializatuenak eta, beraz, ikasketa espezifikoetara lotutakoak izan direla.

Gizonek prestakuntzari lotutako enplegu-tasa altuagoak daukate; horrenbestez, emakumeen laneratze-tasa gizonen tasaren antzekoa edo, are, zertxobait handiagoa izan daiteke, baina prestakuntzarekin lotura txikiagoa duten lanpostuetan.

<b>3. HELBURUA.</b>	<b>Gazteen lan-baldintzak hobetzea</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Enplegua		
<b>5. ADIERAZLEA. Lan-istripuen indizea</b>			
Definizioa	16 eta 34 urte arteko gazteek izandako lan-istripuen kopurua (istripuak baja hartzea eragin badu), adin bereko 1.000 landuneko. Lan-istripuak lantokian bertan edo <i>in itinere</i> gertatutakoak dira.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia, OSALANen datuak (Laneko ezbehar-tasaren estatistikak) eta EUSTATENak (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA) oinarri hartuta		
2017ko oinarri-lerroa <b>36,4 x 1.000 (2015)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; 40 x 1.000</b>	Azken datua <b>32,4 x 1.000 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>




2020an, 16 eta 34 urte bitarteko landunen ezbehar-tasa 32,4 istripukoa izan da adin-tarte bereko 1.000 landuneko; beraz, IV. Gazte Planerako ezarritako helburua bete da.

Adierazle honen gorabeherak enpresa- eta ekonomia-jardueraren arabera haztatu behar badira ere (okupazio-tasa zenbat eta txikiagoa izan, lan-istripuen tasa orduan eta txikiagoa da) eta pandemiak gorabehera horietan eragina izan badu ere, bilakaera ona da; are, serieko emaitzarik onena erregistratu da.

Adierazle honetan, emakumeen eta gizonen arteko aldea oso handia da. Azken datuan (2020), gizonen tasa 45,8koa da, eta emakumeena 23,2koa, 16 eta 34 urte bitarteko 1.000 landuneko. Desberdintasun horren muina da gizonek industrian eta eraikuntzan okupazio-maila handiagoa dutela eta, hain zuzen ere, sektore horietan erregistratzen direla lan-istripu gehien.

<b>3. HELBURUA.</b>	<b>Gazteen lan-baldintzak hobetzea</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Enplegua		
<b>6. ADIERAZLEA. Soldatapeko gazteen behin-behinekotasunaren tasa</b>			
Definizioa	Aldi baterako kontratua duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, adin bereko soldatapekoen guztizkoari dagokionez.		
Iturria	EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 66,9 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 65</b>	Azken datua <b>% 65,5 (2021)</b>	<b>JOERA POSITIBOA</b>




Soldatapeko gazteen % 65,5ek aldi baterako kontratua dute 2021ean. Behin-behinekotasunak gora egin du 2020tik hona, baina 1,4 puntu jaitsi ditu IV. Gazte Planaren oinarri-lerrotik, eta IV. Gazte Planean ezarritako jomugatik oso hurbil geratu da (muga % 65ekoa da).

Ikusi da 2021ean enpleguak zertxobait hobera egin duela, baina behin-behinekotasuna ere igo egin dela 2020tik hona: urte hartan, langabeziak gora egin zuen; okupazio-tasak, berriz, behera, eta behin-behinekotasunaren tasa pixka bat jaitsi zen, seguru asko lan-baldintza txarrenak zituztenen artean enplegu gehiago galdu zirelako.

2021ean, behin-behinekotasunak emakumeei gehiago eragiten jarraitu arren, gizonen eta emakumeen distantzia txikitu egin da, aldea 2 portzentaje-puntukoa baita (2020an, aldea 9 puntukoa zen: datuen seriean jasotako arrakalarik handiena).



<b>3. HELBURUA.</b>	<b>Gazteen lan-baldintzak hobetzea</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Enplegua		
<b>7. ADIERAZLEA. Lanaldi partzialeko enpleguaren tasa</b>			
Definizioa	16 eta 29 urte bitarteko gazte landunen guztizkotik, lanaldi partzialean (astean 30 ordu baino gutxiago) lan egiten duten adin bereko gazteen ehunekoa.		
Iturria	EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 30,4 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 30</b>	Azken datua <b>% 33,5 (2021)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>




16 eta 29 urte bitarteko gazte landunen guztizkotik lanaldi partzialean (astean 30 ordu baino gutxiago) lan egiten duten adin bereko gazteen ehunekoak gora besterik ez du egin azken hamarkadan: % 15,1ekoa zen 2011n, eta 2021ean, berriz, % 33,5ekoa. 2021eko balioa serie osoko handiena da.

Helburuan, lanaldi partzialaren tasaren hazkundea etetea planteatzen zen, gehienez ere % 30ekoa izan zedin, baina ez da lortu.

Azken urteetako joera benetan txarra da. COVID-19aren pandemiak gogor jotako urte baten ondoren (2020), enplegua suspertzen ari bada ere, gazteen enpleguaren ezaugarriak ez dira hobetu. Batez ere, emakumeen kasuan. 2021ean, gizonen partzialtasun-tasa (% 26,4) pixka bat jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta, eta IV. Gazte Planaren helburua bete da. Emakumeen artean, ordea, partzialtasunak gora egin du, eta emakume landunen % 41,1 daude egoera horretan. Genero-arrakala 14,7 puntukoa da.

<b>4. HELBURUA.</b>	<b>Gazte ekintzaile gehiago</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Enplegua		
<b>8. ADIERAZLEA. Norberaren konturako enpleguaren tasa</b>			
Definizioa	20 eta 29 urte bitarteko gazte landunen guztizkotik, norberaren kontura (enpresaburuak eta autonomoak) lan egiten duten adin bereko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Lan Merkatuaren Errolda, eta Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2020-2021)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 4,6 (2015)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 10</b>	Azken datua <b>% 4,1 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>




Norberaren konturako enpleguaren tasa —hau da, 20 eta 29 urte bitarteko gazte landunetatik norberaren kontura (enpresaburuak eta autonomoak) lan egiten duten adin bereko gazteen ehunekoa— ez da inoiz kokatu %10etik gora (ehuneko hori dago ezarrita helburutzat). Are, azken datuaren arabera (2020), balioa % 4,1ekoa da.

Balio horrek oso baxua irudi lezake, baina aipatu beharra dago EB27ko batezbestekoa % 6,6koa dela.

Azken hamarkadan, norberaren konturako enpleguaren tasa handiagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino.

<b>5. HELBURUA.</b>	<b>Bazterketa-arriskuan dauden gazteak laneratzea</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Enplegua		
<b>9. ADIERAZLEA. Luzaroko langabezia-tasa</b>			
Definizioa	Aktibo dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen guztizkotik, ondoz ondoko hamabi hilabetez baino gehiagoz langabezia daudenen ehunekoa.		
Iturria	EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 9,4 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 5</b>	Azken datua <b>% 6,8 (2021)</b>	<b>JOERA POSITIBOA</b>




Luzaroko langabezia-tasaren bidez, ondoz ondoko hamabi hilabetez baino gehiagoz langabezia dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazte aktiboaren ehunekoa neurtzen da. 2021ean, ehunekoa % 6,8koa da; hau da, jomuga gisa ezarritako % 5etik gora dago.

Adierazle honen bilakaera oso ona izan da 2014tik hona, eta, gaur egungo balioa IV. Gazte Planean oinarri-lerro gisa ezarritakoarekin alderatuz gero (2016an, % 9,4koa zen), joerak positiboa izaten jarraitzen du, tasak azken bi urteetan gora egin badu ere.

2021ean, ia ez dago alderik gizonen eta emakumeen balioen artean, baina gizonek emakumeek baino tasa handiagoa dute luzaroko langabezia (gizonena % 7,3koa da, eta emakumeena % 6,4koa).


<b>5. HELBURUA.</b>	<b>Bazterketa-arriskuan dauden gazteak laneratzea</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Enplegua		
<b>10. ADIERAZLEA. Gehienez ere bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak amaitu dituzten gazteen langabezia-tasa</b>			
Definizioa	Aktibo dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen guztizkotik, gehienez ere bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak amaitu dituzten eta langabezia dauden adin bereko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen Biztanleria aktiboaren udal-inkestaren eta Jardueraren udal-inkestaren datuetatik abiatuta		
2017ko oinarri-lerroa % 32,6 (2016)	2021eko jomuga < % 25	Azken datua % 23,2 (2020)	<b>HELBURUA LORTUTA</b>



Gehienez ere bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak amaitu dituzten gazteen langabezia-tasa behera egiten ari da: 2015ean % 34,1koa zen, eta 2020an % 23,2koa. Balio horrek finkatutako helburuaren barruan kokatzen du adierazlea, IV. Gazte Planaren oinarri-lerrotik oso behera (2016an, % 32,6koa zen).

Bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak soilik dauzkaten emakumeen langabezia-tasa gizonena baino altuagoa da, baina baliteke alde horren arrazoa honako hau izatea: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin ondoren ikasten jarraitzen ez duten 16 eta 29 urte bitarteko emakumeak gutxiago dira, gizonak baino.

<b>6. HELBURUA.</b>	<b>Etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago gazteentzat</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Etxebizitza		
<b>11. ADIERAZLEA. Emantzipazio-tasa</b>			
Definizioa	18 eta 34 urte bitarteko gazteen guztizkotik, emantzipatuta bizi diren (hau da, jatorrizko etxebizitzan bizi ez diren) adin bereko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 38,9 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 40</b>	Azken datua <b>% 35,1 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>




EAEn 18 eta 34 urte bitarteko gazteen emantzipazio-tasa % 35,1ekoa da 2020an; beraz, proposatutako helburutik behera dago, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 40 baino gehiago emantzipatuta egotea baitzen asmoa. 2020ko tasa azken hamarkadako baxuena da.

Pandemiak 2020an izandako eragina handia izan da eremu honetan, gazte batzuen emantzipazio-planak atzeratu ahal izan dituelako eta beste batzuk jatorrizko etxebizitzara itzultzea eragin duelako. Nolanahi ere, enpleguaren inguruan bizi izandako ziurgabetasunak ez die inolako mesederik egin gazteen emantzipazio-planei.

25 urte bete aurretik, gazteen % 3,1 besterik ez dago emantzipatuta; 25 eta 29 urte bitartean, % 39,5, eta 30 eta 34 urte bitartean bakarrik dira gehiengoa gurasoen etxetik kanpo bizi direnak (% 72,2).

Emakumeen eta gizonen arteko aldea nabarmena da. Emakumeak aztertutako urte guztietan iritsi dira Gazte Planean proposatutako helburura, baita 2020an ere (beherakada egon arren, emantzipazio-tasa % 40,6koa zen). Gizonek, aldiz, % 29,8ko emantzipazio-tasa dute, emakumeen tasatik 10 puntu behera.


<b>6. HELBURUA.</b>	<b>Etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago gazteentzat</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Etxebizitza		
<b>12. ADIERAZLEA. Batez besteko emantzipazio-adina</b>			
Definizioa	Emantzipatuta (jatorrizko etxebizitzatik kanpo) bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazteen batez besteko adina.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>29,8 urte (2015)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; 29 urte</b>	Azken datua <b>30,2 urte (2019)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>



Emantzipatzeko batez besteko adina oso balio egonkorak dituen adierazlea da, eta, 2011tik, 30 urteen inguruan dago. 2021era begira, batez besteko emantzipazio-adina 29 urtetik behera kokatzea zen helburua, baina erregistratutako azken balioa (2019) kontrako noranzkoan doa, batez besteko emantzipazio-adinak 30 urteak gainditu baititu (30,2).

Batez besteko emantzipazio-adinean, emakumeen eta gizonen artean ez da alderik ikusi.

<b>6. HELBURUA.</b>	<b>Etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago gazteentzat</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Etxebizitza		
<b>13. ADIERAZLEA. Etxebizitza librea alokairuan hartzeko kostua</b>			
Definizioa	18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko batek, bakarrik, hileko soldata garbitik merkatu librean etxebizitza bat alokatzeko errentaren ordainketara bideratu beharko lukeen proportzioa (bestelako gastu gehigarriak kontuan hartu gabe: fidantzak, horniduren altak, bitartekarien ordainsariak...), higiezin agentziek eskaintzen dituzten alokairuen batez besteko prezioa oinarri hartuta (Eusko Jaurlaritzaren Higiezin eskaintzari buruzko inkestan jasotzen dira).		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 65,3 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 63,5</b>	Azken datua <b>% 80,3 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>




Alokairuan etxebizitza bat hartzeko kostuaren bidez, 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko batek alokairuko etxebizitza bat bakarrik hartzeko egin behar duen ahalegin ekonomikoa neurtzen da. 2020ko balioa (% 80,3) IV. Gazte Planean ezarritako helburutik oso urrun dago, % 63,5etik jaitea baitzen asmoa (balio hori Euskadiko Gazteriaren Estrategiaren oinarri-lerroari dagokio, eta 2011n ezarri zen).

Eusko Jaurlaritzaren Higiezin eskaintzari buruzko inkesta da adierazle hau kalkulatzeko oinarria, higiezin agentziek eskaintzen dituzten alokairuen batez besteko prezioa jasotzen baita bertan. Bada, 2020ra arte, inkesta hori izan da adierazlea kalkulatzeko iturria, baina, hemendik aurrera, bi estatistika-eragiketa berri hartuko dira aintzat; hortaz, Gazte Plan berriari begira, jomugaren balioa egokitu beharko da.

18 eta 34 urte bitarteko emakumeen kasuan, etxebizitza alokairuan hartzeko kostua % 86,3koa izan da 2020an, gizonak hileko soldata garbitik bideratu behar dutena baino hamabi portzentaje-puntu handiagoa (gizonena % 74,3koa da).

<b>6. HELBURUA.</b>	<b>Etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago gazteentzat</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Etxebizitza		
<b>14. ADIERAZLEA. Emantzipazioa alokairu-araubidean</b>			
Definizioa	Emantzipatuta dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen guztizkotik, alokairu-araubidean bizi direnen ehunekoak.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 39,9 (2015)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 56</b>	Azken datua <b>% 43,4 (2020)</b>	<b>JOERA POSITIBOA</b>




Azken hamarkadan, alokairu-araubideko emantzipazioak gora egin du pixkaka; halere, igoera hori moteldu egin da 2017tik hona, zalantzarik gabe, etxebizitza libreko alokairuak asko garestitu direlako.

Alokairuko emantzipazioa 10 urtean hamar puntu baino gehiago hazi den arren, IV. Gazte Planean ezarritako helburutik urrun dago datua.

Alokairu-araubidean emantzipatutako gizon gazteen ehunekoak emakumeen artean erregistratutakoa baino lau puntu handiagoa da, baina inola ere ez dago finkatutako helburutik hurbil.




<b>7. HELBURUA.</b>	<b>Balioetan oinarritutako hezkuntza</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Hezkuntza		
<b>15. ADIERAZLEA. Intolerantzia ideologikoa</b>			
Definizioa	Eurenak ez bezalako ideiak, sinesmenak edo balioak dituzten pertsonekin oso edo nahiko deseroso dauden 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 16,6 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 15</b>	Azken datua <b>% 24,9 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>



Intolerantzia ideologikoa igoera handia izan du 2016tik 2020ra (% 16,6tik % 24,9ra), eta 2020rako muga gisa finkatutako % 15en oso gainetik dago.


Alabaina, ehunekoa emakumeen artean egin du oso gora, eta, beraz, auzitan jarri behar dugu adierazle hau tolerantzia ideologikoa neurtzeko baliagarria ote den. Emakumeek portaera matxistak ez tolerantzea edo gazteek nahiz ez-gazteek jarrera ideologiko jakin batzuk ez tolerantzea ez da zertan txarra izan, eta, beraz, ezarritako jomuga lortu ez izana ere ez da nahitaez porrot gisa interpretatu behar.

<b>8. HELBURUA.</b>	<b>Gazte eleaniztun gehiago</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Hezkuntza		
<b>16. ADIERAZLEA. Hirueletasun-tasa</b>			
Definizioa	Ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz ondo hitz egiten dutela dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.		
Iturria	EUSTAT (Bizi-baldintzen inkesta) eta Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 30,9 (2014)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 38</b>	Azken datua <b>% 49,3 (2019)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>



Hirueletasun-tasak etengabe egin du gora 2009tik hona; urte hartan, gazteen % 26,0k baieztatu zuten euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo moldatzen zirela. 2019an, balio hori % 49,3koa zen: 2016tik 2019ra, ia 15 portzentaje-puntu egin ditu gora. Hortaz, 2021erako ezarritako helburutik (> % 38) oso gora dago; hala, bada, arrazoizkoa izango litzateke ehuneko handiago bat ezartzea helburutzat.


<b>9. HELBURUA.</b>	<b>Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Hezkuntza		
<b>17. ADIERAZLEA. Eskola-uzte goiztiarraren tasa</b>			
Definizioa	Gehienez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (INSN 2) amaitu duten eta ikasten edo trebatzen jarraitu ez duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehuneko.		
Iturria	Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria aktiboaren inkestaren (BAI) datuetatik abiatuta		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 10,2 (2015)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 7</b>	Azken datua <b>% 6,5 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>



Europako eskualdeen artean, eskola-uzte goiztiarraren tasa txikiena duten eskualdeetako bat da Euskadi. EB27ko batez besteko tasa % 9,9koa da, eta Euskadik % 6,5ekoa zuen 2020an.

Bete da Euskadiko IV. Gazte Planerako proposatutako helburua, nahiz eta oraindik ere nabarmena izan gizonen eta emakumeen arteko aldea: gizonen eskola-uzte goiztiarraren tasa emakumeena halako bi da ia. Hortaz, gizonen uzte-tasa murriztu beharra dago.

<b>9. HELBURUA.</b>	<b>Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Hezkuntza		
<b>18. ADIERAZLEA. Goi-mailako hezkuntzako titulazioa</b>			
Definizioa	30 eta 34 urte bitarteko gazteen guztizkotik, hirugarren mailako titulazioa (INSN 5A, B eta 6) daukatenen ehunekoa. Hirugarren mailako titulazioan sartzen dira unibertsitateko ikasketak (graduak, masterrak eta doktoregoak) eta goi-mailako prestakuntza-zikloak.		
Iturria	Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria aktiboaren inkestaren (BAI) datuetatik abiatuta		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 54,2 (2015)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 50</b>	Azken datua <b>% 59,6 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>




Ehunekoa % 50 inguruan edukitzea zen adierazle honetan finkatutako helburua, eta 2020an erregistratutako azken balioa % 59,6koa zen; hortaz, helburua bete dela balioesten dugu.

Euskadiko gazteen prestakuntza-maila altua da, eta goi-mailako ikasketak dituztenen EB27ko batezbestekoaren oso gaineratik dago, 2020an % 41ekoa baitzen.

Goi-mailako hezkuntzako titulazioa dutenen ehunekoa handiagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino. Hezkuntzaren arloko gainerako adierazleetan bezalaxe, gizonak emakumeen atzetik daude. Hala ere, emakumeek prestakuntzaren alorrean berez egoera hobea edukitzeak ez du bat egiten enplegua lortzeari buruzko eta enpleguaren kalitateari buruzko datuekin, gizonak sarbide eta kalitate hobekaitzak baitaude, emakumeek baino.

<b>10. HELBURUA.</b>	<b>Gazte ikertzaile gehiago</b>		
ARDATZA	Emantzipazioa eta autonomia		
Jardun-arloa	Hezkuntza		
<b>19. ADIERAZLEA. Gainditutako doktorego-tesiak</b>			
Definizioa	Ikasturte jakin baten Euskadiko unibertsitateetan gainditu duen 35 urtetik beherako gazteek egindako doktorego-tesien kopurua.		
Iturria	EUSTAT (Hezkuntza-jardueraren estatistika)		
2017ko oinarri-lerroa <b>400 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; 400</b>	Azken datua <b>311 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>




2019/2020 ikasturtean, 35 urtetik beherako gazteek egindako 311 doktorego-tesi gainditu ziren Euskadiko unibertsitateetan (EHU, Deustu eta Mondragon Unibertsitatea). Balio hori finkatutako jomugatik behera dago (400).

2016an eta 2017an, aurreikusitako helburua lortu zen, baina, orduetik, beherakada egon da. Edonola ere, 2019ko eta 2020ko balioek 2018koa gainditu dute (2018koa izan zen azken hamar urteetako baxuena).

Azken ikasturtean, 35 urtetik beherako gizonak emakumeek adina doktorego-tesi gainditu dituzte Euskadiko unibertsitateetan, aurreko urterik gehienetan emakumeek gizonak baino doktorego-tesi gehiago aurkeztu badituzte ere.

<b>11. HELBURUA.</b>	<b>Gazteen osasun mental eta emozionala hobetzea</b>		
ARDATZA	Ongizatea eta bizitza osasungarria		
Jardun-arloa	Osasuna		
<b>20. ADIERAZLEA. Suizidioagatiko hilkortasun-tasa</b>			
Definizioa	15 eta 29 urte bitartean suizidiaz hildakoen kopurua, adin-tarte bereko 100.000 pertsonako.		
Iturria	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Hilkortasunaren erregistroa)		
2017ko oinarri-lerroa <b>5,8 x 100.000 (2014)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; 4,0 x 100.000</b>	Azken datua <b>2,6 x 100.000 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>




15 eta 29 urte bitarteko suizidioa adin bereko 100.000 pertsonako kalkulatu da. Helburua 100.000 laguneko 4 kasu baino gutxiago egotea zen, eta 2020ko azken datua muga horretatik oso behera dago.

Egia da, halere, oso fenomeno bazterrekoa denez, gorabeherak oso handiak izaten direla batzuetan (kasu gutxi batzuek oso tontor handiak eragiten dituzte grafikoetan), baina, IV. Gazte Planaren oinarri-lerroari dagokionez, zeina 5,8 kasukoa baitzen 100.000 biztanleko, ezarritako gehieneko mugatik behera mantendu da oro har.

Hurrengo Gazte Planari begira, dena den, aintzat hartu behar da hainbat ahotsek ohartarazten dutela gazteen osasun mentalak okerrera egin duela (neurri handi batean, COVID-19aren pandemiarekin bizitako egoerak eragin du okertze hori), eta baliteke suizidioek gora egitea.

Suizidio-tasa handiagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino, eta 2020an alde horri eutsi zaio. Dena dela, oraingo honetan ere, gizon gazteen artean helburua lortu da.

<b>11. HELBURUA.</b>	<b>Gazteen osasun mental eta emozionala hobetzea</b>		
ARDATZA	Ongizatea eta bizitza osasungarria		
Jardun-arloa	Osasuna		
<b>21. ADIERAZLEA. Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentzia</b>			
Definizioa	Azken lau asteetan antsietate- edo depresio-arazoak izan dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 13,7 (2013)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 10</b>	Azken datua <b>% 8,3 (2018)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>




Gazteen Euskal Behatokiak ikerketetan jasotzen dituen osasun-adierazle guztiek eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkestatik datozenek, esaterako, inkesta egin aurreko lau asteetako antsietate- edo depresio-arazoaren prebalentzia adierazten dute, gazteek osasun ona daukatela oro har. 2018an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 8,3k baieztatu zuten aurreko asteetan antsietate- edo depresio-arazoak izan zituztela, IV. Gazte Planean ezarritako % 10eko mugatik behera. Gainera, 2018an jasotako azken balioa erregistratutako serieko baliorik baxuena da.

Hurrengo Gazte Plana egitean, arreta jarri beharko zaio adierazle honi, COVID-19aren pandemiaren harira gazteen osasun mentalak okerrera egin duela aurreikus baitaiteke eta gertaera hori ez baita 2018ko balioan islatzen.

Alabaina, garrantzitsua da emakumeek eta gizonek fenomeno honen aurrean duten desberdintasuna nabarmentzea. Emakumeek gizonek baino arazo gehiago aipatu dituzte (% 11,4k eta % 5,1ek, hurrenez hurren), eta bi azalpen egon daitezke: emakumeek antsietate eta depresio arazo gehiago pairatzea, edo emakumeek gizonek baino joera handiagoa izatea arazo horiek jendaurrean onartzeko.

<b>12. HELBURUA.</b>	<b>Gazteen obesitatea eta gehiegizko pisua gutxitzea</b>		
ARDATZA	Ongizatea eta bizitza osasungarria		
Jardun-arloa	Osasuna		
<b>22. ADIERAZLEA. Obesitate-tasa</b>			
Definizioa	Gorputz-masaren indizea (GMI) 30etik gora duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak. GMIa kalkulatzeko, honako formula hau erabiltzen da: "Pisu adierazia (kg) / altuera adierazia (m) ber bi".		
Iturria	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 5,4 (2013)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 4</b>	Azken datua <b>% 4,2 (2018)</b>	<b>JOERA POSITIBOA</b>




Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkestak honako formula honen bitartez kalkulatu du obesitate-tasa: "Pisu adierazia (kg) / altuera adierazia (m) ber bi". Euskadin, formula horren arabera, 2018an (azken inkesta urte horretan egin zen), 15 eta 29 urte bitarteko % 4,2 obesoa zen. 2020rako jomugak % 4an kokatzen zuen gehieneko muga, eta balio hori mugatik zertxobait gora dago, baina, egiazki, 2013tik 2018ra bitartean nabarmen egin du behera; hortaz, joera positiboa da.

Erregistratutako serie osoan, indizea beti da handiagoa gizonen artean, emakumeen artean baino. Halere, baliteke gizonen emakumeek baino muskulu-masa handiagoa dutelako izatea hori horrela, eta ez gizon gazteak obesagoak direlako.




<b>12. HELBURUA.</b>	<b>Gazteen obesitatea eta gehiegizko pisua gutxitzea</b>		
ARDATZA	Ongizatea eta bizitza osasungarria		
Jardun-arloa	Osasuna		
<b>23. ADIERAZLEA. Jarduera fisikoa</b>			
Definizioa	15 eta 29 urte bitarteko gazteen guztizkotik, azken zazpi egunetan jarduera fisiko osasungarria (moderatua edo bizia) egin duten adin bereko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 75,3 (2013)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 85</b>	Azken datua <b>% 86,3 (2018)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>



Euskadiko gazteen jarduera fisikoak oso bilakaera ona izan du 2007tik 2018ra, eta azken erregistroa Gazte Planean helburu gisa ezarritako % 85a baino gorago dago. Hala, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen guztizkotik azken zazpi egunetan jarduera fisiko osasungarria (moderatua edo bizia) egin duten gazteen ehunekoa % 86,3koa zen 2018an (urte horretan egin zen azken inkesta).

Adierazi beharra dago 2018an genero-arrakala izugarri txiitu zela, emakume eta gizon gazteen balioak oso antzekoak izateraino.


<b>13. HELBURUA.</b>	<b>Gazteen artean sexu-bizitza osasungarria sustatzea</b>		
ARDATZA	Ongizatea eta bizitza osasungarria		
Jardun-arloa	Osasuna		
<b>24. ADIERAZLEA. Nerabeen haurdunaldi-tasa</b>			
Definizioa	15 eta 17 urte bitarteko emakume nerabeek urtebetean izandako haurkopurua eta borondatez etendako haurdunaldi-kopurua, adin-tarte bereko 1.000 emakumeko.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuak (Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa) eta EUSTATENak (Biztanleen udal-estatistika) abiapuntu hartuta.		
2017ko oinarri-lerroa <b>7,6 x 1.000 (2014)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; 6 x 1.000</b>	Azken datua <b>4,9 x 1.000 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>



Gazteen Euskal Behatokiak, nerabeen haurdunaldi-tasa kalkulatzeko, 15 eta 17 urte bitarteko amek izandako haur-kopurua eta adin horretako emakumeek borondatez egindako abortu-kopurua hartzen ditu aintzat. Adierazleak 15 eta 17 urte bitarteko 1.000 emakumeko tasaren bidez ematen du informazio hori.

2020ko balioak (4,9koa 1.000 emakumeko) finkatutako helburua bete du; izan ere, helburu horren arabera, adierazleak 6 x 1.000tik behera egon behar zuen, eta baliorik altuenetik (9,7ko balioa 1.000 emakumeko, 2012an) beherazko joera dagoela baieztatzen du.


<b>13. HELBURUA.</b>	<b>Gazteen artean sexu-bizitza osasungarria sustatzea</b>		
ARDATZA	Ongizatea eta bizitza osasungarria		
Jardun-arloa	Osasuna		
<b>25. ADIERAZLEA. Sexu-harreman arriskutsuak</b>			
Definizioa	Azken urtean sexu-harremanen bat izan duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen guztizkotik, urte horretan sexu-harreman arriskutsuak izan dituztenen ehunekoa.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 15,2 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 15</b>	Azken datua <b>% 17,5 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>



Aurreko urtean sexu-harremanen bat izan duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen guztizkotik sexu-harreman arriskutsuak izan dituztenen ehunekoa % 17,5ekoa da 2020an; alegia, helburu gisa finkatutako gehieneko mugatik gora (< % 15).

Adierazle honi egin zaizkion hiru neurketetan, 2020an, lehen aldiz, gizonak baino emakume gehiagok esan dute haurdun geratzeko arriskua edo sexu-transmisioko gaixotasunak hartzeko arriskua dakarten sexu-harremanak eduki dituztela (emakumeen % 18,6k eta gizonen % 16,4k, hurrenez hurren).

<b>14. HELBURUA.</b>	<b>Jokabide arriskutsuak edo adikzioak (substantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean</b>		
ARDATZA	Ongizatea eta bizitza osasungarria		
Jardun-arloa	Osasuna		
<b>26. ADIERAZLEA. Trafikoaren ondoriozko heriotza-tasa gizonen artean</b>			
Definizioa	15 eta 29 urte bitartean trafikoko istripuetan hildako gizonen kopurua, adin-tarte bereko 100.000 gizoneko.		
Iturria	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Hilkortasunaren erregistroa)		
2017ko oinarri-lerroa <b>9,6 x 100.000 (2015)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; 4,0 x 100.000</b>	Azken datua <b>6,4 x 100.000 (2020)</b>	<b>JOERA POSITIBOA</b>




Duela hamarkada bat baino pixka bat lehenago, trafikoko istripuen ondoriozko heriotzak ziren gazteak hiltzeko lehenengo arrazoia. Halere, batez ere gizon gazteei zegokien. Horregatik pentsatu zen trafiko istripuz hildako gizonen tasa osasun-egoeraren adierazle ona zela.

Azken hamarkadan, trafikoko istripuetan hildako gizonen tasaren bilakaera oso positiboa izan da, nahiz eta helburua lortu ez.

2010ean, tasa 12,1 heriotzakoa zen 100.000 gizon gazteko, eta, 2019an, 2,0ra iritsi zen 100.000 gizon gazteko, finkatutako mugatik oso behera. Alabaina, 2020a oso urte txarra izan da, eta 15 eta 29 urte bitarteko gizon gazteen hilkortasun-tasak gorakada nabarmena izan du. Halere, beheranzko joerak irmoa dirudi.

Bazterreko fenomeno denez, normala da gorabehera horiek egotea, nahiz eta joera beheranzkoa izan.

<b>14. HELBURUA.</b>	<b>Jokabide arriskutsuak edo adikzioak (substantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean</b>		
ARDATZA	Ongizatea eta bizitza osasungarria		
Jardun-arloa	Osasuna		
<b>27. ADIERAZLEA. Ohiko tabako-kontsumoa</b>			
Definizioa	Tabakoa ohikotasunez erretzen dutela dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Adikzioen Inkesta)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 23,5 (2012)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 18</b>	Azken datua <b>% 18,5 (2017)</b>	<b>JOERA POSITIBOA</b>



Egin diren neurketetan ikusienez, gazteen artean beherantz doa tabako-kontsumoa: 2017an —urte hartan egin baitzen adikzioei buruzko azken inkesta—, 15 eta 29 urte arteko gazteen % 18,5ek adierazi zuen tabakoa ohikotasunez erretzen zuela. Hala, IV. Gazte Planaren amaierarako finkatutako helburua lortu da ia-ia.

Gainera, 2017an ez dago alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean.


<b>14. HELBURUA.</b>	<b>Jokabide arriskutsuak edo adikzioak (substantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean</b>		
ARDATZA	Ongizatea eta bizitza osasungarria		
Jardun-arloa	Osasuna		
<b>28. ADIERAZLEA. Gehiegizko eta arriskuzko alkohol-kontsumoa</b>			
Definizioa	Lanegunetan izan zein jaiegun edo asteburuetan izan alkohol gehiegi edo alkohola modu arriskutsuan kontsumitzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, zenbat alkohol edaten duten erreparatuta (egunean 65 gramo alkohol baino gehiago edaten bada).		
Iturria	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Adikzioen Inkesta)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 24,5 (2012)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 20</b>	Azken datua <b>% 20,3 (2017)</b>	<b>JOERA POSITIBOA</b>



Osasunaren inguruko beste adierazle batzuekin ikusitakoa gertatzen da gehiegizko edo arriskuzko alkohol-kontsumoarekin ere. Adierazlearen bilakaera oro har positiboa izan da eta 2020rako finkatutako helburua ia-ia bete da.

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei eutsi zaie. Gizonek emakumeek baino alkohol gehiago edaten dute, baina nabarmendu beharra dago 2012tik 2017ra gazteen gehiegizko alkohol-kontsumoan izandako beherakada batez ere gizonen kontua dela, % 32,6tik % 25,3ra igaro baita. Emakumeek 1,3 portzentaje-puntu baino ez dituzte jaitsi.


<b>14. HELBURUA.</b>	<b>Jokabide arriskutsuak edo adikzioak (substantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean</b>		
ARDATZA	Ongizatea eta bizitza osasungarria		
Jardun-arloa	Osasuna		
<b>29. ADIERAZLEA. Ohiko kalamu-kontsumoa</b>			
Definizioa	Inkesta egin aurreko hilabetean egunero edo ia egunero (astean 4 egunetan edo gehiagotan) kalamua erre dutela dioten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Adikzioen Inkesta)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 4,3 (2012)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 4</b>	Azken datua <b>% 4,2 (2017)</b>	<b>JOERA POSITIBOA</b>



2017an, EAEn, 15 eta 29 urte arteko gazteen % 4,2k esan zuten kalamua egunero edo ia egunero (astean lau egunetan edo gehiagotan) erre zutela inkestaren aurreko azken hilabetean. Balio hori 2020ko helburutik pixka bat gora dago, baina 2010eko baliotik behera egin du (% 7,5ekoa zen).

Ehunekoa askoz ere handiagoa da gizonen kasuan (% 7,3), emakumeen kasuan baino (% 1,0).

<b>15. HELBURUA.</b>	<b>Bazterketa-arriskuko egoerei aurrea hartzea</b>		
ARDATZA	Berdintasuna eta gizarte-inklusioa		
Jardun-arloa	Gizarte-ekintza eta berdintasuna		
<b>30. ADIERAZLEA. Benetako pobrezia-tasa</b>			
Definizioa	16 eta 29 urte arteko gazteen guztizkotik, benetako pobrezia-egoeran daudenen ehunekoa. Pobrezia- eta gizarte-desberdintasunen inkestaren metodologiaren arabera, benetako pobrezia honako egoera hauek biltzen ditu: pobrezia-aren dimentsio batean edo bestean (pobrezia mantentzea edo metatzea) agertzen diren oinarritzko premiak behar bezala ez asebetetzeko arrisku-egoerak ez daude behar bezala konpentsatuta herritarren eguneroko bizitzan, pobrezia-aren bizipenetik kanpo gutxiengo ongizate-maila bat lortzeko moduan. Adierazle hori taxutzeko, mantentze- eta metatze-adierazleetako posizioaz gain, pobrezia-ekin lotutako beste prekarietate-elementu batzuk ere kontuan hartzen dira; azken urtean gabezia-egoerak agertu izana da garrantzitsuena.		
Iturria	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.		
2017ko oinarri-lerroa % 8,1 (2016)	2021eko jomuga < % 8	Azken datua % 6,0 (2020)	<b>HELBURUA LORTUTA</b>




2020an, benetako pobrezia-tasak behera egin du Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2019an gora egin ostean (urte horretan erregistratu zen serieko daturik altuena).

IV. Gazte Planean finkatutako helburua lortu da, baina 2022ko emaitzei adi egon beharko gaitzaizkie, COVID-19aren pandemiaren ondorioz balitekeelako adierazleak gora egitea.

Benetako pobrezia-tasa handiagoa da emakume gazteen artean, gizon gazteen artean baino, neurketa gehienetan egiaztatu denez.




<b>16. HELBURUA.</b>	<b>Identitate desberdinen artean berdintasunean aurrera egitea</b>		
ARDATZA	Berdintasuna eta gizarte-inklusioa		
Jardun-arloa	Gizarte-ekintza eta berdintasuna		
<b>31. ADIERAZLEA. Lana lortzeko esparruan genero-desberdinkeria hautematea</b>			
Definizioa	15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean zer ehunekok hautematen duen lanpostu bat eskuratzeko orduan mutil batek aukera gehiago dituela neska batek baino, bi-biek prestakuntza eta esperientzia berdina izanik ere		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 24,3 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 20</b>	Azken datua <b>% 23,4 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>



Lana lortzeko esparruan nolako genero-desberdinkeria hauteman den neurtzeko, honako balio hau erabiltzen da: 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean zer ehunekok hautematen duen lanpostu bat eskuratzeko orduan mutil batek aukera gehiago dituela neska batek baino, bi-biek prestakuntza eta esperientzia berdina izanik ere.

Adierazle honen balioa oso egonkor egon da azken hamarkadan. Hamar gaztetik bik baino zertxobait gehiagok uste dute lana lortzeko orduan diskriminazioa dagoela. Azken neurketan (2020), ehuneko orokorra % 23,4koa da; hortaz, fenomenoak ez du behera egin, eta, are esanguratsuagoa dena, gora egin du enplegua lortzeko orduan diskriminatzen dituztela uste duten emakume gazteen ehunekoak.

<b>17. HELBURUA.</b>	<b>Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea</b>		
ARDATZA	Berdintasuna eta gizarte-inklusioa		
Jardun-arloa	Gizarte-ekintza eta berdintasuna		
<b>32. ADIERAZLEA. Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra</b>			
Definizioa	Emakumeen kontrako indarkeriagatik salaketa jarri duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen kopurua, adin-tarte bereko 1.000 emakumeko.		
Iturria	Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila		
2017ko oinarri-lerroa <b>7,5 x 1.000 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; 7,0 x 1.000</b>	Azken datua <b>7,6 x 1.000 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>




Emakumeen kontrako indarkeriaren tasa kalkulatzeko, emakumeen kontrako indarkeriagatik salaketa jarri duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen kopurua (adin-tarte bereko 1.000 emakumeko) hartzen da aintzat.

2020ko balioa IV. Gazte Planean ezarritako oinarri-lerrokoarenaren antzekoa da, baina, oraindik ere, jomuga gainditzen du (<7,0, adin-tarte bereko 1.000 emakumeko).

Emakume gazteen artean, tratu txarrak emateko edozein moduren kontrako intolerantzia gero eta handiagoa da, eta, beraz, baliteke historikoki ezkutuan egon den fenomeno bat argitara ateratzearen ondorioz salaketek gora egin izana. Adierazle honen inguruan jomuga berriak ezartzeko orduan, egitate hori kontuan hartu beharko da, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean zero tolerantzia edukitzeak salaketak ugaritzea dakarrelako.

2020an, 30 urtetik gorako emakumeen aurkako indarkeria-tasa 3,6 emakumekoa izan zen 1.000 emakumeko, emakume gazteena baino nabarmen txikiagoa.


<b>18. HELBURUA.</b>	<b>Tratu txar mota berriak prebenitzea</b>		
ARDATZA	Berdintasuna eta gizarte-inklusioa		
Jardun-arloa	Gizarte-ekintza eta berdintasuna		
<b>33. ADIERAZLEA. Ziberjazarpena</b>			
Definizioa	Honako hiru egoeretako batean edo batzuetan sarritan biktima izan direla dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa: WhatsApp-eko taldeetatik kanporatu dituzte; sare sozial batean nortasuna ordeztu diete, edo irudi nahiz bideo konprometitu edo umiliagarriren bat igo dute Internetera, edo sare sozialetan zabaldu, haien baimenik gabe.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 4,5 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&lt; % 4</b>	Azken datua <b>% 3,3 (2021)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>



Ziberjazarpena, askotan, ez da identifikatzen, eta, beraz, inkestetan neurtzeko fenomeno zaila da. 2021ean, inkestatutako gazteen % 3,3k esan dute proposatutako honako hiru egoeretako batean edo batzuetan sarritan biktima izan direla: WhatsApp-eko taldeetatik kanporatu dituzte; sare sozial batean nortasuna ordeztu diete, edo irudi nahiz bideo konprometitu edo umiliagarriren bat igo dute Internetera, edo sare sozialetan zabaldu, haien baimenik gabe.

IV. Gazte Planean ezarritako jomugak gazteen % 4an kokatzen zuen mugako ehunekoa; hortaz, helburua bete da. Hala ere, 2021eko emaitzak aurreko neurketakoak (2018) baino gorago daude. Horrenbestez, ziberjazarpenaren fenomenoari arretaz kontu egiten jarraitu beharko dugu.


<b>19. HELBURUA.</b>	<b>Komunikazioa, parte-hartzea eta elkar ezagutza sustatzea</b>		
ARDATZA	Parte-hartzea eta konpromiso soziala		
Jardun-arloa	Parte-hartzea		
<b>34. ADIERAZLEA. Asoziazionismo-tasa</b>			
Definizioa	Elkarteren batekoak diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 46,2 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 50</b>	Azken datua <b>% 43,9 (2021)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>



Elkarteren batekoak diren 15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen ehunekoak bilakaera gorabeheratsua izan du, baina inoiz ez da % 30etik behera jaitsi.

2016tik 2021era, bi portzentaje-puntu baino zertxobait gehiago egin ditu behera (% 46,2tik % 43,9ra), eta ez du lortu IV. Gazte Planean helburu gisa finkatutako % 50era iristea. Ehunekoa altuagoa da gizonen artean, kirol-elkarteetan emakumeek baino gehiago parte hartzen dutelako.


<b>19. HELBURUA.</b>	<b>Komunikazioa, parte-hartzea eta elkar ezagutza sustatzea</b>		
ARDATZA	Parte-hartzea eta konpromiso soziala		
Jardun-arloa	Parte-hartzea		
<b>35. ADIERAZLEA. Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia</b>			
Definizioa	Gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa eduki nahiko luketen 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 42,4 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 45</b>	Azken datua <b>% 55,1 (2020)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>



Gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa edukitzeko nahia hazi egin da 2008tik 2020ra bitartean: % 27,3tik % 55,1era. 2016tik 2020ra izandako igoera bereziki esanguratsua izan da, % 42,4tik % 55,1era igaro baita; hortaz, sobera gainditu da 2020ko jomuga, % 45ekoa baitzen.

Emakumeek gizonak baino gogo handiagoa dute gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko.

<b>20. HELBURUA.</b>	<b>Kontsumitzean arduraz jokatzeko duten gazte gehiago</b>		
ARDATZA	Parte-hartzea eta konpromiso soziala		
Jardun-arloa	Kontsumoa		
<b>36. ADIERAZLEA. Kontsumo jasangarria</b>			
Definizioa	Kontsumo jasangarriari lotutako bost portaera hauetatik gutxienez lau ohikotasunez izaten dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa: bilgarri gutxi dituzten produktuak erostea, erosketetara norberaren poltsa edo orga eramatea, etxeko zaborrak hondakin motaren arabera bereiztea, uraren kontsumoa murriztea eta garraio publikoa erabiltzea edo automobila partekatzea.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 29,8 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 35</b>	Azken datua <b>% 41,8 (2021)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>




Kontsumo jasangarriaren indizea eratzeko, ingurumena zaintzearekin lotutako portaera hauek hartu dira kontuan: etxeko zaborra hondakin motaren arabera bereiztea, garraio publiko erabiltzea edo autoa partekatzea, ur-kontsumoa murrizten saiatzea, erosketak egitean norberaren poltsa edo orga eramatea eta gutxi ontziratutako edo paketatutako produktuak erostea.

Pertsona batek kontsumo jasangarria egiten duela esateko, jasangarritasunarekin lotutako bost portaera horietatik gutxienez lau ohikotasunez egin behar ditu. 2021ean, kontsumo jasangarriaren indizea % 41,8ra iritsi da, eta, beraz, IV. Gazte Planean jomuga gisa ezarritako % 35 gainditu du.

Gizonen eta emakumeen arteko aldea nabaria da; are, 2020rako ezarritako helburutik hamar puntu gora daude emakumeak.


<b>21. HELBURUA.</b>	<b>Kultura-kontsumoa sustatzea eta gazteek eta gazteentzat egindako kultura-jardueren garapenarekiko interesa areagotzea</b>		
ARDATZA	Sozializazioa		
Jardun-arloa	Kultura		
<b>37. ADIERAZLEA. Irakurtzeko ohitura</b>			
Definizioa	Azken hilabeteen aisialdian libururen bat irakurri duten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 54,4 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 55</b>	Azken datua <b>% 48,8 (2021)</b>	<b>HELBURUA LORTU GABE</b>



15 eta 29 urte bitarteko gazteek irakurtzeko duten ohiturak behera egin du 2016tik hona. Urte hartan finkatu zen IV. Gazte Planerako oinarri-lerroa, eta, hain zuzen ere, urte hartan jo zuen goia inkesta egin aurreko hilabeteen aisialdian gutxienez liburu bat irakurri zutela esan zuten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

2021ean, emakumeek bakarrik lortu dute finkatutako helburua betetzea, % 55etik gora ezarri baitzen eta % 57,9ko tasa baitaukat. Gizonek, berriz, % 39,6ko tasarekin, % 48,8ra jaitsi dute gazteen ehuneko orokorra.

<b>21. HELBURUA.</b>	<b>Kultura-kontsumoa sustatzea eta gazteek eta gazteentzat egindako kultura-jardueren garapenarekiko interesa areagotzea</b>		
ARDATZA	Sozializazioa		
Jardun-arloa	Kultura		
<b>38. ADIERAZLEA. Jarduera artistikoetan parte hartzea</b>			
Definizioa	Azken urtean honako jarduera artistikoren bat amateur modura egin duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa: argazkigintza egitea, musika-tresna bat jotzea, margotzea edo beste arte plastiko batzuetan aritzea, idaztea, dantzatzea, bideoak edo bestelako ikus-entzunezkoak editatzea, kantatzea (abesbatza edo musika talde batean), antzerkia egitea eta bertsolaritza egitea.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)		
2017ko oinarri-lerroa % 55,1 (2016)	2021eko jomuga > % 58	Azken datua % 76,8 (2021)	<b>HELBURUA LORTUTA</b>




Jarduera artistikoetan dagoen parte-hartzea neurtzeko, azken urtean proposatutako jarduera artistikoren bat egin duten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa erabili da.

Adierazle honek oso igoera handia izan du, eta, 2021ean, sobera gainditu du helburua.

Neurketa guztietan, emakumeek gizonak baino parte-hartze handiagoa dute jarduera artistikoetan.




<b>22. HELBURUA.</b>	<b>Kirola maila guztietan sustatzea</b>		
ARDATZA	Sozializazioa		
Jardun-arloa	Kirola		
<b>39. ADIERAZLEA. Kirola ohikotasunez egitea</b>			
Definizioa	Astean hiru aldiz edo gehiagotan kirola egiten duten 15 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 49,0 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 50</b>	Azken datua <b>% 56,4 (2021)</b>	<b>HELBURUA LORTUTA</b>



Astean hiru aldiz edo gehiagotan kirola egiten dutenen kopuruak nabarmen egin du gora, eta IV. Gazte Planerako finkatutako jomuga gainditu da.

2021ean, gazteen % 56,4k kirola egin dute astean hiru egunetan edo gehiagotan. Emakumeen artean, nabarmen egin du gora kirola egiten dutenen ehunekoak, eta horri esker igo da emaitza orokorra, gizonak 2016ko ehuneko berean jarraitzen baitute.

<b>23. HELBURUA.</b>	<b>Aisialdiko inguruneetan euskararen erabilera sustatzea</b>		
ARDATZA	Sozializazioa		
Jardun-arloa	Aisia		
<b>40. ADIERAZLEA. Lagunartean euskara erabiltzea</b>			
Definizioa	Lagunekin euskaraz batez ere edo gaztelaniaz adina euskaraz hitz egiten duten 16 eta 24 urte arteko gazteen ehunekoa.		
Iturria	Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila, Inkesta soziolinguistikoa		
2017ko oinarri-lerroa <b>% 35,3 (2016)</b>	2021eko jomuga <b>&gt; % 38</b>	Azken datua <b>% 35,3 (2016)</b>	<b>DATUAREN ZAIN</b>



Lagunekin batez ere euskaraz edo gaztelaniaz adina euskaraz hitz egiten duten 16 eta 24 urte arteko gazteen ehunekoa neurtzen du lagunarteko euskararen erabilera. Adierazle hau Inkesta soziolinguistikotik ateratzen da, zeina bost urterik behin egiten baita; hortaz, IV. Gazte Plana amaitu zen egunean, ez zegoen datu eguneratu berririk.

Halere, seriearen joerak aurrerapen geldo baina konstantea erakusten du lagunekin euskara erabiltzen duten gazteen ehunekoan.

Adierazle bakoitzaren analisisian egiaztatu dugunez, zenbaitetan, gizonak edo emakumeak lortu dute adierazlerako finkatutako jomuga betetzea, nahiz eta balio orokorrean lortu ez. Inguruabar hori erosoago ikusteko, hona hemen adierazle bakoitzaren azken datu orokorra, gizonen eta emakumeen balioak eta 2021eko jomuga jasotzen dituen laburpen-taula bat.

2. taula: Inpaktu-adierazleen emaitzak, sexuaren arabera

ADIERAZLEA		Guztira	Gizonak	Emakumeak	2020ko jomuga
1	Unibertsitateko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa	% 87,0 (2020)	% 87,0	% 87,0	> % 80
2	LHko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa	% 78,5 (2020)	% 78,4	% 78,7	>% 80
3	Gazteen langabezia-tasa	% 17,4 (2021)	% 18,3	% 16,3	< % 15
4	Prestakuntzari lotutako enplegua	% 67,8 (2020)	% 70,8	% 64,7	> % 60
5	Lan-istripuen indizea	32,4x1.000 (2020)	45,8 x1.000	17,9 x1.000	< 40 x1.000
6	Soldatepeko gazteen behin-behinekotasunaren tasa	% 65,5 (2021)	% 64,5	% 66,5	< % 65
7	Lanaldi partzialeko enpleguaren tasa	% 33,5 (2021)	% 26,4	% 41,1	< % 30
8	Norberaren konturako enpleguaren tasa	% 4,1 (2020)	% 5,1	% 3,1	> % 10
9	Luzaroko langabezia-tasa	% 6,8 (2021)	% 7,3	% 6,4	< % 5
10	Gehienez ere bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak amaitu dituzten gazteen langabezia-tasa	% 23,2 (2020)	% 21,2	% 25,7	< % 25
11	Emantzipazio-tasa	% 35,1 (2020)	% 29,8	% 40,6	> % 40
12	Batez besteko emantzipazio-adina	30,2 urte (2019)	30,2 urte	30,2 urte	< 29 urte
13	Etxebizitza libre alokairuan hartzeko kostua	% 80,3 (2020)	% 74,3	% 86,3	< % 63,5
14	Emantzipazioa alokairu-araubidean	% 43,4 (2020)	% 45,8	% 41,6	> % 56
15	Intolerantzia ideologikoa	% 24,9 (2020)	% 19,8	% 30,3	< % 15
16	Hiruetasun-tasa	% 49,3 (2019)	% 39,7	% 59,6	> % 38
17	Eskola-uzte goiztiarraren tasa	% 6,5 (2020)	% 8,5	% 4,3	< % 7
18	Goi-mailako hezkuntzako titulazioa	% 59,6 (2020)	% 55,8	% 63,3	> % 50
19	Gainditutako doktorego-tesiak	311 (2020)	154	157	> 400
20	Suizidioagatiko hilkortasun-tasa	2,6x100.000 (2020)	3,9x100.000	1,4x100.000	<4x100.000
21	Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentzia	% 8,3 (2018)	% 5,1	% 11,4	< % 10
22	Obesitate-tasa	% 4,2 (2018)	% 4,9	% 3,6	< % 4
23	Jarduera fisikoa	% 86,3 (2018)	% 87,3	% 85,3	> % 85
24	Nerabeen haurdunaldi-tasa	4,9x1.000 (2020)	-	4,9x1000	< 6x1.000
25	Sexu-harreman arriskutsuak	% 17,5 (2020)	% 16,4	% 18,6	< % 15
26	Trafikoaren ondoriozko heriotza-tasa gizonen artean	6,4x100.000 (2020)	6,4x100.000	-	< 4x100.000
27	Ohiko tabako-kontsumoa	% 18,5 (2017)	% 18,9	% 18,2	< % 18
28	Gehiegizko alkohol-kontsumoa	% 20,3 (2017)	% 25,3	% 15,3	< % 20
29	Ohiko kalamu-kontsumoa	% 4,2 (2017)	% 7,3	% 1,0	< % 4
30	Benetako pobrezia-tasa	% 6,0 (2020)	% 5,4	% 6,8	< % 8
31	Lana lortzeko esparruan genero-desberdinkeria hautematea	% 23,4 (2020)	% 6,7	% 33,6	< % 20

32	Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra	7,6x1.000 (2020)	–	7,6x1000	< 7x1.000
33	Ziberjazarpena	% 3,3 (2021)	% 3,9	% 2,7	< % 4
34	Asoziazionismo-tasa	% 43,9 (2021)	% 46,8	% 40,9	> % 50
35	Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia	% 55,1 (2020)	% 50,2	% 60,3	> % 45
36	Kontsumo jasangarria	% 41,8 (2021)	% 35,7	% 47,8	> % 35
37	Irakurtzeko ohitura	% 48,8 (2021)	% 39,6	% 57,9	> % 55
38	Jarduera artistikoetan parte hartzea	% 76,8 (2021)	% 74,5	% 79,1	> % 58
39	Kirola ohikotasunez egitea	% 56,4 (2021)	% 60,7	% 52,2	> % 50
40	Lagunartean euskara erabiltzea	% 35,3 (2016)	% 32,5	% 38,1	> % 38

## 5. INPAKTUAREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK, ADIERAZLEETAN ETA ADIERAZLEEN JOMUGETAN OINARRITUTA

Inpaktuaren ebaluazioan ikusten da zer-nolako bilakaera izan duen EAEko gazteriaren egoerak IV. Gazte Planaren garapenaldian. Lehen esan bezala, programek eta esku-hartzeek zuzeneko hartzaileengan izandako ondorioei buruzko informazioa ematen du emaitzen ebaluazioak, Planaren indarraldia amaitutakoan, baina inpaktuaren ebaluazioak harago jotzen du, eta, Planaren ekintzen eta gazteen errealitatean izandako aldaketan artean kausa-efektu erlaziorik ezarri gabe, errealitate hori aurreikusitako noranzkoan mugitu ote den erakusten du.

IV. Gazte Plana egiteko, Gazteen Euskal Behatokiak 2017an egindako diagnostikoa hartu zen abiapuntutzat, eta, Plana egituratzen zuten ardatzak, ekintza-arloak eta lehentasunezko helburuak ezarri ondoren, 40 adierazle hautatu ziren, Plana amaitutakoan gazteen egoeran espero ziren aldaketak ahalik eta laburren jaso zitzaten.

Ezin dezakegu bazter utzi IV. Gazte Planaren (2018-2021) indarraldiaren erdiak COVID-19aren pandemiarekin bat egin duela: zalantzarik gabe, gertaera horrek izugarri eragin du egin ahal izan diren lorpenetan. Hala ere, inpaktu-adierazleen % 69 bete dira edo joera positiboa daukate.

Zehazki, hamazazpi adierazle finkatutako mugara iritsi dira, edo muga hori gainditu dute (% 44k); hamarrek joera positiboa daukate, eta ezarritako helburutik hurbil daude (% 25ek); hamabik ez dute helburua bete, eta gazteen egoerak, beraz, gabeziak dauzka alderdi horietan (% 31k), eta bat ezin izan da baloratu, ez daukagulako oinarri-lerroa eguneratzeko daturik oraindik.

Atal honetan, inpaktu-adierazle guztien bilakaera xehatuko dugu, adierazleok arlo eta ardatz bakoitzaren helburuekin lotuz.

### 1. ARDATZA. Emantzipazioa eta autonomia

**Enpleguaren arloan**, zeinak 10 adierazleren bidez neurtutako bost helburu baititu, ikuspegi orokorra ona da; hala ere, helburuak horren ugariak izanda eta helburu bakoitzak pisu estrategiko desberdina duela kontuan hartuta, komeni da alderdi batzuk argitzea.

- ✓ Hezkuntza-eremutik lan-eremura igarotzeko prozesuan gerturatze eta abiadura handiagoa izateko helburua erabat lortu da unibertsitateko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasari dagokionez, eta oso joera positiboa dauka LHko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasan.
- ✓ Gazteen artean kalitate oneko enplegua handitzeko helburuak ere joera positiboa dauka gazteen langabezia-tasari dagokionez; izan ere, 2016tik hona (urte horretan ezarri zen oinarri-lerroa), nabarmen egin du behera tarte horretako langabeziak. Halaber, luzaroko langabezia-tasa ere jaitsi egin da, eta, beraz, bilakaera ona duela balioetsi dugu.
- ✓ Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza jorratzen duen helburuak dauzka gabezia gehien. Prestakuntzari lotutako enpleguaren jomuga gainditu da. Era berean, laneko ezbehar-tasa murrizteko helburua ere bete da, IV. Gazte Planean jomuga gisa ezarritako gehieneko mugatik oso behera baitago. Behin-behinekotasuna, oinarri-lerroarekin alderatuta, murriztu egin da, baina oso altua izaten jarraitzen du, eta ez du helburua bete. Lanaldi partzialeko lana ere ez da zehaztutako jomugara iritsi.
- ✓ Ekonomiaren etengabeko gorabeheren ondorioz eta ezbai horrek eragiten duen ziurgabetasuna dela-eta, norberaren kontura lan egiten duten gazteen tasak, 2021erako

helburura ez iristeaz gainera, beherantz egin du azken urteetan, eta, hortaz, ez da bete gazte ekintzaile gehiago egoteko helburua.

- ✓ Bazterketa-arriskuan dauden gazteak laneratzeari dagokionez, luzaroko langabezia-tasari buruzko adierazleak nabarmen egin du behera, Planaren oinarri-lerroarekin alderatuta; beraz, 2021erako ezarritako jomugara iritsi ez bada ere, bilakaera ona duela balioetsi dugu. Bestalde, gehienez ere bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak amaitu dituzten gazteen langabezia-tasa 2021erako ezarritako mugatik behera dago; horrenbestez, helburua bete da.

**Emantzipazioaren arloan** helburua bakarra da: gazteei etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea; alabaina, lau adierazleetako batean ere ez da lortu Gazte Planaren amaierarako proposatutako jomugak betetzea; bakar batek dauka joera positiboa, baina ez da jomugara iritsi.

Euskadiko gazteek emantzipazioaren inguruan duten egoeraren gaineko adierazleen bilakaera negatiboa izan da. Gazteei etxebizitza-aukera gehiago eskaintzeko abiatu diren ekintzek ez dute aldaketa handirik ekarri, Planaren aurretiko egoerarekin alderatuz gero.

- ✓ Emantzipazio-tasari eta emantzipazio-adinari buruzko adierazleetan, balioek oso gorabehera gutxi izan dituzte azken urteetan, eta biak ala biak daude 2021erako aurreikusitako helburutik urrun.
- ✓ Helburua ezarri zenetik, etxebizitza alokairuan hartzeko kostuak gora egin du etengabe, eta, gaur egun, 2021erako finkatutako jomugatik oso urruti dago.
- ✓ Badirudi egonkortu egin dela alokairuan bizi diren gazteen ehunekoak, 2011tik 2016ra bitartean azkar-azkar igo baitzen. IV. Gazte Planaren hasierako datuarekin alderatuta hiru puntu eta erdi igo dituen arren, ez da finkatutako jomugara iritsi; seguru asko, alokairuaren errentak garestitu egin direlako.

**Hezkuntzaren arloa**, zeinak lau helburu eta helburuok ebaluatzeko bost adierazle baititu, irudi lezake arazo-gune dela, ez baitira helburuak bete, baina komenigarria da banan-banan azaltzea zer gertatzen den inpaktu-adierazle bakoitzean.

- ✓ “Balioetan oinarritutako hezkuntzaren” helburua intolerantzia ideologikoa deituriko adierazlearekin neurtzen da: norberarenaz bestelako ideiak, sinesmenak edo balioak dituzten pertsonekin deseroso sentitzen direnen ehunekoaren berri ematen du adierazle horrek. Bada, adierazleak oso igoera handia izan du emakumeen artean, baina gure susmoa da portaera matxistak ez onartzeko jarreraren ondorioz izan duela halako igoera handia; hortaz, igoera hori ona izango litzateke. Inguruabar hori dela-eta, helburua neurtzeko modua berrikustea proposatzen dugu.
- ✓ Gazte eleaniztun gehiago egoteko helburua hirueletasun-tasaren adierazlean zehazten da, zeinak ez baitio igotzeari uzten. Jomuga anbizio handikoa bazen ere, sobera gaitunditu da.
- ✓ “Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman” helburua eskola-uzte goiztiarraren tasaren bidez eta goi-mailako hezkuntzako titulazioa dutenen ehunekoaren bidez neurtu da, eta erabat bete da. Bi adierazleetako balioak buru dira EB27n.
- ✓ Gaitunditutako doktorego-tesien kopuruak oso beherakada handia izan zuen 2017tik 2018ra; gero, 2019an, maila berean egin zuen gora, baina 2020an zertxobait jaitsi zen: ez da helburua bete. Adierazlearen gorabeherak zailak dira azaltzeko, baina aditzera eman dezakete beharrezkoa izan litekeela “gazte ikertzaile gehiago” izateko helburua neurtzeko beste adierazleren bat zehaztu behar izatea; adibidez, urtero gazteei esleitzen zaizkien ikerketa-beken kopurua.

## 2. ARDATZA. Ongizatea eta bizitza osasungarria

Ardatz honek betetze-maila altua dauka. Gazteen osasunak eta osasunari lotutako jokabideek bilakaera ona izan dute % 90ean.

- ✓ Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzeko helburua bi adierazleren bidez neurtu da (antsietate- edo depresio-arazoaren prebalentzia eta suizidioagatik hilkortasun-tasa), eta biak geratu dira ezarritako gehieneko mugatik behera; hortaz, Planaren amaierarako planifikatutakoa bete da.
- ✓ Gauza bera gertatu da gazteen obesitatea eta gehiegizko pisua gutxitzeko helburuarekin ere, obesitate-tasa 2021erako ezarritako balioaren gainetik 2 hamarrenera kokatu baita; jarduera fisikoa, bestalde, finkatutako helburutik gora dago.
- ✓ Sexu-bizitza osasungarria edukitzeko helburua erdizka bete da. Nerabeen haurdunalditasa 2021erako zehaztutako atalasetik behera dago, baina sexu-harreman arriskutsuek gora egin dute, eta 2021erako zehaztutako muga gainditu dute.
- ✓ Ongizatea eta bizitza osasungarria izeneko ardatzaren laugarren helburua gazteengan arrisku-jokabideak eta/edo adikzioak (substantziadunak eta substantziarik gabeak) prebenitzea da, eta lau adierazleren bidez neurtu da betetze-maila. Trafikoko istripuetan hildako gizonen kopuruak etengabeko beherakada izan du azken urteetan, eta joera positiboa da. 2020an Planean ezarritako gehieneko muga zertxobait gainditu bazen ere, 2019an jomuga lortu zen. Bestalde, tabakoaren, alkoholaren eta kalamuaren kontsumoek oso joera positiboa daukate, eta finkatutako jomugetatik hamarren batzuetara baino ez daude.

## 3. ARDATZA. Berdintasuna eta gizarte-inklusioa

Ardatz estrategiko honek aniztasun handia dauka helburuak betetzeari dagokionez.

- ✓ Bazterketa-arriskuko egoerei aurrea hartzea proposatzen duen helburua neurtzeko, "benetako pobrezia-tasa" adierazlearen bilakaera aztertu da. Tasa horrek goranzko joera zuen azken aldian, eta ez zegoen batere garbi helburua betekiko ote zen; alabaina, 2020ko datuek 2018koekin alderatuz gero izugarri egin dutenez hobera, ezarritako jomuga lortu da.
- ✓ Lana lortzeko esparruan hautematen den genero-desberdinkeriar buruzko adierazleak ez du helburua bete. Balio orokorrak joera positiboa erakusten duen arren, 2020an, enplegurako sarbidean gizonen aldeko diskriminazioa dagoelako pertzepzioak ehuneko 5 puntu igo ditu emakumeen artean.
- ✓ Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko helburuak ere ez du bete 2021erako aurreikusita zegoena, ezarritako jomuga lortzetik 6 hamarrenera bakarrik geratu den arren. Halere, argitu beharra dago helburu hori indarkeria jasateagatik salaketaren bat jarri duten emakumeen kopuruaren arabera neurtzen dela eta 30 urtetik beherako emakumeek emakume nagusiagoek baino gehiagotan salatzen dituztela jokabide horiek; hau da, adierazlearen balioa igo izanak, egiazki, emakume gazteak ahaldunduago daudela erakusten du. Hortaz, adierazleak 2021erako aurreikusitako balioa lortu ez badu ere, emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko helburua ez dugu besterik gabe "lortu gabetzat" jo behar.
- ✓ Tratu txar mota berriak prebenitzeko helburua neurtzeko, 15 eta 29 urte bitartekoek jasandako ziberjazarpen-gertakariak hartu dira aintzat plan honetan. Ziberjazarpenzat jo daitezkeen egoeren biktima izan direla esan duten gazteen ehunekoak behera egin du, 2016an oinarri-lerroa ezarri zenetik gehieneko muga gazteen % 4an finkatzen duen helburua bete arte. Halere, sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen direnez eta

etengabeko bilakaeran daudenez, ikerketak egin beharko dira adierazle hori oso eguneratuta eduki ahal izateko; areago, helburua neurtzeko beste adierazleren bat sartzeko aukera ere azter liteke.

#### **4. ARDATZA. Parte-hartzea eta konpromiso soziala**

Parte-hartzeari eta konpromiso sozialari buruzko laugarren ardatzak bi helburu eta helburuon betetze-maila neurtzeko hiru adierazle dauzka.

- ✓ Ardatzaren lehenengo helburua komunikazioa, parte-hartzea eta elkar ezagutza sustatzea da, eta betetze-maila neurtzeko adierazleetako bat asoziazionismo-tasa da. Bada, ebaluazio honetan, helburua bete ez dela balioetsi dugu, balioa finkatutako jomugatik sei portzentaje-puntura geratu baita.

Gai publikoetan parte hartzeko nahia izan da komunikazioa, parte-hartzea eta elkar ezagutza sustatzeko helburua neurtzeko erabili den beste adierazlea, eta, oraingo honetan, 2020ko balioa IV. Gazte Planean ezarritako jomugatik oso gora kokatu da.

- ✓ Kontsumitzean arduraz jokatzeko duten gazte gehiago egoteko helburua kontsumo jasangarriaren indize baten bidez neurtu da ebaluazio honetan. Gazteen Euskal Behatokiak garatu du indizea, eta kontsumo jasangarriarekin lotutako portaera jakin batzuen maiztasuna neurtzen du. Finkatutako jomugatik oso gora geratu da adierazle hori.

#### **5. ARDATZA. Sozializazioa**

Bosgarren ardatz estrategikoa hiru arlotan berezita dago: kultura, kirola eta aisialdia. Arlo bakoitza helburu batean zehaztu da, orain azalduko dugun moduan.








- ✓ Kultura-arloak kultura-kontsumoa sustatzea eta gazteek eta gazteentzat egindako kultura-jarduerekin garapenarekiko interesa areagotzea du helburu. Helburuaren betetze-maila ebaluatzeko, bi adierazle erabili dira. Batetik, irakurtzeko ohituraren adierazlea dago, zeinak azkenengo urteetan behera egin baitu eta 2021erako ezarritako jomugatik urrunduta baita.

Bestetik, jarduera artistikoetan parte hartzeari buruzko adierazlea dago; bada, 2021ean igoera handia izan du, eta finkatutako jomuga gainditu du.

- ✓ Kirol-jarduera sustatzea da kirol-arlorako finkatu den helburua. Astean hiru aldiz edo gehiagotan kirola egiten dutenen kopurua neurtzen duen adierazleak nabarmen egin du gora, eta IV. Gazte Planerako finkatutako jomuga gainditu du.
- ✓ Azkenik, aisialdiko inguruneetan euskararen erabilera sustatzeko helburua Inkesta soziolinguistikotik datorren informazioaren bidez neurtu da. Adierazle horrek lagunartean zenbat euskara erabiltzen den neurtzen du, eta, 2016an jasotako azken balioak jomuga ezartzeko balio izan bazuen ere, ez daukagu betetze-maila ebaluatzeko datu berrik.



### 3. taula: IV. Gazte Planeko jomugen betetze-mailaren laburpen-taula

		Oinarri-lerroa	Espero zen emaitza	Ebaluazio-datua	Betetze-maila
1	Unibertsitateko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa	% 82 (2016)	> % 80	% 87 (2020)	
2	LHko ikasketak egin ondorengo laneratze-tasa	% 72,4 (2016)	> % 80	% 78,5 (2020)	
3	Gazteen langabezia-tasa	% 23,7 (2016)	< % 15	% 17,4 (2021)	
4	Prestakuntzari lotutako enplegua	% 52,7 (2015)	> % 60	% 67,8 (2020)	
5	Lan-istripuen indizea	36,4 x 1.000 (2015)	< 40 x 1.000	32,4x1000 (2020)	
6	Soldatapeko gazteen behin-behinekotasunaren tasa	% 66,9 (2016)	< % 65	% 65,5 (2021)	
7	Lanaldi partzialeko enpleguaren tasa	% 30,4 (2016)	< % 30	% 33,5 (2021)	
8	Norberaren konturako enpleguaren tasa	% 4,6 (2015)	> % 10	% 4,1 (2020)	
9	Luzaroko langabezia-tasa	% 9,4 (2016)	< % 5	% 6,8 (2021)	
10	Gehenez ere bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak amaitu dituzten gazteen langabezia-tasa	% 32,6 (2016)	< % 25	% 23,2 (2020)	
11	Emantzipazio-tasa	% 38,9 (2016)	> % 40	% 35,1 (2020)	
12	Batez besteko emantzipazio-adina	29,8 urte (2015)	< 29 urte	30,2 (2019)	
13	Etxebizitza librea alokairuan hartzeko kostua	% 65,3 (2016)	< % 63,5	% 80,3 (2020)	
14	Emantzipazioa alokairu-araubidean	% 39,9 (2015)	> % 56	% 43,4 (2020)	
15	Intolerantzia ideologikoa	% 16,6 (2016)	< % 15	% 24,9 (2020)	
16	Hirueletasun-tasa	% 30,9 (2014)	> % 38	% 49,3 (2019)	
17	Eskola-uzte goiztiarraren tasa	% 10,2 (2015)	< % 7	% 6,5 (2020)	
18	Goi-mailako hezkuntzako titulazioa	% 54,2 (2015)	> % 50	% 59,6 (2020)	
19	Gainditutako doktorego-tesiak	400 (2016)	> 400	311 (2020)	
20	Suizidioagatiko hilkortasun-tasa	5,8 x 100.000 (2014)	< 4 x100.000	2,6x100.000 (2020)	
21	Antsietate- eta depresio-arazozen prebalentzia	% 13,7 (2013)	< % 10	% 8,3 (2018)	
22	Obesitate-tasa	% 5,4 (2013)	< % 4	% 4,2 (2018)	
23	Jarduera fisikoa	% 75,3 (2013)	> % 85	% 86,3 (2018)	
24	Nerabeen haurdunaldi-tasa	7,6 x 1.000 (2014)	< 6 x 1.000	4,9x1.000 (2020)	

		Oinarri-lerroa	Espero zen emaitza	Ebaluazio-datua	
25	Sexu-harreman arriskutsuak	% 15,2 (2016)	< % 15	% 17,5 (2020)	●
26	Trafikoaren ondoriozko heriotza-tasa gizonen artean	9,6 x 100.000 (2015)	< 4 x 100.000	6,4x100.000 (2020)	●
27	Ohiko tabako-kontsumoa	% 23,5 (2012)	< % 18	% 18,5 (2017)	●
28	Gehiegizko eta arriskuzko alkohol-kontsumoa	% 24,5 (2012)	< % 20	% 20,3 (2017)	●
29	Ohiko kalamu-kontsumoa	% 4,3 (2012)	< % 4	% 4,2 (2017)	●
30	Benetako pobrezia-tasa	% 8,1 (2016)	< % 8	% 6,0 (2020)	●
31	Lana lortzeko esparruan genero-desberdinkeria hautematea	% 24,3 (2016)	< % 20	% 23,4 (2020)	●
32	Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra	7,5 x 1.000 (2016)	< 7 x 1.000	7,6x1.000 (2020)	●
33	Ziberjazarpena	% 4,5 (2016)	< % 4	% 3,3 (2021)	●
34	Asoziazionismo-tasa	% 46,2 (2016)	> % 50	% 43,9 (2021)	●
35	Gai publikoetan gehiago parte hartzeko nahia	% 42,4 (2016)	> % 45	% 55,1 (2020)	●
36	Kontsumo jasangarria	% 29,8 (2016)	> % 35	% 41,8 (2021)	●
37	Irakurtzeko ohitura	% 54,4 (2016)	> % 55	% 48,8 (2021)	●
38	Jarduera artistikoetan parte hartzea	% 55,1 (2016)	> % 58	% 76,8 (2021)	●
39	Kirola ohikotasunez egitea	% 49,0 (2016)	> % 50	% 56,4 (2021)	●
40	Lagunartean euskara erabiltzea	% 35,3 (2016)	> % 36	% 35,3 (2016)	●

## 6. COVID-19AREN INPAKTUA: GAZTEEN ETA ADITUEN IRITZIAK

2020ko martxoan agertu zen gure bizitzetan pandemia eta harekin ekarri zuen itxialdia, eta oraindik ere horren guztiaren ondorioak jasaten ari gara. IV. Gazte Planaren inpaktuaren ebaluazioak ezin du bazter utzi, noski, errealitate hori, IV. Gazte Planaren denbora-esparruaren erdia hartu baitu eta Planaren arlo guztiak ukitu baititu.

Hezkuntza, enplegua, emantzipatzeko aukerak, osasuna (bereziki, osasun mentala), desberdinkeria, kontsumoa, kultura-ohiturak, kirol-jarduera eta aisialdia: guztiak dira COVID-19aren ondorioek nolabait eragindako arloak.

Itxialdia hasi zenetik gaur arte, Gazteen Euskal Behatokiak hainbat aldiz jo du gazteengana haien iritzia jaso eta egoera hori nola bizi izan duten eta nola bizitzen ari diren jakiteko; halaber, eremu ezberdinetako adituengana ere jo du, pandemiak gazterian izandako ondorioei buruz zer ikuspegi duten jakiteko.

Bi ikuspegiak sakon ezagutu ahal izateko, Gazteen Euskal Behatokiaren lau argitalpen kontsultatu daitezke [hemen](#) (pandemiaren hainbat unetan idatzi ziren, 2020ko martxoan hasi zenetik 2021aren amaierara bitartean).

Lehenengoa 2020an argitaratu zen, eta itxialdiaren hasieran (2020ko martxoaren 20an) abiatutako inkesta bat da. **#EsanNolaDaramazun inkestari** esker, lehen eskutik jakin ahal izan genuen 15 eta 34 urte bitarteko gazteak nola ari ziren bizitzen koronabirusaren ondoriozko itxialdia hasierako uneak. 3.482 gaztek erantzun zioten onlineko inkestari.

Azterlan horretatik ondorioztatzen denez, gazte gehienak jatorrizko familiarekin bizi izan ziren pandemian: beste probintzia batzuetan edo atzerrian bizi zirenen erdiak Euskadira itzuli ziren itxialdiaren lehenengo hamabostaldian, eta lagunekin edo pisukideekin pisu partekatuetan bizi ziren gehienak ere gurasoen etxera itzuli ziren.

Itxialdian ikastea: Ikasle gehienek online jasotzen zituzten eskolak; batez ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta unibertsitateko graduak egiten ari zirenek; Lanbide Heziketa ikasten ari zirenek zertxobait gutxiago. Erdiek adierazi zuten eskolak online jarraitzeko zailtasunen bat edo asko zeuzkatela. Egoerak azterketetan (batez ere, selektibitatean), praktketan (bertan behera geratu ziren) eta gradu amaierako lanetan izango zituen ondorioengatik kezkatuta zeuden. Gainera, beldur ziren ikasturte hartako emaitzetan eragin txarra izango zuela egoerak.

Itxialdia eta lana: Hamarretik zazpi lanari eutsi zioten. Gehienak telelanean aritu ziren, baina heren batek aurrez aurre egiten zuen lan. Gazte enplegudunen laurden batek baino gehiagok etxera joan behar izan zuen enpresaren aginduz, telelanean aritzeko aukerarik gabe. Gazte gutxi galdu zuten lana pandemiaren hasierako une haietan.

Itxialdiak ekonomiaren gainean izango zituen ondorioei eta kaleratzeei zieten beldurra nagusitu zen enpleguaren eremuko iruzkinetan. Bestelako arlo batzuek ere kezka handia eragiten zieten: pandemiaren ostean lanpostuak galduko ote ziren edo enplegu bat aurkitzeko zailtasunak areagotuko ote ziren eta enplegua areago ezegonkortuko ote zen.

Itxialdiaren lehen aldi hartan, gazteen emozioak askoz ere baikorragoak ziren, ezkorrek baino. Erantzukizuna eta konpromisoa gailendu ziren, maitasunarekin, samurtasunarekin, itxaropenarekin eta baikortasunarekin batera. Emozio ezkorren artean, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen erdiek baino gehiagok aipatutako asperdura nabarmendu zen.

Gazte gehienek errutinak ezarri zituzten egunerokotasunerako; gehienek beren ekimenez. Lagunekiko eta senideekiko kontaktuak asko ugaritu ziren, bideokonferentzien bidez; halaber, ikus-entzunezko aisialdiak eta albisteak irratiz nahiz telebistaz jarraitzeko ohiturak gora egin zuten.

Gehientzat, familiarekiko elkarbizitza ona izaten ari zen. Gazteek idatzitako iruzkinetan, askotan aipatzen zen kezkatuta zeudela adineko senitartekoak kutsatu zitezkeela eta. Halaber, larritasuna eta kutsatzeko beldurra ere aipatu zituzten, baita osasun mentaleko arazoak zeuzkaten pertsonak gogoratu ere, itxialdian egonda zailtasun gehiago baitzeuzkaten. Zentzu horretan, genero-indarkeriaren biktima ziren emakumeen egoera zaila ere aipatu zuten.

Itxialdiak elkartasuna berpiztu zuen, eta, itxialdiko lehenengo egunetan, gazte askok eskaini zuten beren burua boluntariotza-sareetan edo auzoterian bertan. Batez ere, janaria eta sendagaiak erosten zizkieten, adinagatik edo beste inguruabar batzuegatik, kalera irteteko arazoak zeuzkatenei edo kalera irten ezin zirenei. Era berean, oso ohikoa zen adinekoen edo pertsona zaugarrien zaborra jaisteaz edo maskotak kalera ateratzeaz arduratzea. Bestetik, honako hauek ere aipatzen ziren: haurrak zaintzea edo haurrei etxerako lanak egiten laguntzea, odola ematea, 3D inprimagailuekin babes-materialak egitea, laguntza psikologikoa ematea eta abar.

Gazteen erdien ustez, Espainiako gobernuak koronabirusaren krisiaren hasieratik ezarri zituen neurriak ez ziren nahikoak. Une hartan, gazte gehien-gehienek egiten zieten jarraipena neurriak eta gomendioei. Iruzkinetan, itxialdi-neurri zorrotzagoak eskatzen zituzten; hala nola, behar-beharrezkoak ez ziren jarduera guztiak ixtea eta isun handiagoak ezartzea.

Bigarren ikerketa, **#NolaDaramazun bigarren inkesta**, onlineko inkesta bat zen, 15 eta 34 urte bitarteko gazteei zuzendutakoa, eta 2020ko urriaren 30etik azaroaren 4ra bitartean egin zen. Bigarren inkesta egin zenean, beste alarma-egoera bat deklaratu zen, baina hasieran baino neurri malguagoak zeuden ezarrita. Honako arlo hauei buruzko informazioa jasotzea zen inkestaren helburua: gazteek nola baloratzen zituzten COVID-19aren kontra hartu ziren neurriak, pandemiak gazteen proiektu eta errutinetan nolako eragina izan zuen eta, azkenik, nola sentitzen ziren.

Euskadiko gazte gehienak arduratsu zeuden pandemiaren egoerarekin, eta inkesta egin artean hartutako prebentzio-neurri ia guztien alde zeuden. Horrek ez du esan nahi, ordea, ahots kritikorik ez zegoenik edo neurriak betetzea erraza zenik.

Alabaina, gazteak ez zeuden hezkuntza- edo kirol-zentroak ixteko aukeraren alde, eta are gutxiago etxean berriro konfinatzearen alde. Adin horretan, lagunekin egoteak edo bikote-harremanak edukitzeak sekulako garrantzia dauka, eta, gehienak gurasoekin bizi direla aintzat hartuta, horrexek azaldu dezake gazteak itxialdiaren eta udalerririk ixtearen kontra agertu izana.

Bestetik, gazteek bazekiten aisialdiko praktika batzuek (adibidez, kale-edanak) kutsatzeko arriskua areagotzen zutela, baina erraz kutsatzeko beste toki edo eremu batzuk ere identifikatzen zituzten, eta, zentzu horretan, garraio publikoa nabarmentzen zuten.

Gazteek adierazten zuten, pandemiaren hasieratik ugaritu ziren bai sare sozialen erabilera, bai onlineko erosketak, eta harremanetan oinarritutako aisialdiak izugarritzko beharakada izan zuten, festak eta tabernak barne hartuta.

2020an, hamar gaztetatik bati proiekturen bat zapuztu zitzaion pandemiaren ondorioz: ezin izan zen ikastera kanpora joan, ezin izan zuen lana aldatu edota emantzipatu. Gainera, gazteen iritziz,

krisi honetan sortutako langabeziaren aitzakian, enpleguen lan-baldintzak okertzen ari ziren. Luze-zabal hedatutako iritzi bat zen hori.

Une hartan, gazteek pandemiaren inguruan gehien sentitzen zituzten emozioak ardua eta konpromisoa ziren, eta atzetik zetozen amorrua, kezka eta asperdura. Gazteen erdiek antsietatea, tristura eta bakardadea ere sentitzen zituzten pandemiaren ondorioz. Sentimendu negatibo horiek guztiek oso gorakada handia izan zuten, etxeko itxialdiaren hasieran (martxoan) sentitutakoekin alderatuz gero.

Gazteen ongizate emozionalean eta une hura bizitzeko moduan eragin handia izan zuten zenbait arlok: harremanak edukitzeko eta aisialdiaz gozatzeko mugaketa, aurreikuspen negatiboak (ez osasun-arloan bakarrik, baita enpleguan, ikasketetan edo planeatutako proiektuetan ere) eta egoera hobetzeko denbora-perspektibarik ez egotea.

Hirugarren ikerketa, **“Euskadiko gazteria pandemiaren garaian. Online monitorizazioa (2020ko martxoa-2021eko maiatza)”** izenekoa, 2021ean argitaratu zen.

Azterlanean, Euskadiko gazteei buruzko hizketaldi digitalak 2020ko martxotik (pandemiaren hasieratik) 2021eko maiatzera bitartean izandako bilakaera aztertu zen, 26.646 ‘aipamenei’ bidez. Gizabanakoek, komunikabideek eta antolakundeek online argitaratutako iruzkinak edo artikuluak dira ‘aipamenak’, eta, horien bidez, kanal digitalek gazteen inguruan eraikitako irudi eta estereotipoak identifikatu dira.

Hona hemen elkarrizketa digitalaren analitika ateratako ondorio nagusiak:

- Diskurtsoak negatiboak izan ziren nagusiki: Euskadiko gazteei buruz egindako hizketaldi elektronikoa erabat ezkorra zen, bi arrazoi nagusi hauengatik: batetik, kolektibo horrek jasandako ondorioak daude (ondorio emozional, psikologiko eta ekonomikoak), eta, bestetik, iritzi publiko argitaratuak (komunikabideek) gazteen erantzukizun- edo elkartasun-faltaren gainean zuten pertzepzioa dago (itxialdiari itzuri egitea, portaera oldarkorrak edukitzea eta abar).
- Gazteak jo zituzten pagaburu edo errudun: Bide digitaletatik pandemia-aldian egindako analisiaren aldian, Euskadiko gazteek sentitzen zuten gizarteak oro har (beste belaunaldiek) eta hedabideek bidegabeki jotzen zituztela errudun, COVID-19a zabaltzearen errudun, gazteria osora estrapolatzen baitzen gazteen kolektiboko zati txiki-txiki baten portaera arduragabeak. Batzuetan, gazteen “kriminalizazioaz” hitz egiten zuten, COVIDa zabaltzea leporatzen baitzieten.
- Gazteen egoeran, horrek guzti horrek atzerapausoa ekarri zuen: Izan ere, horrekin batera, gazteek hautematen zuten aurretik zituzten arazoak (lan-irteerarik ez, gazteen langabezia, soldata baxuak, emantzipatzeko zailtasunak eta abar) ahaztuta geratzeaz gain okerrera ere egiten ari zirela.

Azkenik, **“Gazteak eta pandemia. Adituen begiradak”** argitalpenean (2021eko amaiera), Gazteen Euskal Behatokiak laguntza eskatu zien hainbat eremutako 29 adituri, pandemiak Euskadiko gazteengan izandako efektuei eta etorkizunera begira aurreikusten zituzten ondorio, arazo, erronka eta aukerei buruzko ikuspegia osa zezaten.

Askotariko gaiak jorratu dira —adituak adina gai—, baina 2020tik gertatutakoaren inguruan hausnartzeko eta Gazte Plan berria orientatzeko balio dezaketen gai batzuk nabarmenduko ditugu.

Honako hausnarketa hauek ekarri ditugu (gaiak ez dira garrantziaren edo larritasunaren arabera ordenatu):

- Pandemiak, urtebetez baino gehiagoz mugikortasun-mugaketak ezarri zituenez, **euskararen erabileran** atzera egitea eragin zien gazte askori, eta horrek atzerapausoa ekarri ahal izan dio erabileraren hedapenari.

Jone Goirigolzarri Garaizar Deustuko Unibertsitateko irakasle eta gizarte-zientzietako doktorearen esanetan, gazteek, pandemiaren ondorioz, aisialdiko guneekin zuten harremana hautsi zuten, eta horrek ageriko eragina izan zuen euskararen erabileran: “Sare intimoetan, zeinetan pandemiak gutxien eragin duen, euskara erabiltzeko aukeraren bat duten gazteek zelan edo halan euskararekiko lotura mantentzea lortu dute; aldiz, erabilera aukerak esparru eta harreman sozial zabalago eta noizbehinkakoagotan dituztenek, hala nola, euskararekin identifikatzen dituzten jarduera eta guneetan (...) euskara erabiltzeko aukerak erabat murriztuta ikusi dituzte”.

Dudarik gabe, euskararen erabilera puntu garrantzitsua izan da eta izango da V. Gazte Planean, eta, pandemiaren ondorioz, bikoiztu egin beharko dira ahaleginak, atzerakadarik nahi ez badugu.

- Pandemiak eragin argia izan du arlo emozionalean —ez gazteengan bakarrik, baina baita haiengan ere—, eta, gaztaroko ezaugarri bereziak direla-eta, baliteke **osasun mentaleko** arazoek gora egitea.

Natalia Alonso Alberca EHUKo Psikologiako irakaslearen ustez, nerabezaroaren ezaugarrietako bat da okertu egiten direla emozioak hauteman, ulertu eta erregulatzeko trebetasunen alderdi batzuk. Aldi horretan, haurtzaroarekin alderatuta, “emozioak ezagutzeko gaitasunak okerrera egiten du; ulermen emozionala asaldatu egiten da, eta nerabeek zailtasun gehiago izaten dituzte emozioak erregulatzeko”.

Harreman sozial eta afektiboak, mugikortasuna, independentzia, ikasketak eta oraina bizitzeko nahiz etorkizuna proiektatzeko askatasuna gorabeheratu zitzaizkien, eta, horren aurrean, Natalia Alonso Albercaren hitzetan, nerabe eta gazte batzuek “hibernazio afektibora” jo dute. Horrek ondorioak izango ditu, eta heziketa emozional eta afektiboaren esparrutik aurre egin beharko zaie.

Arreta psikiatrikoan ardura zuzenak dauzkatenek baieztatu dutenez, dagoeneko ugaritu dira osasun mentaleko arazoak. Arantza Fernández Rivas Basurtuko Ospitaleko Haur eta Gazteen Psikiatria Ataleko buruak eta Miguel Angel González Torres ospitale bereko Psikiatria Zerbitzuko buruak diotenez, 2019tik hona nabarmen ugaritu dira nerabeen larrialdi eta ospitaleratze psikiatrikoak; batez ere, elikadura-portaeraren nahasmenduengatik.

Halaber, ikusi dute ideia gintza edo jokabide suizidaren ondoriozko ospitaleratze psikiatrikoek gora egin dutela. Beraz, adi zaindu beharko dugu ea zer norabide hartzen duen adierazle horrek, nerabeen eta gazteen osasun mentalari ematen zaion arretaren erabateko porrota aditzera eman dezake-eta adierazle horren gorakadak.

- **Enpleguari** dagokionez, 2017tik 2019ra bitartean hasitako joera positiboa hautsi du pandemiak. Aurreikustekoa da pandemiak utzitako atzeraldiaren eraginez are zailagoa izango dela gazteentzat lan-merkatu sartzeara eta are gehiago prekarizatuko duela enplegua. Eta egoera horrek, bada, areago oztopa dezake **emantzipazioa**, dagoeneko hain zaila dena.

Modu batera zein bestera, aditu askok aipatu dute arazo hori, eta, zalantzarik gabe, hein handi batean, horretara bideratu beharko dira EAEn datozen urteetan gazteei zuzentzen zaizkien esku-hartzeak.

- Pandemiak nabarmen zaildu du oro har gazteen egoera enpleguaren arloan, baina **jatorri atzerritarreko gazteengan** are ondorio latzagoak utzi ditu. Julia Shershneva Zastavnaia Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiko ikertzaileak honako hau adierazi du: “Izan ere, lan-merkatuan desabantaila bikoitza jasaten dute: alde batetik, gazteak direlako, eta bestetik, jatorriz atzerritarrek direlako; horren ondorioz, bereziki kalteberak dira egiturazko aldaketa ekonomikoen aurrean. Sarritan, lan-esparru prekarizatuagoak betetzen dituztenez —bai ekonomia informalean edo behin-behinekotasun edo lan-ezgonkortasun handia izaten duten sektoreetan—, enplegua galtzeari edo lan-baldintzak okertzeari gehiago egin behar izaten diote aurre”.

“Gazteak eta pandemia. Adituen begiradak” ikerketan egindako hainbat ekarpenetan aipatu dira bai immigrazioa, bai immigrazioak gizartea gaztetzeko orduan duen papera. Euskal gizarteak gazte immigranteei ematen dizkien aukerak eragin erabakigarria izango dute Euskadin biztanleria gazteari eusteko orduan, eta, beraz, baita lortutako gizarte-ongizateari eusteko orduan ere. Eta, hori lortzeko, lan-merkatu sartzan eta benetan gizarteratzen lagundu beharko zaio kolektiboari.

- Pandemiaren ondorioz (batez ere, hasierako itxialdiarengatik), **IKTen eta sare sozialen erabilera** igoera esponentziala izan du, alderdi guztietan. Naiara Pérez de Villarreal Amilburu sare sozialen arloan aholkulari, trebatzaile eta adituaren iritziz, pandemiak sekulako aurrerapena ekarri du digitalizazioaren arloan; izan ere, “hilabete gutxi batzuetan egin genuen urteetan egin behareko aurrerakada”.

Eskuratutako trebetasun asko gure egunerokotasunaren parte dira honezkero (tefelana, onlineko prestakuntza, bilera birtualak eta abar), baina, horrekin batera, pertsona batzuek arazo fisiko, psikologiko eta emozionalak ere garatu dituzte; horien artean daude, besteak beste, jokabidezko adikzioak: onlineko jokoarekin, bideojokoekin eta sare sozialekin zerikusia daukaten erabilera problematikoez ari gara. Arazo horiek guztiak jorratu beharko ditugu.

- Pandemiak ondorioak izan ditu harremanetan, eta, hortaz, baita **sexu-harremanetan** ere. Ana Ramírez de Ocariz Sorolla EMAIZE zentroko sexologoak planteatu dituen gaien artean dago nola handitu den sare sozialen erabilera ligatzeko orduan. Haren hitzetan, “erotika teknologikoaren edo zibersexu deiturikoaren igoera honek oso ondorio onak izan ditzake; adibidez, emakumeen erotika autonomoagoa izan daiteke. Alabaina, erotika horrek ez du betetzen elkarri lotzeko dugun giza premia. Gerta al liteke etorkizunean praktika erotikoko partekatuek behera egitea, aspaldi honetako ikerketa batzuek adierazi duten bezala?”.

Adituak aipatu du, halaber, balitekeela praktika arriskutsuak areagotu izana, pandemia-garaiko mugaketen ondorioz benetan zaila zelako praktika erotikotarako elkartzeari. Praktika arriskutsu horiekin batera, beste fenomeno batzuk ere areagotu dira —hala nola, pornografiaren kontsumoa eta koitoan zentratutako emoziorik gabeko erotika—, egoera horrek, hala, ezinbesteko egiten dute gazteei sexu-heziketa planifikatu bat ematea eta sexu- eta ugalketa-osasunerako baliabideak eskaintzea.

- Errepaso honekin amaitzeko —zeinak ez baitu, noski, ikuspegi osoa ematen; “Gazteak eta pandemia. Adituen begiradak” argitalpenean parte hartu zuten adituen lekukotza batzuk baino ez—, Joseba Zalakain Hernández SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko zuzendariaren hitzak ekarri ditugu: “Garrantzitsua da azpimarratzea pandemiaren osteko garaian egin behar den berreraikuntza ekonomiko eta soziala, lehenik eta behin, **belaualdien arteko ituna** berritzean

eta eguneratzean oinarritu behar da, bai eta belaunaldien arteko oinarritzko justizia-mailak bermatzeko premian ere. Lan-merkatua, etxebizitza-merkatua eta gizarte-babeseko eredia eguneroko bizitzaren dimentsioak dira, eta helduen eta adinekoen interesen arabera diseinatzen dira. COVIDak –ustekabeen, jakina- areagotu egin du eskubideen, interesen eta aukeren arrakala hori. Espero dezagun datozen urteetan egin behar dugun suspertze sozioekonomikoaren oinarritzko helburuen artean arrakala hori ixtea sartuta egotea, eta, horretarako, gazteen eskubideak eta interesak ere kontuan hartuko dituzten politikak garatzea”.



## 7. ONDORIOAK

### COVID-19aren pandemiak zeharkatutako plan bat

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren (2018-2021) denbora-esparruaren erdia pandemian garatu da, eta horrek, dudarik gabe, eragin handia izan du Planaren ardatz eta arlo guztietan.

Inpaktuaren ebaluazioan, Planak gazterian oro har izandako eraginak jasotzen dira; hau da, sailek abiatutako ekintzen eta programen zuzeneko hartzaileak izan gabe nolabait ekintza eta programa horien eragina jaso duten gazte guztiak hartu dira aintzat.

IV. Gazte Plana diseinatu zenean, 40 adierazle hautatu ziren, eta Planaren indarraldia amaitutakoan lortu beharreko jomuga bana ezarri zitzairen adierazleoi. Horrela jarduteko, beharrezkoa da lortutakoa zehatz balioesteko irizpide objektiboak ezartzea.

Hortaz, inpaktuaren ebaluazioaren testuinguruan, IV. Gazte Planean jorratutako eremuei dagokienez EAEko gazterian egoeran jazotako aldaketak islatzen dituzte adierazleek. Aldaketa horiek ezin dakizkioke Planari bakarrik egotzi, baina gazteen errealitatea norabide onean mugitzen ari ote den erakusten dute.

Eta, COVID-19aren pandemia izan dugun arren, gazteen egoerak hobera egin du inpaktu-adierazle gehienetan. Zehaztutako jomugan % 44 bete dira, eta % 25 norabide egokian ari dira aurrera egiten; alabaina, ia heren bat, joera negatiboa edukitzeaz gainera, ezarritako helburutik urruntzen ari da.

Hurrengo Gazte Planari begira, balioetsi beharrekoak izango dira denboran zenbat luzatu diren pandemiak utzitako ondorioak eta zer-nolako sakontasuna izan duten, eta lortu beharreko helburu eta jomugak birplanteatu beharko dira, haren eragina ahaztu gabe.

### Enplegu-hobekuntza agerikoa zen 2018an, baina, 2020an, eten egin zen; 2021ean, berriz, arin hasi da suspertzen

IV. Gazte Planaren lehenengo erdian, langabezia-tasak beherakada handia izan zuen, eta % 15eko jomuga lortzeko aukera egongo zela pentsarazi zigun horrek. % 23,7ko langabezia-tasa zen abiapuntua, eta, 2018an, helburua laztandu genuen: 16 eta 29 urte arteko gazteen langabezia-tasa % 15,5ekoa zen. 2019an, baina, pandemia eta itxialdia iritsi aurretik, gazteen langabeziak gora egin zuen, urteko batezbestekoa % 17,8ra igo baitzen. Ondoren, 2020an, ekonomia-jardueraren zati bat geratu zenean, goia jo zuen tasak, IV. Gazte Planaren denbora-esparruko inoizko baliorik gorenarekin: % 22ko langabezia.

2021a % 17,4ko tasarekin amaitu zen, eta, helburuarekin bat egiten ez badu ere, oso emaitza ona da; batez ere, langabezia-tasa urtebeteko epean itzuli delako pandemiaren aurreko mailetara.

Pandemian egon arren, deigarria da unibertsitatean eta Lanbide Heziketan ikasitako gazteen artean zer ehuneko altuk daukan enplegua. Lanbide Heziketak gehiago pairatu ditu pandemiaren ondorioak, laneratzeari dagokionez, baina Planean ezarritako % 80ko helburutik oso hurbil dago.

Enpleguaren kalitatearekin lotutako adierazle batzuek onera egin dute (adibidez, prestakuntzari lotutako enpleguak eta laneko ezbehar-tasak), eta finkatutako helburua bete dute.

Dena dela, beste adierazle batzuek (esate baterako, behin-behinekotasunak edo lanaldi partzialak) datu negatiboak ematen jarraitzen dute; batez ere, emakumeen artean: emakumeen

langabezia-tasa gizonena baino pixka bat txikiagoa da, baina gizonek baino behin-behinekotasun eta enplegu-partzialtasun handiagoak dauzkate.

### **Emantzipazioa, gaintitu gabeko ikasgaia oraindik ere**

Emantzipazioak bi inguruabar behar ditu gutxienez, eta aldi honetan ez dira bete: Batetik, jatorrizko familiarik kanpo bizitzeko moduko baldintza ekonomikoak dituen enplegudun gazte-kopuru nahikoa egotea, eta, bestetik, etxebizitza-merkatua irisgarria izatea.

Gazte emantzipatuen ehunekoak behera egin du 2016tik (adierazle horren oinarri-lerroa urte hartan ezarri zen, IV. Gazte Plana diseinatzeko fasean) 2020ra. 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 35,1 dago emantzipatuta, eta Plana % 38,9ko tasatik abiatu zen.

25 eta 29 urte bitartekoen % 39,5 soilik bizi da modu autonomoan, eta 30etik 34rako adin-tartean bakarrik igotzen da tasa % 72,2ra. Tasa horiekin, ez da harritzekoa 34 urte arteko gazte emantzipatuen batez besteko adina altua izatea; zehazki, 30,2 urtekoa da.

Etxebizitza garestia izateak asko zailtzen du emantzipatzea, eta alokairuen kostu altua ere nabarmentzeko moduko traba da. Alokairua, izatez, aukera egokia izan liteke enplegu egonkorrik eduki gabe emantzipatu ahal izateko. Azken urteetan, ordea, merkatu libreko alokairuaren kostuak ez dio igotzeari utzi, eta, beraz, are zailagoa da emantzipatzea.

### **Aurrerapausoak hezkuntzan: eskola-porrota txikia da eta ikasketa-maila altua**

Eskola-uzte goiztiarraren tasa (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu ondoren ikasten jarraitzen ez duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa adierazten du) Europako baxuenetako bat da, eta jaitsiera handia izan du 2018tik 2020ra bitartean.

Horrez gain, goi-mailako hezkuntza amaitu dutenen ehunekoa altua da. Unibertsitateko ikasketak eta/edo goi-mailako prestakuntza-zikloak amaitu dituzten 30 eta 34 urte arteko gazteen ehunekoa EB27ko altuenetako bat da.

Datu horri erreparatuta eta kontuan izanda hirueletasun-tasa ere gorantz egiten ari dela (ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz ondo hitz egiten dutela jotzen dutenak biltzen ditu tasa horrek), agerikoa da gure gazteek prestakuntza-maila altua dutela.

### **Datuek oraindik ez dituzte jaso pandemiak osasunean izandako ondorioak**

Euskadiko gazteen osasuna ona da, eta adierazleek bilakaera positiboa erakusten dute.

Osasun mentalak, zeina bi adierazleren bidez neurtu baita (gazteen antsietate- edo depresio-arazoaren gaineko norberaren pertzepzioaren bidez eta suizidio-tasaren bidez), datu onak eman ditu, eta IV. Gazte Planean planteatutako helburuak bete ditu. Halere, lehenengo adierazlearen datua 2018koa da, urte hartako Osasun Inkestakoa, eta 2023ko edizioaren zain egon beharko dugu, joerak okerrera egin ote duen ikusteko, halaxe uste baitute osasun mentaleko zenbait profesional-taldek.

Jarduera fisikoak igoera handia izan du, baita kirola ohikotasunez egiteko ohiturak ere, batik bat emakumeen artean.

Mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoaren inguruko jokabideek joera positiboa daukate, baina Osasun Sailaren Adikzioen Inkestako azken datuak 2017koak dira, eta datuok egonkor jarraitzen ote duten egiaztatu beharko dugu hurrengo neurketan.

## **Emakumeen eta gizonen berdintasuna, oraindik ere oztopoz josia**

Emakume gazteen heren batek uste du gizon batek lanpostu bat lortzeko aukera gehiago dituela emakume batek baino, bi-biek prestakuntza eta esperientzia berdina edukita ere. Ideia hori egonkor dago 2008tik hona, hobekuntzarik gabe.

Emakumeen kontrako indarkeria neurtzeko —desberdinkeria adierazlerik muturrekoena berau— salaketa jarri duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen kopurua hartzen da aintzat (adin bereko 1.000 emakumeko), eta oinarri-lerroaren neurrian jarraitzen du.

## **Konpromiso handiagoa ingurumenarekin, eta gai publikoetan parte hartzeko gogo handiagoa**

Parte-hartzeak eta konpromiso sozialak aurrera egin dute, gai publikoekiko interesak eta kontsumoaren inguruko jokabide arduratsuek gora egin dutelako. Datozen urteak giltzarri izango dira, hor zehaztuko baita zer-nolako jarrera hartzen duten gazteek ingurumen-erantzukizunarekin lotutako auzietan.

# 2018-2021 ALDIRAKO IV. GAZTE PLANAREN EMAITZEN EBALUAZIOA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

4. #gazteplana#  
EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	<b>7</b>
1.1. Aurrekariak eta txostenaren egitura	7
1.2. Ebaluazioaren helburuak eta aplikatutako metodologia	11
<b>2. IV. Gazte Planeko emaitzen balorazio orokorra</b>	<b>14</b>
2.1. Gauzatze-maila	14
2.2. Helburuen betetze-maila	20
2.3. Programatutako aurrekontua gauzatzea	24
<b>3. Emaitzen balorazioa arloen eta helburu estrategikoen arabera</b>	<b>33</b>
3.1. 1. Arloa. Enplegua	35
3.2. 2. Arloa. Etxebizitza	53
3.3. 3. Arloa. Hezkuntza	56
3.4. 4. Arloa. Osasuna	71
3.5. 5. Arloa. Gizarte-ekintza eta berdintasuna	85
3.6. 6. Arloa. Parte-hartzea	99
3.7. 7. Arloa. Kontsumoa	102
3.8. 8. Arloa. Kultura	106
3.9. 9. Arloa. Kirola	109
3.10. 10. Arloa. Aisialdia	111
<b>4. Ondorioak eta gomendioak</b>	<b>114</b>
4.1. Emaitzak eta ondorioak	114
4.2. Gomendioak	116

**Taulen aurkibidea**

2.1 Taula	IV. Gazte Planean (2018-2021) gauzatutako jarduketak, ardatzaren arabera .....	16
2.2 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako jarduketak arloka .....	17
2.3 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako jarduketak helburu estrategikoen arabera .....	18
2.4 Taula	Eusko Jaurlaritzako sail edo zuzendaritza bakoitzak programatutako eta gauzatutako jarduketa-kopurua, 2018-2021 .....	19
2.5 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburuen betetze-maila (%), ardatzaren arabera .....	21
2.6 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburu-balioen betetze-maila (%), ardatzaren arabera.....	21
2.7 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburu-balioen betetze-maila (%), arloka .....	22
2.8 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburu-balioen betetze-maila (%), helburu estrategikoen arabera .....	23
2.9 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, ardatzaren arabera .....	25
2.10 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, ardatzaren arabera .....	25
2.11 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako aurrekontuaren bilakaera, ardatzaren arabera .....	26
2.12 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean egindako jarduketak eta gauzatutako aurrekontua, ardatzaren arabera .....	26
2.13 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, arloka .....	28
2.14 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako aurrekontuaren bilakaera, arloka .....	29
2.15 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, helburu estrategikoen arabera.....	30
2.16 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, helburu estrategikoen arabera.....	31
2.16 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, helburu estrategikoen arabera.....	32
3.1 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren Enplegu arloan egindako jarduketaren bilakaera, helburu estrategikoen arabera .....	36
3.2 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean 1. arloan (Enplegua) gauzatutako jarduketak, helburu estrategikoen arabera.....	36
3.3 Taula	IV. Gazte Planaren (2021) Enplegu Arloaren jarduketaren estaldura-adierazle nagusiak.....	37
3.4 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko 1. arloko (Enplegua) adierazle nagusiak .....	38
3.5 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren helburu espezifikoaren adierazle nagusiak <Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza-arloaren transitan> .....	41
3.6 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren helburu espezifikoaren adierazle nagusiak <Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago> .....	44
3.7 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren berriazko helburuko adierazle nagusiak <Gazteen lan-baldintzak hobetzea> .....	47

3.8 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren helburu espezifikoaren adierazle nagusiak <Gazte ekintzaile gehiago> .....	50
3.9 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren helburu espezifikoaren adierazle nagusiak <Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzea> .....	52
3.10 Taula	IV. Gazte Planeko Etxebizitza Arloaren jarduketan estaldura-adierazle nagusiak, 2021.....	54
3.11 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko 2. arloaren adierazle nagusiak <Etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago gazteentzat> helburu espezifikoan .....	55
3.12 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren Hezkuntza arloan egindako jarduketan bilakaera, helburu estrategikoen arabera .....	56
3.13 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren Hezkuntza arloko jarduketak helburu estrategikoen arabera .....	57
3.14 Taula	IV. Gazte Planeko (2021) Hezkuntza arloko jarduketan estaldura-adierazle nagusiak.....	57
3.15 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren Hezkuntza arloko adierazle nagusiak .....	59
3.16 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko <Balioetan hezteak> helburu espezifikoko adierazle nagusiak .....	62
3.17 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko <Euskal gazte eleaniztun gehiago> helburuaren adierazle nagusiak .....	64
3.18 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko <Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman> helburuaren adierazle nagusiak .....	67
3.19 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko <Gazte ikertzaile gehiago> helburu espezifikoko adierazle nagusiak .....	69
3.20 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren osasun-arloan egindako jarduketan bilakaera, helburu estrategikoen arabera .....	71
3.21 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko 4. Osasun arloko jarduketak, helburu estrategikoen arabera .....	72
3.22 Taula	IV. Gazte Planeko Osasun arloko jarduketan estaldura-adierazle nagusiak, 2021 .....	72
3.23 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko 4. Osasun arloko adierazle nagusiak .....	74
3.24 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak.....	76
3.25 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak .....	78
3.26 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko < Sexu-bizitza osasuntsua bultzatzea gaztaroan > helburu espezifikoaren adierazle nagusiak.....	80
3.27 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Arrisku-portaerak eta/edo adikzioak prebenitzea (sustantziarekin edo gabe)> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak.....	83
3.28 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren Gizarte Ekintza eta Berdintasun arloan egindako jarduketan bilakaera, helburu estrategikoen arabera .....	85
3.29 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko Gizarte Ekintza eta Berdintasun arloko egindako jarduketak, helburu estrategikoen arabera .....	86
3.30 Taula	IV. Gazte Planaren (2021) Berdintasun eta Gizarteratze Arloaren jarduketan estaldura-adierazle nagusiak .....	86
3.31 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko Gizarte Ekintza eta Berdintasun arloaren adierazle nagusiak.....	88

3.32 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Bazterkeria-arriskuko egoerak prebenitzea> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak.....	90
3.33 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak.....	93
3.34 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak.....	95
3.35 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Tratu txarren modu berriak prebenitzea> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak.....	97
3.36 Taula	IV. Gazte Planeko Partaidetza Arloaren jarduketan estaldura-adierazle nagusiak, 2021.....	100
3.37 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 6. arloaren adierazle nagusiak eta helburu espezifikoa (komunikazioa, parte-hartzea eta elkarrekiko ezagutza bultzatzea) .....	101
3.38 Taula	IV. Gazte Planeko (2021) Kontsumo arloko jarduketan estaldura-adierazle nagusiak.....	103
3.39 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 7. arloko (kontsumoa) adierazle nagusiak eta helburu espezifikoa <Gazte arduradun gehiago kontsumoaren aurrean> .....	104
3.40 Taula	IV. Gazte Planeko Kultura Arloaren jarduketan estaldura-adierazle nagusiak, 2021 .....	107
3.41 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 8. arloaren (kultura) eta helburu espezifikoaren (komunikazioa, parte-hartzea eta elkarrekiko ezagutza bultzatzea) adierazle nagusiak .....	108
3.42 Taula	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 9. arloaren (kirola) eta helburu espezifikoaren (kirola maila guztietan sustatzea) adierazle nagusiak .....	110
3.43 Taula	IV. Gazte Planeko Aisialdi Arloko jarduketan estaldura-adierazle nagusiak, 2021 .....	111
3.44 Taula	IV. Gazte Planaren (2018-2021) Aisialdiko 10. arloaren adierazle nagusiak eta helburu espezifikoa "aisialdi-inguruneetan euskararen erabilera sustatzea" .....	112
4.1 Taula	IV. Gazte Planaren ebaluazio globalaren laburpena arloka.....	116
4.2 Taula	IV. Gazte Planaren ebaluazio globalaren laburpena helburuen arabera .....	117



**Grafikoen aurkibidea**

2.1 Grafikoa	IV. Gazte Planean (2018-2021) gauzatutako jarduketaren bolumenaren bilakaera .....	14
2.2 Grafikoa	IV. Gazte Planean (2018-2021) gauzatutako jarduketak, ardatzaren arabera .....	15
2.3 Grafikoa	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako jarduketak arloka .....	16
2.4 Grafikoa	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako jarduketa gehien egin dituzten helburu estrategikoak .....	17
2.5 Grafikoa	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburuen betetze-maila .....	20
2.6 Grafikoa	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko helburuen betetze-mailaren bilakaera .....	20
2.7 Grafikoa	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburu-balioen eraginkortasun-mailaren bilakaera .....	21
2.8 Grafikoa	Jarduketa-eremuen sailkapena, 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako Helburu-balioaren betetze-mailaren eraginkortasun-mailaren arabera .....	22
2.9 Grafikoa	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua guztira, gazteriari zuzendutako jarduketetan.....	24
2.10 Grafikoa	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontuaren bilakaera, gazteriari zuzendutako jarduketetan .....	24
2.11 Grafikoa	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, gazteriari zuzendutakoa, ardatzaren arabera.....	25
2.12 Grafikoa	IV. Gazte Planean gauzatutako batez besteko aurrekontua, ardatzaren arabera .....	27
2.13 Grafikoa	2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren aurrekontua, programatua eta gauzatua, arloka.....	28

# #01

## Sarrera



# 1. Sarrera

## 1.1. Aurrekariak eta txostenaren egitura

2018an hasi zen garatzen Eusko Jaurlaritzaren 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planak zehaztutako estrategia. IV. Gazte Plan honek Eusko Jaurlaritzak gazteriarekin duen konpromisoaren eta ekintzaren jarraipena adierazten du, eta helburu nagusia gazteen emantzipazioaren alde lan egitea da, gazteen bizi-proiektuak eraiki eta garatu ahal izateko eta, aldi berean, proiektu kolektiboetan parte hartzeko gaitasuna garatzeko oinarri gisa. Aurrekari gisa aipatzekoak dira I. Gazte Plana 1999-2001, II. Gazte Plana 2002-2005 eta III. Gazte Plana 2014-2016, bai eta Gazteriaren arloko Euskal Estrategia: 2020ko Euskadiko III. Gazte Planaren Esparru Orokorra.

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana bat dator "2020ko Euskadiko Gazte Planaren Esparru Orokorrekin: gazteen arloko euskal estrategia". Esparru horretan zehazten dira beharrak, lehentasunezko erronkak, helburu estrategikoak eta esku-hartze ildoak, bai epe ertainean, bai epe luzean. Adostutako erakunde arteko esparru horren helburu nagusia da EAEko administrazioen zeregina handitzea, benetako aukera-berdintasunerantz eta gazteek beren bizitza autonomiaz eta askatasunez garatzeko duten gaitasunerantz aurrera egiteko, etorkizuneko gizartearen oinarri gisa.

Plana 5 ardatz estrategikotan, 10 esku-hartze arlotan, 23 helburutan eta 60 ildo estrategikotan egituratzen da. Jarduketa espezifikoak inplikaturako Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzek eta erakundeek egindako urteko plan operatiboen bidez zehazten dira.

## 2018-2021 ALDIKO IV. GAZTE PLANAREN EGITURA

### 1. Ardatza: Emantzipazioa eta Autonomia

Helburuak eta ildo estrategikoak:

#### 1 Arloa: ENPLEGUA

##### 1.1. Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren transitan

- 1.1.1. Prestakuntzaren egokitzapena lan-merkatuaren eskaerari
- 1.1.2. Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala
- 1.1.3. Enplegurako prestakuntzaren berrikuntza: Enplegatzaileen sentsibilizazioa eta konpromisoa

##### 1.2. Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago

- 1.2.1. Lehen lan-esperientzia izateko bide ematea
- 1.2.2. Esperientzia duten gazteen kontratazioari bultzada
- 1.2.3. Gazteen lan-aukeren hobekuntza
- 1.2.4. Enplegarritasun-baldintzen hobekuntzara bideratutako gaikuntza
- 1.2.5. Gizarte-eta lan-arloko informazioa eta orientazioa
- 1.2.6. Pertsona gazteentzako lan-aukeren sustapena EAEko sektore estrategikoetan
- 1.2.7. Aktibaziorako prestakuntza

##### 1.3. Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza

- 1.3.1. Informazioa eta komunikazioa
- 1.3.2. Ezbeharren kopurua murriztea
- 1.3.3. Osasunaren zainketa

##### 1.4. Gazte ekintzaile gehiago

- 1.4.1. Bokazio ekintzailearen sustapena
- 1.4.2. Ekimen-ekintzaileen babesa
- 1.4.3. Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia

##### 1.5. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea

- 1.5.1. Prestakuntzaren eta kualifikazioaren hobekuntza
- 1.5.2. Orientazioa eta laguntza espezifikoa

#### 2 Arloa: ETXEBIZITZA

##### 2.1. Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat

- 2.1.1. Gazte-kolektiboetako etxebizitza babestuen lortzeko lehentasuna ematea
- 2.1.2. Gazte-alokairua hobetzeko formula eta neurri berriak garatzea

#### 3 Arloa: HEZKUNTZA

##### 3.1. Balioetan oinarritutako hezkuntza

- 3.2.1. Bakea eta bizikidetzat
- 3.2.2. Berdintasuna, errespetua eta genero-indarkeriaren prebentzioa
- 3.2.3. Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza
- 3.2.4. Ingurumen-hezkuntza eta horren erlazioa ekonomia zirkularrarekin

##### 3.2. Euskal gazte eleaniztun gehiago

- 3.2.1. Euskara sustatu eta sendotzea hezkuntza formalaren arloan
- 3.2.2. Hizkuntza-gaitasunen garapena beste hizkuntza batzuetan, mundura gehiago irekitzeko oinarri gisa

##### 3.3. Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman

- 3.3.1. Erraztasunak ematea ikasketetan sartzeko, mantentzeko eta horiek amaitzeko, batez ere, derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketetan
- 3.3.2. Eskola inklusiboa

##### 3.4. Gazte ikertzaile gehiago

- 3.4.1. Bokaziorako bultzada gaztetatik
- 3.4.2. Gazte ikertzaile eta teknologoentzako laguntza
- 3.4.3. Emakume gazteak ikerketari lotutako karreran

## 2. Ardatza: Ongizatea eta bizitza osasungarria

Helburuak eta ildo estrategikoak:

### 4 Arloa: OSASUNA

- 4.1. Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea**
  - 4.1.1. Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza
  - 4.1.2. Aisialdiko ekintza osasungarrien sustapena
  - 4.1.3. Arreta eta prebentzioa antsietate- eta depresio-egoeren aurrean
- 4.2. Haurren gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea**
  - 4.2.1. Elikadura osasungarriaren sustapena
  - 4.2.2. Jarduketa fisikoaren eta ariketaren sustapena populazio gaztearen artean
- 4.3. Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea**
  - 4.3.1. Hezkuntza afektibo-sexuala
  - 4.3.2. Sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentzioa
- 4.4. Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea**
  - 4.4.1. Tabako eta alkoholaren kontsumoa murriztea
  - 4.4.2. Jokoari eta sare sozialei lotutako arriskuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa
  - 4.4.3. Trafiko-istripuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa

## 3. Ardatza: Berdintasuna eta gizarteratzea

Helburuak eta ildo estrategikoak:

### 5 Arloa: GIZARTE-EKINTZA ETA BERDINTASUNA

- 5.1. Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea**
  - 5.1.1. Oinarrizko beharrak estaltzea
- 5.2. Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea**
  - 5.2.1. Berdintasuna etxean eta familian (Kontziliazio erantzunkidea)
  - 5.2.2. Kolektiboen arteko berdintasuna
- 5.3. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea**
  - 5.3.1. Sentsibilizazioa eta prebentzioa (Zero tolerantzia)
  - 5.3.2. Arreta integrala
- 5.4. Tratu txar modu berriak prebenitzea**
  - 5.4.1. Gurasoen aurkako indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta
  - 5.4.2. Eskolako jazarpenaren (bullying eta ziberbullying) detekzioa, prebentzioa eta arreta

## 4. Ardatza: Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa

Helburuak eta ildo estrategikoak:

### 6 Arloa: PARTAIDETZA

- 6.1. Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea**
  - 6.1.1. Gazte-elkarteen ekimenak babestea
  - 6.1.2. Gazte-boluntariotzaren bultzada
  - 6.1.3. Partaidetzaren kultura eta eztabaidarako guneak
  - 6.1.4. EGK-Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetzak

### 7 Arloa: KONTSUMOA

- 7.1. Kontsumo arduratsua egiten duen gazte gehiago**
  - 7.1.1. Baliabideen kontsumo eta erabilera jasangarria egiteko heziketa eta prestakuntza
  - 7.1.2. Komunikazio-mota berrietara egokitutako tresna teknologikoen garapena

## 5. Sozializazioa

Helburuak eta ildo estrategikoak:

### 8 Arloa: KULTURA

#### 8.1. Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduketak garatzeko interesa indartzea

- 8.1.1. Gazteentzako kultura-jarduketan sustapena
- 8.1.2. Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak
- 8.1.3. Irakurtzeko ohitura sustatzea

### 9 Arloa: KIROLA

#### 9.1. Kirola maila guztietan sustatzea

- 9.1.1. Kirola sustatzea
- 9.1.2. Kiroleko talentu gazteen aintzatespena

### 10 Arloa: AISIALDIA

#### 10.1. Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea

- 10.1.1. Euskararen erabilera aisialdirako esparruetan sustatzea

IV. Gazte Planaren azken ebaluazioaren emaitzak jasotzen ditu txosten honek. Bertan, aurreikusitako jarduketak benetan gauzatu diren, ezarritako helburuen betetze-maila eta aurrekontuaren gauzate-maila zehatz-mehatz aztertzen dira. Azkenik, V. Gazte Plana egiteko kontuan hartu beharreko gomendio batzuk planteatzen dira.

Dokumentu honetan jasotzen den ebaluazioa Gazteria Zuzendaritzak eskatuta eta IV. Gazte Planaren indarraldia amaitu ondoren egin da. Dokumentu hori "2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren eragin-ebaluazioarekin" osa daiteke, hau da, 2020ko Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren tarteko ebaluazioarekin.

Txostena Eusko Jaurlaritzaren Gazte Planaren Sailarteko Batzordeak aurkeztuko du, baliozkotu dezan, gazteria-arloko jarduketak garatzea eta eraginkortasunez aplikatzea bermatzen duen koordinazio-organo gisa, bai eta jarduketa horiek sustatzen dituen organo gisa ere.

Txosten honen edukiak lau kapitulu ditu:

- Lehenengoak planaren testuingurua eta aurrekariak hartzen ditu kontuan, eta helburuak eta aplikatutako metodologia zehazten dira.
- Bigarren kapituluan, IV. Planaren ebaluazioaren emaitza orokorrak aurkezten dira. Bertan, IV. Gazte Planeko jarduketan gauzate-maila, aurreikusitako helburu-balioen eraginkortasun- edo betetze-maila, estalitako xede-biztanleriarekiko estaldura-maila eta aurrekontuaren gauzate-maila aztertzen dira.
- Hirugarren kapituluan, azterketa zehatzago baten bidez, IV. Gazte Planaren arlokako ebaluazio-irizpideetan, helburu estrategikoetan eta esku-hartze ildoetan sakontzen da.
- Laugarrenak eta azkenak egindako analisiaren ondoriozko gomendioak jasotzen ditu.

## 1.2. Ebaluazioaren helburuak eta aplikatutako metodologia

Egindako azterketaren helburu orokorra IV. Gazte Planean jasotako urteko 200 ekimen baino gehiagoren garapenean lortutako emaitzak baloratzea da, lortu nahi diren helburuak bete diren ez ezik, horiei zenbateraino erantzun zaien ere kontuan hartuta.

Hala eta guztiz ere, zehaztu behar da, III. Gazte Planaren ebaluazioan bezala, ebaluazio honek Planaren egikaritzean inplikaturako Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzei eta organismoei dagozkien jardueretan soilik jartzen duela arreta.

Zehazki, ebaluazio horrek honako helburu hauek ditu:

- Jarduketa guztien gauzatze-maila eta planteaturako helburuen betetze-maila ezagutzea.
- IV. Gazte Planaren eraginkortasun- eta estaldura-maila ezagutzea.
- Aurrekontua zenbateraino gauzatu den jakitea, eta hasiera batean aurreikusitako aurrekontuarekiko desbideratzeak hautematea.

Azterlan hau egiteko aplikatu den metodologiak kanpo-ebaluazioa, expost, batutzailea eta emaitzen ebaluazioa izan ditu oinarri, aurreko planetan aplikaturako metodologiekin jarraitutasuna mantenduz. Metodologia horiek ezaugarri horietako bakoitza honela definitzen dute:

- Kanpo-ebaluazioa; kanpoko talde tekniko batek egiten du ebaluazioa, eta kanpoko talde horrek ez du zerikusirik hura gauzatzeko ardura duten erakunde edo eragileekin.
- Expost ebaluazioa; planaren indarraldia amaitu ondoren egiten baita, hau da, atzera begira.
- Ebaluazio batutzailea; egindako ekintzen emaitzak laburbiltzen eta finkatzen ditu, balorazio orokorra eskaintzeko.
- Emaitzen ebaluazioa; planetik eratorritako produktuak eta horien ekintzen ondorioak aztertzen baititu.

Gazteria Zuzendaritzak urtero egiten dituen jarraipen-txostenetan eta baterako datu-basearen ustiapenean oinarritzen da txosten hau. Horretarako, tresna informatiko berri bat erabili da, arduradun bakoitzak jarduketaren informazioa zuzenean erregistratzeko aukera ematen duena.

Txosten honetan egindako azterketek kontuan hartu dituzte *Gazte-planak programatzeko eta ebaluatzeko eskuliburuko* jarraibideak, dagoen informazioak horretarako aukera eman duen kasu guztietan. Horrek esan nahi du daturik ez izateak batzuetan zailtasunak eragin dituela lortu nahi ziren adierazleen lorpenean.

IV. Gazte Planaren ardatz, arlo eta helburu estrategiko bakoitzean erabilitako balorazio-irizpideak honako hauek izan dira:

- **Jarduketaren deskribapen orokorra:** Planaren jarduketaren kuantifikazio eta deskribapen zehatua egiten da, esku-hartze ildoaren arabera informazioa barne, eta programaturako jarduketaren gauzatze-maila kalkulatu da.

<b>Gauzatze-maila (egindako jarduketaren % programatutako jarduketa guztiekiko)</b>		
Handia	% 85etik gorakoa	●
Ertaina	% 70 eta % 85 artean	●
Txikia	% 70etik beherakoa	●

- **Eraginkortasunaren balorazioa:** ezarritako helburuen betetze-mailari buruzko informazioa jasotzen da, eta hasieran ezarritako helburuen edo helburu-balioen irismen-maila kalkulatu da.

<b>Eraginkortasun-maila (ezarritako helburu-balioen betetze-maila, %)</b>		
Handia	% 85etik gorakoa	●
Ertaina	% 70 eta % 85 artean	●
Txikia	% 70 etik beherakoa	●

- **Estalduraren balorazioa:** eskura dagoen informazioan oinarrituta, jarduketaren onuradun diren kolektiboak aztertzen dira.
- **Aurrekontu-gauzatzearen balorazioa:** baliabide ekonomikoen benetako gastuaren azterketa xehatua egiten da programatutakoarekin alderatuta, desbideratzeak identifikatu eta, hala badagokio, horien kausak aztertu ahal izateko.

<b>Aurrekontuaren gauzatze-maila (gauzatutako aurrekontuaren % programatutako aurrekontuaren gainean)</b>		
Handia	% 85etik gorakoa	●
Ertaina	% 70 eta % 85 artean	●
Txikia	% 70 etik beherakoa	●



#02

## IV. Gazte Planeko emaitzen balorazio orokorra




## 2. IV. Gazte Planeko emaitzen balorazio orokorra

### 2.1. Gauzatze-maila

IV. Gazte Planaren esparruan, 2018 eta 2021 artean, guztira 886 jarduketa egin dira, hau da, urtean, 222 jarduketa, batez beste. Planaren jarduketa gehienak gazteriari zuzendutako jarduketei dagozkie, 2018ko % 51 eta 2020ko % 65,5 artean. Programatutakoarekin alderatuta, ezarpen-maila oso handia lortu da. Zehazki, urteko programazioetan aurreikusitako jarduketaren % 92 egin dira.

Programatutako jarduketak egin ez izanaren arrazoi nagusiak ezarritako helburuen hausnarketa edo berrikuspena edo inplikaturako zuzendaritzek eta erakundeek planteaturako ekintzen lehentasunen aldaketa izan dira. Halaber, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak pairatu dira 2020an, eta, horren ondorioz, sarritan bertan behera utzi dira aurreikusitako jarduketa eta deialdi batzuk. Hain zuzen ere, plana indarrean egon den lau urteetan egindako jarduketek ezarritako biderei jarraiki, agerian geratzen da, alde batetik, 2020an aurreikusitako jarduketaren egikaritze-maila txikiagoa dela, eta, bestetik, 2021ean gauzaturako jarduketaren bultzada eta errefortzua berreskuratu direla, urte horretan gauzatu baitziren laurtekoaren jarduketa gehien.

2.1 Grafikoa IV. Gazte Planean (2018-2021) gauzaturako jarduketaren bolumenaren bilakaera



Ardatz estrategikoen arabera, 1. ardatzean Emantzipazioa eta Autonomiari dagokiona, 516 jarduketa egin dira, hau da, 2018 eta 2021 artean egindako jarduketa guztien % 58. Ardatz honen helburua da hezkuntza-esparrutik lan-eremura hurbiltzea eta igarotzea erraztea, lan-baldintzak hobetzea eta gazteen artean kalitatezko enplegua sustatzea. Era berean, gazteentzat etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago eskaintzea planteatzen da helburu gisa. Gainera, ardatz honen beste jarduketa-multzo bat da balioetan oinarritutako hezkuntzan eta hezkuntza-sistemako aukera-berdintasunean aurrera egitea.


Ondoren, IV. Gazte Planean garatutako ekintzen bolumenaren arabera, 5. ardatza dator, Sozializazioari dagokiona, non 110 jarduketa gauzatu baitira (guztizkoaren % 12,4). Ardatz honek barne hartzen dituen jarduketak Kultura, Kirola eta Aisialdiaren arloei dagozkie. Helburua da kultura-kontsumoa bultzatzea, kultura-jarduketak garatzeko interesa indartzea, kirol-jarduketa sustatzea eta aisialdi-inguruneetan euskararen erabilera sustatzea gazteen artean.

Ongizatea eta Bizitza Osasungarria izeneko 2. ardatzean 93 neurri bultzatu dira (guztizkoaren % 10,5), gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzeko. Gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea eta gazteen artean bizitza sexual osasuntsua bultzatzea helburu duten ekintzak ere garatu dira. Gainera, gazteen arrisku-portaerak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzeko jarduketak ere egin dira.

Rankingean azkenaurreko postuan dago Berdintasunaren eta Gizarteratzearen 3. ardatza. Bertan 85 ekintza egin dira (% 9,6), bazterkeria-arriskuko egoerak prebenitzea, nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea eta emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea edo tratatu txar modu berriak prebenitzea helburu zutenak.

Azkenik, 4. ardatzean (Partaidetza eta Konpromiso Soziala) 82 jarduketa sustatu dira (% 9,3), komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza sustatzeko. Gainera, gazteen artean kontsumo arduratsua lortzea planteatzen da helburu gisa.

2.2 Grafikoa IV. Gazte Planean (2018-2021) gauzatutako jarduketak, ardatzaren arabera



Aurreikusitako jarduketek gauzatze-maila oso altua izan da Euskadiko IV. Gazte Plana osatzen duten 5 ardatz estrategikoetan, nahiz eta batez besteko orokorra baino balio handiagoekin nabarmentzen diren Partaidetza eta Konpromiso Soziala (% 94,3) eta Sozializazioa (% 94) ardatzak.


Bilakaerari dagokionez, 2019an eta 2020an planteatutako jarduerak behera egin zuten, baina 2021ean 5 ardatz estrategikoetako jarduketek gora egin dute.

**2.1 Taula** IV. Gazte Planean (2018-2021) gauzatutako jarduketak, ardatzaren arabera

	2018	2019	2020	2021	2018-2021	
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	%	Gauzatze maila (%)
Emantzipazioa eta Autonomia	126	124	118	148	58,2	91,2 ●
Ongizatea eta bizitza osasungarria	26	21	19	27	10,5	92,1 ●
Berdintasuna eta Gizarteratzea	20	14	22	29	9,6	88,5 ●
Partaidetza eta konpromiso soziala	28	17	14	23	9,3	94,3 ●
Sozializazioa	32	25	22	31	12,4	94,0 ●
<b>Guztira</b>	<b>232</b>	<b>201</b>	<b>195</b>	<b>258</b>	<b>100,0</b>	<b>91,6 ●</b>

IV. Gazte Planaren esku-hartze arloei erreparatuz, 2018 eta 2021 artean Enpleguaren (276 jarduketa) eta Hezkuntzaren (221 jarduketa) arloetan egindako jarduketek kopuru handia nabarmentzen da. Ondoren, egindako jarduketek bolumenaren arabera, Osasun arloa (93 jarduketa) eta Gizarte Ekintza eta Berdintasuna (85 jarduketa) datoz. Gauzatze-maila ere oso altua izan da esku-hartze arlo guztietan, gutxieneko % 91 (Enplegua) eta gehieneko % 100 (Kontsumoa) arteko indizeekin.

**2.3 Grafikoa** 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako jarduketak arloka




**2.2 Taula** 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako jarduketak arloka

Ardatza	2018	2019	2020	2021	2018-2021		
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	%	Gauzatze-maila (%)	
Enplegua	65	66	67	78	31,2	91,1	●
Etxebizitza	4	4	5	6	2,1	95,0	●
Hezkuntza	57	54	46	64	24,9	90,9	●
Osasuna	26	21	19	27	10,5	92,1	●
Gizarte Ekintza eta Berdintasuna	20	14	22	29	9,6	88,5	●
Partaidetza	21	13	10	17	6,9	92,4	●
Kontsumoa	7	4	4	6	2,4	100,0	●
Kultura	13	8	6	11	4,3	95,0	●
Kirola	7	7	5	4	2,6	92,0	●
Aisialdia	12	10	11	16	5,5	94,2	●
<b>Guztira</b>	<b>232</b>	<b>201</b>	<b>195</b>	<b>258</b>	<b>100,0</b>	<b>91,6</b>	<b>●</b>

Helburuen xehetasunera jaitsita, 2.3 taulan IV. Gazte Planaren aldiran egindako jarduketaren bolumena zehazten da. Nabarmendu behar da 2018 eta 2021 artean jarduketa gehien egin dituzten helburuak honako hauek direla: kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago, balioetan oinarritutako hezkuntza, gazte ekintzaile gehiago eta komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea.

Gauzatze-mailari dagokionez, helburu estrategikoetan planteatutako jarduketa gehienak modu egokian gauzatzea lortu da. Bestalde, gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza, baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea eta nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea bilatzen zuten helburuetan gauzatze-maila txikiagoa izan dela adierazi behar da.

**2.4 Grafikoa** 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako jarduketa gehien egin dituzten helburu estrategikoak

## 2.3 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako jarduketak helburu estrategikoen arabera

Arloa	Helburua	2018	2019	2020	2021	Gauzatze-maila (%)	
<b>Enplegua</b>	Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren transituan	6	5	8	13	94,1	●
	Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago	34	44	33	36	91,3	●
	Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza	3	2	3	2	83,3	●
	Gazte ekintzaile gehiago	17	12	19	23	94,7	●
	Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea	5	3	4	4	76,2	●
<b>Etxebizitza</b>	Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat	4	4	5	6	95,0	●
<b>Hezkuntza</b>	Balioetan oinarritutako hezkuntza	30	26	26	33	89,1	●
	Euskal gazte eleaniztun gehiago	11	12	8	10	93,2	●
	Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman	7	8	7	16	92,7	●
	Gazte ikertzaile gehiago	9	8	5	5	96,4	●
<b>Osasuna</b>	Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea	3	1	3	3	90,9	●
	Gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea	3	2	3	3	100,0	●
	Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea	6	6	5	6	100,0	●
	Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea	14	12	8	15	87,5	●
<b>Gizarte-ekintza eta Berdintasuna</b>	Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	2	1	5	6	93,3	●
	Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea	7	6	6	11	76,9	●
	Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	7	4	7	8	100,0	●
	Tratu txar modu berriak prebenitzea	4	3	4	4	93,8	●
<b>Partaidetza</b>	Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea	21	13	10	17	92,4	●
<b>Kontsumoa</b>	Kontsumoaren ardura duen gazte gehiago	7	4	4	6	100,0	●
<b>Kultura</b>	Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduketak garatzeko interesa indartzea	13	8	6	11	95,0	●
<b>Kirola</b>	Kirola maila guztietan sustatzea	7	7	5	4	92,0	●
<b>Aisialdia</b>	Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea	12	10	11	16	94,2	●
<b>Guztira</b>		<b>232</b>	<b>201</b>	<b>195</b>	<b>258</b>	<b>91,6</b>	●

2.4 taulan zehazten da Eusko Jaurlaritzako sail eta zuzendaritza/erakunde bakoitzak 2018 eta 2021 artean IV. Gazte Planaren esparruan egindako jarduketaren kopurua. Azpimarratzekoa da Gazteria Zuzendaritzak, Lanbideak, Hezkuntza Ikaskuntza eta Berrikuntzako Zuzendaritzak eta Familia eta Haurtzaro Zuzendaritzak gauzatutako jarduketak-kopuru handia.


## 2.4 Taula Eusko Jaurlaritzako sail edo zuzendaritza bakoitzak programatutako eta gauzatutako jarduketa-kopurua, 2018-2021

Saila eta Zuzendaritza	Programatutako jarduketa kopurua	Gauzatutako jarduketaren kopurua
<b>Lehendakaritza</b>	<b>12</b>	<b>9</b>
Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza	4	4
Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendaritza	4	3
Gobernu Irekiaren Zuzendaritza	4	2
<b>Hezkuntza</b>	<b>120</b>	<b>115</b>
Hezkuntza Ikaskuntza eta Berrikuntzako Zuzendaritza	74	71
Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza	3	3
Unibertsitate Politika eta Koordinaziorako Zuzendaritza	23	23
Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza	8	6
Ikerketa zuzendaritza	12	12
<b>Osasuna</b>	<b>48</b>	<b>45</b>
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza	26	23
Osakidetza	22	22
<b>Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa</b>	<b>16</b>	<b>16</b>
Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	4	4
Kontsumobide	7	7
Merkataritza Zuzendaritza	5	5
<b>Kultura eta Hizkuntza Politika</b>	<b>137</b>	<b>131</b>
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza	45	45
Jarduketa Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza	29	28
Kultura Ondarearen Zuzendaritza	14	12
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza	24	23
Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza	25	23
<b>Segurtasuna</b>	<b>37</b>	<b>35</b>
Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza	18	16
Trafiko Zuzendaritza	6	6
Ertzaintzaren Zuzendaritza	6	6
Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza	7	7
<b>Ekonomiaren Garapena, Iraunkortasuna eta Ingurumena</b>	<b>115</b>	<b>105</b>
Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako	20	20
HAZI	26	23
BASQUETRADE	6	4
Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	29	27
Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza	3	3
Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza	10	8
Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza	9	9
Ekintzaitza, Berrikuntza eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza	4	4
Nazioartekotze Zuzendaritza	2	2
Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza	6	5
<b>Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak</b>	<b>169</b>	<b>157</b>
Gazteria Zuzendaritza	141	135
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea	45	43
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	5	2
Justizia Zuzendaritza	6	4
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	12	12
Familia eta Haurren Zuzendaritza	90	68
Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritza	8	8
Gogora	3	2
<b>Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa</b>	<b>20</b>	<b>20</b>
Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	12	12
Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza	8	8
<b>Lana eta Enplegua</b>	<b>142</b>	<b>136</b>
Lanbide	105	101
Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	18	16
Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza	16	16
Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza	3	3
<b>Guztira</b>	<b>957</b>	<b>886</b>

## 2.2. Helburuen betetze-maila


Eraginkortasunaren ikuspegitik, IV. Gazte Planean garatutako jarduerak aurreikusitako helburuen betetze-maila handia egiaztatu da. Izan ere, parte hartu duten zuzendaritza, erakunde eta organismoen % 77k adierazi du ezarritako helburuak bete dituela, eta % 7,5ek adierazi du neurri batean bete dituela; kasuen % 11tan, arduradunek adierazi dute ezin izan direla ezarritako helburuak bete, eta jarduketan % 4tan ezin izan da aurreikusitako helburuaren betetze-maila ezarri, ebaluazioa egiteko unean informaziorik ez zegoelako.

2.5 Grafikoa 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburuen betetze-maila



Ezarritako helburuak erabat edo partzialki betetzeari emandako erantzun positiboaren indizeak kontuan hartuta, Covid-19aren osasun-krisiaren ondorioak ikusten dira berriz ere, 2020an betetze-maila jaitsi egin baitzen, eta 2021ean erreperatu.

2.6 Grafikoa 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko helburuen betetze-mailaren bilakaera



Ardatz estrategikoen arabera, helburuen betetze-maila oso altua izan da bost ardatzetan, eta bereziki Partaidetza eta Konpromiso Sozialaren Ardatza nabarmendu da, nahiz eta programatutako jarduketa gutxien izan.




2.5 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburuen betetze-maila (%), ardatzaren arabera

% horizontala	Lortutako helburuak	Lortutako helburuak, hein batean	Bete gabeko helburuak	Daturik gabe	Guztira
Emantzipazioa eta Autonomia	76,5	7,8	12,9	2,8	100,0
Ongizatea eta bizitza osasungarria	67,3	7,9	8,9	15,8	100,0
Berdintasuna eta Gizarteratzea	78,1	9,4	9,4	3,1	100,0
Partaidetza eta konpromiso soziala	86,2	6,9	5,7	1,1	100,0
Sozializazioa	82,1	5,1	12,0	0,9	100,0
<b>Guztira</b>	<b>77,2</b>	<b>7,5</b>	<b>11,4</b>	<b>3,8</b>	<b>100,0</b>

Ezarritako helburu-balioen betetze-mailari erreparatuz, gauzatutako jarduketan batez besteko eraginkortasun-maila kalkulatu da, ezarritako balio objektiboa eta azkenean lortutako balioa kontuan hartuta. Ildo horretan, esan behar da jarduketan zati batean ez zegoela lortutako azken balioari buruzko informaziorik; beraz, kalkulatuak informazioa erregistratuak datuekin bakarrik egin da, eta tentuz hartu behar da.

Esan behararra dago IV. Gazte Planean gauzatutako jarduketan eraginkortasun-maila oso handia izan dela; izan ere, gauzatutako jarduketetan ezarritako helburu-balioen % 90 betetzea lortu da. Denboran zeharreko bilakaera aztertuta, 2018 eta 2021 artean ezarritako helburu-balioaren eraginkortasun-maila pixka bat handitu dela ikus daiteke.

2.7 Grafikoa 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburu-balioen eraginkortasun-mailaren bilakaera




Gazte Planaren ardatzen arabera, egiaztatu da helburuen betetze-mailak aurreikusitako balioa gainditu duela Sozializazioa ardatzean, aldiz, kontrako muturrean, Ongizate eta Bizitza Osasungarriaren ardatza dago.

2.6 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburu-balioen betetze-maila (%), ardatzaren arabera

	Helburu-balioa bete da		Batez besteko eraginkortasun-maila (Lortutako balioaren % -a helburu-balioaren gainean)	
	Bai	Ez		
Emantzipazioa eta Autonomia	57,1	42,9	89,0	●
Ongizatea eta bizitza osasungarria	49,4	50,6	81,5	●
Berdintasuna eta Gizarteratzea	52,5	47,5	93,3	●
Partaidetza eta konpromiso soziala	61,3	38,7	87,4	●
Sozializazioa	63,4	36,6	101,2	●
<b>Guztira</b>	<b>57,0</b>	<b>43,0</b>	<b>89,8</b>	●

IV. Gazte Planaren 10 jarduketa-eremuetatik 7k ezarritako helburu-balioen betetze-maila handia izan dute. 3 arlotan (Enplegua, Osasuna eta Kontsumoa), zenbatetsitako eraginkortasun-maila ertaina dela esan daiteke. Covid-19 dela eta programaturako jarduketak egiteko zailtasunek azal dezakete, neurri batean behintzat, helburu horien betetze-maila txikiagoa izatea.

**2.8 Grafikoa** Jarduketa-eremuen sailkapena, 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako Helburu-balioaren betetze-mailaren eraginkortasun-mailaren arabera



**2.7 Taula** 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburu-balioen betetze-maila (%), arloka

	Batez besteko eraginkortasun-maila (Lortutako balioaren % -a helburu-balioaren gainean)	
Enplegua	81,9	●
Etxebizitza	91,5	●
Hezkuntza	97,1	●
Osasuna	81,5	●
Gizarte Ekintza eta Berdintasuna	93,3	●
Partaidetza	88,0	●
Kontsumoa	83,8	●
Kultura	127,3	●
Kirola	85,6	●
Aisialdia	96,9	●
<b>Guztira</b>	<b>89,8</b>	●

Erantsitako taulan zehazten da, halaber, IV. Gazte Plana osatzen duten 23 helburu estrategikoen helburu-balioen betetze-maila. Datuetatik, azpimarratu behar da 13 helburuk eraginkortasun-maila altua lortzen dutela eta 8 helburutan maila ertaina lortzen dela. Ez dira lortu gazteen lan-baldintzak hobetzeko helburuetan eta gazteen bizitza sexual osasuntsua bultzatzeko helburuetan ezarritako helburu-balioak.

2.8 Taula      2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean ezarritako helburu-balioen betetze-maila (%), helburu estrategikoen arabera

<b>Batez besteko eraginkortasun-maila (Lortutako balioaren % -a helburu-balioaren gainean)</b>		
Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren transituan	97,1	●
Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago	79,5	●
Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza	61,8	●
Gazte ekintzaile gehiago	79,6	●
Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea	70,9	●
Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat	91,5	●
Balioetan oinarritutako hezkuntza	102,0	●
Euskal gazte eleaniztun gehiago	77,1	●
Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman	107,5	●
Gazte ikertzaile gehiago	99,0	●
Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea	91,8	●
Gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea	147,1	●
Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea	64,6	●
Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea	70,1	●
Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	153,0	●
Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea	70,0	●
Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	79,3	●
Tratu txar modu berriak prebenitzea	121,3	●
Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea	88,0	●
Kontsumoaren ardura duen gazte gehiago	83,8	●
Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduketak garatzeko interesa indartzea	127,3	●
Kirola maila guztietan sustatzea	85,6	●
Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea	96,9	●
<b>Guztira</b>	<b>89,8</b>	●

### 2.3. Programatutako aurrekontua gauzatzea

Ikuspegi kuantitatibo batetik, IV. Gazte Planak 875 milioi euroko gastua gauzatu du guztira, indarrean egon den lau urteetan eta gazteei zuzendutako jarduketak kontuan hartuta. Gazteria Zuzendaritzaren beraren eta Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza batzuen eta planean parte hartu duten entitate eta erakundeen baliabideak izan ditu. 2018tik 2021era bitartean, aurreikusitako aurrekontuaren % 94,3 gauzatzea lortu da (927 milioi euro).


Era berean, garrantzitsua da azpimarratzea IV. Gazte Planaren benetako aurrekontua nabarmen handiagoa dela, ekintza askok ez baitakarte aurrekonturik zehaztuta, baliabide propioekin edo gastu orokorren bidez egiten baitira, eta horietan ez baitira bereizten Gazte Planari dagozkion partidak.

#### 2.9 Grafikoa 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua guztira, gazteriar zuzendutako jarduketetan



Bilakaeraren ikuspegitik, 2019an aurrekontuaren gauzatze-maila oso altua egiaztatu da, ekitaldi horretarako programatutako aurrekontua baino askoz gehiago. Era berean, 2021. urtea nabarmentzen da, Planaren indarraldiko lau urteetan gauzatutako gasturik handienarekin, eta koherentzia argiarekin, ekitaldi horretan gauzatutako jarduketaren bolumen handiagogatik.

#### 2.10 Grafikoa 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontuaren bilakaera, gazteriar zuzendutako jarduketetan




### 2.9 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, ardatzaren arabera

	Programatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontuaren %	
2018	221.794.906,38	181.081.441,75	81,6	●
2019	197.928.978,05	246.927.150,24	124,8	●
2020	243.413.909,77	185.710.146,52	76,3	●
2021	263.911.265,91	260.805.950,23	98,8	●
<b>Guztira</b>	<b>927.049.060,11</b>	<b>874.524.688,74</b>	<b>94,3</b>	●

Plana osatzen duten ardatz estrategikoei dagokienez, Enplegua, Etxebizitza eta Hezkuntza arloan esku hartzen duen Emantzipazioaren eta Autonomiaren 1. ardatzak 2018 eta 2021 artean gauzatutako aurrekontuaren % 78 biltzen du, 685 milioi euroko gastuarekin. Ondoren, inbertitutako aurrekontuaren bolumenaren arabera, Berdintasunaren eta Gizarteratzearen 3. Ardatza dator, 162 milioi euroko inbertsioarekin, IV. Gazte Planean Planean inbertitutako aurrekontu osoaren % 18,5. Aurrekontua txikiagoa izan da gainerako ardatz estrategikoetan.

Programatutako aurrekontuaren eta gauzatutako aurrekontuaren arteko alderaketatik ondorioztatzen da Emantzipazioa eta Autonomia, Berdintasuna eta Gizarteratzea ardatzak direla programatutakoaren eta gauzatutakoaren arteko desbideratzerik txikienak erakusten dituztenak.

### 2.11 Grafikoa 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, gazteriarri zuzendutakoa, ardatzaren arabera



### 2.10 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, ardatzaren arabera

	Programatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontuaren %	
Emantzipazioa eta Autonomia	723.392.594,3	685.141.417,7	94,7	●
Ongizatea eta bizitza osasungarria	11.133.444,7	9.003.423,0	80,9	●
Berdintasuna eta Gizarteratzea	168.971.185,8	161.588.604,9	95,6	●
Partaidetza eta konpromiso soziala	8.399.700,8	7.062.752,9	84,1	●
Sozializazioa	15.152.134,5	11.728.490,3	77,4	●
<b>Guztira</b>	<b>927.049.060,1</b>	<b>874.524.688,74</b>	<b>94,3</b>	●

Datuek denboran zehar izan duten bilakaerari dagokionez, egiaztatu da COVID-19ak eragina izan duela 2020ko aurrekontu-betearazpenean, Planaren 4 ardatzetan. Hala ere, 2018ko eta 2021eko balioak erreferentziatzat hartuta, gastua zertxobait jaitsi da Ongizate eta Bizitza Osasungarriaren ardatzean, Partaidetza eta Konpromiso Sozialean eta Sozializazioa ardatzean.

**2.11 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako aurrekontuaren bilakaera, ardatzaren arabera**


	2018	2019	2020	2021	2018-2021		Aldak. 2018 2021
	Mila €	Mila €	Mila €	Mila €	Mila €	%	
Emantzipazioa eta Autonomia	115.447,4	234.827,7	158.674,1	176.192,3	685.141,4	78,3	▲
Ongizatea eta bizitza osasungarria	2.331,8	2.403,5	2.446,7	1.821,5	9.003,4	1,0	▼
Berdintasuna eta Gizarteratzea	57.338,6	5.777,6	20.665,4	77.807,1	161.588,6	18,5	▲
Partaidetza eta konpromiso soziala	2.192,8	2.160,2	1.203,2	1.506,6	7.062,8	0,8	▼
Sozializazioa	3.770,9	1.758,3	2.720,8	3.478,5	11.728,5	1,3	▼
<b>Guztira</b>	<b>181.081,4</b>	<b>246.927,2</b>	<b>185.710,1</b>	<b>260.805,9</b>	<b>874.524,7</b>	<b>100,0</b>	<b>▲</b>

Egindako ekintza kopuruaren ardatz estrategikoen arabeko banaketak eta gauzatutako aurrekontuaren arteko konparazioak alde handiak erakusten ditu. Emantzipazioa eta Autonomia ardatzak egindako jarduketaren % 58 bildu du, eta gauzatutako aurrekontuaren % 78 da. Bestalde, Berdintasunaren eta Gizarteratzearen 3. ardatzak gauzatutako jarduketaren % 10 eta gauzatutako aurrekontuaren % 18,5 bildu ditu.

Gainerako ardatzetan, abian jartzea lortu duten jarduketaren bolumenak gauzatutako aurrekontuarenak baino pisu handiagoa zuen, erantsitako taulan ikus daitekeen bezala, eta, ondorioz, egindako jarduketako gastu-maila ere txikiagoa zen. Hala ere, jasota utzi behar da planteatutako ekintza asko zuzendaritzen edo erakunde eta organismo parte-hartzaileen baliabide propioekin egiten zirela.

**2.12 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean egindako jarduketak eta gauzatutako aurrekontua, ardatzaren arabera**


	Gauzatutako jarduketak 2018-2021		Gauzatutako aurrekontua 2018-2021	
	Kop.	%	Mila €	%
Emantzipazioa eta Autonomia	516	58,2	685.141,4	78,3
Ongizatea eta bizitza osasungarria	93	10,5	9.003,4	1,0
Berdintasuna eta Gizarteratzea	85	9,6	161.588,6	18,5
Partaidetza eta konpromiso soziala	82	9,3	7.062,8	0,8
Sozializazioa	110	12,4	11.728,5	1,3
<b>Guztira</b>	<b>886</b>	<b>100,0</b>	<b>874.524,7</b>	<b>100,0</b>

**2.12 Grafikoa IV. Gazte Planean gauzatutako batez besteko aurrekontua, ardatzaren arabera**

IV. Gazte Plana osatzen duten arloei dagokienez, gauzatutako aurrekontuaren bolumenagatik Enpleguko 1. arloa nabarmentzen da, aurrekontu osoaren % 33 biltzen baitu. Zehazki, arlo horrek 288 milioi euroko aurrekontua du 2018-2021 aldian. Hezkuntza Arloak 264 milioi euroko gastua gauzatzea lortu du Plana indarrean dagoen urteetan, aurrekontu osoaren % 30. Gizarte Ekintza eta Berdintasunaren arloan 162 milioi euro bideratu dira guztira, hau da, aurrekontu osoaren % 18,5. Etxebizitzaren arloa ere aipatu behar da, 134 milioi euroko gastua gauzatu baitu (guztizkoaren % 15,3).

Programatutako eta gauzatutako aurrekontuaren arteko alderaketa eginda, egiaztatzen da Enplegu, Etxebizitza, Hezkuntza, Gizarte Ekintza eta Berdintasun, Partaidetza eta Kultura arloak behar bezala gauzatu direla, % 85etik gorako aurrekontu-egikaritze mailarekin. Tarteko mailan daude Osasuna, Kontsumoa eta Aisialdia arloak. Aitzitik, Kirolaren arloa izan da aurrekontuaren gauzatze-maila baxua izan duena.

2.13 Grafikoa 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren aurrekontua, programatua eta gauzatua, arloka



2.13 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, arloka

	Programatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontuaren %	
Enplegua	328.087.538,5	287.593.564,6	87,7	●
Etxebizitza	138.857.549,6	133.671.506,3	96,3	●
Hezkuntza	256.447.506,2	263.876.346,8	102,9	●
Osasuna	11.133.444,7	9.003.423,0	80,9	●
Gizarte Ekintza eta Berdintasuna	168.971.185,8	161.588.604,9	95,6	●
Partaidetza	7.181.877,0	6.176.375,9	86,0	●
Kontsumoa	1.217.823,8	886.377,1	72,8	●
Kultura	3.863.771,8	3.683.667,9	95,3	●
Kirola	3.634.610,0	2.329.270,9	64,1	●
Aisialdia	7.653.752,8	5.715.551,4	74,7	●
<b>Guztira</b>	<b>927.049.060,1</b>	<b>874.524.688,7</b>	<b>94,3</b>	●



Bilakaeraren ikuspegitik, urteko aurrekontuek goranzko joera orokorra dute, 2020koa izan ezik. 2018an gauzatutako aurrekontuaren eta 2021ekoaren arteko alderaketak erakusten duenez, gauzatutako aurrekontuak gora egin du, eta Etxebizitza, Hezkuntza, Gizarte-ekintza eta Berdintasuna eta Kirola arloak izan ditu ardatz. Aitzitik, behera egin du Enpleguan, Osasunean, Partaidetzan, Kontsumoan, Kulturen eta Aisialdian egindako gastuak.

#### 2.14 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean gauzatutako aurrekontuaren bilakaera, arloka

	2018	2019	2020	2021	2018-2021		Aldak. 2018 2021
	Mila €	Mila €	Mila €	Mila €	Mila €	%	
Enplegua	31.708,0	151.168,3	71.357,1	33.360,2	287.593,6	32,9	▼
Etxebizitza	24.363,9	22.456,5	26.280,5	60.570,6	133.671,5	15,3	▲
Hezkuntza	59.375,5	61.202,8	61.036,5	82.261,5	263.876,3	30,2	▲
Osasuna	2.331,8	2.403,5	2.446,7	1.821,5	9.003,4	1,0	▼
Gizarte Ekintza eta Berdintasuna	57.338,6	5.777,6	20.665,4	77.807,1	161.588,6	18,5	▲
Partaidetza	1.969,8	1.656,2	1.118,4	1.432,0	6.176,4	0,7	▼
Kontsumoa	223,0	503,9	84,8	74,6	886,4	0,1	▼
Kultura	1.040,4	1.351,4	502,9	789,0	3.683,7	0,4	▼
Kirola	452,7	191,9	749,1	935,6	2.329,3	0,3	▲
Aisialdia	2.277,9	215,0	1.468,8	1.753,8	5.715,6	0,7	▼
<b>Guztira</b>	<b>181.081,4</b>	<b>246.927,2</b>	<b>185.710,1</b>	<b>260.806,0</b>	<b>874.524,7</b>	<b>100,0</b>	<b>▲</b>

IV. Gazte Plana osatzen duten helburu estrategikoei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira: 4 helburu estrategiko, batez ere, Planaren indarraldian (2018-2021) gauzatutako aurrekontuaren bolumenagatik: "Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago"-ren 2. helburua, 261 milioi euro bildu dituen Planaren aldira; 9. helburua, "Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman" (164 milioi euro); 6. helburua, "Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat" (134 milioi euro); eta, azkenik, "Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea" (131 milioi euro).

23 helburuetatik 13k aurreikusitako aurrekontua behar bezala gauzatzea lortu dute, % 85etik gorako gauzatze-mailarekin. 4 helburu estrategikotan, aurrekontuaren gauzatze-maila ertaina izan da, % 70 eta % 85 artean kokatuz. Azkenik, gainerako 6 helburuetan aurrekontuaren gauzatze-maila baxutzat jo da, % 70etik beherakoa baita.

**2.15 Taula** 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, helburu estrategikoen arabera

Arlo	Helburu estrategikoak	Programatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontuaren %	
<b>Enplegua</b>	Gerturatzeko eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren transituan	7.884.204,0	10.521.905,2	133,5	●
	Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago	279.127.972,5	261.082.355,9	93,5	●
	Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza	32.000,0	32.000,0	100,0	●
	Gazte ekintzaile gehiago	20.799.038,0	12.038.012,1	57,9	●
	Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzeko	20.244.324,0	3.919.291,4	19,4	●
<b>Etxebizitza</b>	Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat	138.857.549,6	133.671.506,3	96,3	●
<b>Hezkuntza</b>	Balioetan oinarritutako hezkuntza	12.958.143,8	14.387.501,8	111,0	●
	Euskal gazte eleaniztun gehiago	22.696.834,0	23.907.794,4	105,3	●
	Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman	156.160.770,6	163.699.932,2	104,8	●
	Gazte ikertzaile gehiago	64.631.757,9	61.881.118,4	95,7	●
<b>Osasuna</b>	Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea	465.282,0	954.527,3	205,2	●
	Gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea	618.080,0	434.069,8	70,2	●
	Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea	6.407.410,0	4.341.993,9	67,8	●
	Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea	3.642.672,7	3.272.832,0	89,8	●
<b>Gizarte Ekintza eta Berdintasuna</b>	Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	121.583.064,0	130.825.888,1	107,6	●
	Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea	43.374.842,2	28.136.645,7	64,9	●
	Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	2.474.555,6	2.025.710,1	81,9	●
	Tratu txar modu berriak prebenitzea	1.538.724,0	600.360,9	39,0	●
<b>Partaidetza</b>	Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezaqutza bultzatzea	7.181.877,0	6.176.375,9	86,0	●
<b>Kontsumoa</b>	Kontsumoaren ardura duen gazte gehiago	1.217.823,8	886.377,1	72,8	●
<b>Kultura</b>	Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduketak garatzeko interesa indartzea	3.863.771,8	3.683.667,9	95,3	●
<b>Kirola</b>	Kirola maila guztietan sustatzea	3.634.610,0	2.329.270,9	64,1	●
<b>Aisialdia</b>	Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea	7.653.752,8	5.715.551,4	74,7	●
<b>Guztira orokorra</b>		<b>927.049.060,1</b>	<b>874.524.688,7</b>	<b>94,3</b>	●

Bilakaerari dagokionez, gauzatutako aurrekontuak joera desberdina izan du helburu estrategikoen artean, erantsitako taulan zehazten den bezala.

## 2.16 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean programatutako eta gauzatutako aurrekontua, helburu estrategikoen arabera

Arlo	Helburu estrategikoak	2018	2019	2020	2021	2018-2021		Aldak. 2018-2021
		Mila €	Mila €	Mila €	Mila €	Mila €	%	
Enplegua	Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren transituan	4.977,0	279,5	4.010,5	1.254,8	10.521,9	1,2	▼
	Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago	22.202,7	147.749,8	63.705,7	27.424,2	261.082,4	29,9	▲
	Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza	6,0	6,0	10,0	10,0	32,0	0,0	▼
	Gazte ekintzaile gehiago	2.020,5	2.571,4	3.212,8	4.233,3	12.038,0	1,4	▲
	Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea	2.501,7	561,5	418,1	437,9	3.919,3	0,4	▼
Etxebizitza	Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat	24.363,9	22.456,5	26.280,5	60.570,6	133.671,5	15,3	▲
Hezkuntza	Balioetan oinarritutako hezkuntza	3.269,4	2.685,0	3.078,5	5.354,6	14.387,5	1,6	▲
	Euskal gazte eleaniztun gehiago	4.294,0	7.565,7	5.612,9	6.435,2	23.907,8	2,7	▲
	Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman	35.537,2	36.928,0	37.740,5	53.494,2	163.699,9	18,7	▲
	Gazte ikertzaile gehiago	16.275,0	14.024,2	14.604,5	16.977,5	61.881,1	7,1	►
Osasuna	Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea	12,1	0,0	710,7	231,7	954,5	0,1	▲
	Gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea	94,0	142,8	144,4	52,8	434,1	0,0	▼
	Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea	1.355,0	870,6	1.024,6	1.091,9	4.342,0	0,5	▼
	Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea	870,7	1.390,1	566,9	445,1	3.272,8	0,4	▼
Gizarte Ekintza eta Berdintasuna	Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	45.118,2	430,0	12.476,0	72.801,6	130.825,9	15,0	▲
	Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea	11.464,9	4.649,5	7.887,5	4.134,7	28.136,6	3,2	▼
	Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	498,5	590,7	186,8	749,6	2.025,7	0,2	▲
	Tratu txar modu berriak prebenitzea	256,9	107,3	115,1	121,1	600,4	0,1	▼
Partaidetza	Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea	1.969,8	1.656,2	1.118,4	1.432,0	6.176,4	0,7	▼
Kontsumoa	Kontsumoaren ardura duen gazte gehiago	223,0	503,9	84,8	74,6	886,4	0,1	▼
Kultura	Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduketak garatzeko interesa indartzea	1.040,4	1.351,4	502,9	789,0	3.683,7	0,4	▼
Kirola	Kirola maila guztietan sustatzea	452,7	191,9	749,1	935,6	2.329,3	0,3	▲
Aisialdia	Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea	2.277,9	215,0	1.468,8	1.753,8	5.715,6	0,7	▼
<b>Guztira</b>		<b>181.081,4</b>	<b>246.927,2</b>	<b>185.710,1</b>	<b>260.806,0</b>	<b>874.524,7</b>	<b>100,0</b>	<b>▲</b>

# #03

## Emaitzen balorazioa arloen eta helburu estrategikoen arabera



### 3. Emaitzen balorazioa arloen eta helburu estrategikoen arabera

Kapitulu honetan egindako azterketaren helburu orokorra IV. Gazte Planean jasotako urteko 220 jarduketa baino gehiago garatzen lortutako emaitzak balioestea da, arloen eta helburu estrategikoen arabera.

Azterketa homogeen bat egiten da plan hau egituratu den **9 arlo** eta **23 helburu estrategikoetarako**, eta egitura honi erantzuten dio:

IV. Gazte Planaren ardatz, arlo eta helburu estrategiko bakoitzean erabilitako balorazio-irizpideak honako hauek izan dira:

- **Jarduketaren deskribapen orokorra:** Planaren jarduketaren kuantifikazio eta deskribapen xehatua egiten da, esku-hartze ildoaren arabera informazioa barne, eta programatutako jarduketaren gauzatze-maila kalkulatu da.

<b>Gauzatze-maila (Egindako jarduketaren % programatutako jarduketa guztiekiko)</b>		
Handia	% 85etik gorakoa	●
Ertaina	% 70 eta % 85 artean	●
Txikia	% 70etik beherakoa	●

- **Eraginkortasunaren balorazioa:** ezarritako helburuen betetze-mailari buruzko informazioa jasotzen da, eta hasieran ezarritako helburuen edo helburu-balioen irismen-maila kalkulatu da.

<b>Eraginkortasun-maila (Ezarritako helburu-balorearen betetze-mailaren %)</b>		
Handia	% 85 etik gorakoa	●
Ertaina	% 70 eta % 85 artean	●
Txikia	% 70etik beherakoa	●

- **Estalduraren balorazioa:** eskura dagoen informazioan oinarrituta, jarduketaren onuradun diren kolektiboak aztertzen dira.
- **Aurrekontu-gauzatzearen balorazioa:** baliabide ekonomikoen benetako gastuaren azterketa xehatua egiten da programatutakoarekin alderatuta, desbideratzeak identifikatu eta, hala badagokio, horien kausak aztertu ahal izateko.

<b>Aurrekontuaren gauzatze-maila (Gauzatutako aurrekontuaren % programatutako aurrekontuaren gainean)</b>		
Handia	% 85 etik gorakoa	●
Ertaina	% 70 eta % 85 artean	●
Txikia	% 70etik beherakoa	●

# 1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

- 1.Arloa.Enplegua**
- 2.Arloa.Etxebizitza**
- 3.Arloa.Hezkuntza**

### 3.1. 1. Arloa. Enplegua

#### 3.1.1. Jarduketan deskribapen orokorra

1. ardatzaren barruan –Emantzipazioa eta autonomia–, IV. Gazte Planaren (2018-2021) 1. arloa Enpleguari dagokio, eta “*gazteen lan-aukerak handitzeko erronkari erantzuten saiatzen da, Euskadiko 20.000 gazteri lehen lan-esperientzia emanez*”. Enplegu Arloak 5 helburu estrategiko eta 18 eskuhartze ildo ditu, Euskadiko gazteek enpleguaren arloan dituzten beharrei erantzuteko.

## 1 Arloa: ENPLEGUA

### 1.1. Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren transituan

- 5.1.1. Prestakuntzaren egokitzapena lan-merkatuaren eskaerari
- 5.1.2. Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala
- 5.1.3. Enplegurako prestakuntzaren berrikuntza: Enplegatzaileen sentsibilizazioa eta konpromisoa

### 1.2. Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago

- 1.2.1. Lehen lan-esperientzia izateko bide ematea
- 1.2.2. Esperientzia duten gazteen kontratazioari bultzada
- 1.2.3. Gazteen lan-aukeren hobekuntza
- 1.2.4. Enplegarritasun-baldintzen hobekuntzara bideratutako gaikuntza
- 1.2.5. Gizarte-eta lan-arloko informazioa eta orientazioa
- 1.2.6. Pertsona gazteentzako lan-aukeren sustapena EAEko sektore estrategikoetan
- 1.2.7. Aktibaziorako prestakuntza

### 1.3. Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza

- 1.3.1. Informazioa eta komunikazioa
- 1.3.2. Ezbeharren kopurua murriztea
- 1.3.3. Osasunaren zainketa

### 1.4. Gazte ekintzaile gehiago

- 1.4.1. Bokazio ekintzailearen sustapena
- 1.4.2. Ekimen-ekintzaileen babesa
- 1.4.3. Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia

### 1.5. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea

- 1.5.1. Prestakuntzaren eta kualifikazioaren hobekuntza
- 1.5.2. Orientazioa eta laguntza espezifikoak


**a) Jarduketak egitea**

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, 2018tik 2021era bitartean 276 jarduketa egin dira Enpleguaren arloan (batez beste 69 jarduketa urtean). Zehazki, arlo horretako jarduketaren % 53 kalitatezko enplegua duten gazte gehiago egotea lortzen saiatzen ziren. Bigarrenik, "Gazte ekintzaile gehiago" helburua dago, eta arlo horrek jarduketaren % 26 biltzen ditu.

3.1 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren Enplegu arloan egindako jarduketaren bilakaera, helburu estrategikoen arabera

Helburuak	2018	2019	2020	2021
Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren transituan	6	5	8	13
Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago	34	44	33	36
Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza	3	2	3	2
Gazte ekintzaile gehiago	17	12	19	23
Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea	5	3	4	4
<b>Guztira</b>	<b>65</b>	<b>66</b>	<b>67</b>	<b>78</b>

3.2 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean 1. arloan (Enplegua) gauzatuak jarduketak, helburu estrategikoen arabera



2018-2021 aldiran, enpleguaren 1. arloan egindako jarduketaren gauzatu-maila handia izan da (% 91,1), eta Gazte Plan osoan lortutakoaren antzekoa.



**b) Helburu-balioaren betetze-maila**

Eraginkortasun-mailari dagokionez, helburu-balioaren betetze-maila zertxobait txikiagoa izan da, % 81,9ko batez besteko eraginkortasun-mailarekin, batez besteko orokorra (% 89,9) baino zertxobait txikiagoa.

Estalduraren ikuspegitik, nabarmentzekoa da GazteBiziHitza web atariak 65.000 bisita inguru izan zituela 2021ean. Aipatzekoa da, halaber, Gazte Plana gauzatu zen azken urtean 27.500 gazteri enplegurako informazio- eta orientazio-ekintzak egin zitzaizkiela. Erantsitako taulan Enplegu arloko jardueri dagozkien adierazle nagusiak zehazten dira.

**3.3 Taula IV. Gazte Planaren (2021) Enplegu Arloaren jarduketan estaldura-adierazle nagusiak**

	<b>2021</b>	<b>Adierazlea</b>
GazteBiziHitza	64.727	Web atarira egindako bisiten kop.
Enpleguari buruzko informazio- eta orientazio-ekintzak	27.500	Pertsona kopurua
Ikaskuntzako bitartekarien sarea	7.141	Artatutako pertsonen kopurua
Enplegurako laguntza	3.630	Artatutako pertsonen kopurua
Enplegurako prestakuntza	3.598	Parte-hartzaile kopurua
Ikastetxe pribatu eta publikoetako prestakuntza	3.165	Prestatutako gazteen kopurua
Transiturako bekak (Ekintzailtza, Unibertsitateak)	2.430	Beka-kopurua
Ekintzailtzarako laguntzak	698	Onuradunen kopurua
Hezibi programa	693	Hezibi programan sartutako kontratatutako pertsonen kopurua
Reactivate programa, lan-esperientziaren bideratzailea	208	Programan parte hartu duten pertsonen kopurua
Gazteen prestakuntza kualifikazio baxua 2018-2021	195	Prestatutako gazteen kopurua
Onekin	182	Ekintzaile-kopurua
STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematikak) arloetan berrikuntza-proiektuak egitea	162	Parte hartu duten ikastetxeen kopurua
Lehen Aukera programa	132	Kontratu mugagabeen kopurua
Bikaintek programa	16	Lagundutako doktorego-tesi industrialen kopurua
Toki-eremuan gazteen emantzipazioa bultzatzeko diru-laguntzak	9	Diruz lagundutako proiektuen kopurua


**c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

Aurrekontuari dagokionez, 2018 eta 2021 artean 288 milioi euroko gastua gauzatu da enpleguaren arloan, hau da, Euskadiko IV. Gazte Planean gauzatutako aurrekontu osoaren % 33.

Enpleguaren arloan urtero gauzatutako aurrekontuaren azterketa zehatzak aldakortasun handia erakusten du IV. Gazte Planean zehar. Horren arrazoia izan daiteke, neurri batean, aurrekontu-informazioa erregistratzeko modua, batzuetan urte anitzeko partidak, exekuzio-urte bakoitzari argi eta garbi esleitu ez zaizkionak. Enpleguaren arloan, programatutako aurrekontuaren % 88 gauzatzea lortu da, gazteengan arreta jarrita.

Helburu estrategikoen arabera, "Kalitatezko enplegua duten gazte gehiago" helburuan egindako gastua nabarmentzen da, 261 milioi euroko aurrekontu globalarekin. Gainera, nabarmendu behar da helburuan aurreikusitako aurrekontuaren gainetik gauzatu dela, "Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren transitan". Aurrekontuaren gauzatze-maila txikia izan da "Gazte ekintzaile gehiago" helburuaren kasuan eta, bereziki, "Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea" helburuari dagokionez.

3.4 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko 1. arloko (Enplegua) adierazle nagusiak



### 3.1.2. Emaitzen ebaluazioa helburu estrategikoen arabera

#### 1.1. Helburua: Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren transitan

Enplegu arloaren lehenengo helburu estrategikoaren xedea hezkuntza- eta lan-arloaren transitan ahalik eta hurbiltasun eta abiadura handiena lortzea da. 1.1 helburua prestakuntzaren eta lan-merkatuaren arteko lotura gero eta handiagoa bultzatzera bideratuta dago, eta, horretarako, prestakuntza enplegu-aukeretara egokitzea eta ikasleen orientazioa bultzatzea du helburu, haien etorkizuna planteatzerakoan. Helburu horrek 3 jarduketa-ildo ditu:

---

1.1.1.- Prestakuntzaren egokitzapena lan-merkatuaren eskaerari

---

1.1.2.- Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala

---

1.1.3.- Enplegurako prestakuntzaren berrikuntza: Enplegatzaileen sentsibilizazioa eta konpromisoa

---

- 1.1.1 jarduketa-ildoak prestakuntzaren eta lan-merkatuaren eskariaren arteko egokitzapenean oinarritzen da. Enpresek zer eskatzen duten eta laneratzeko gakoak hobeto ezagutzen laguntzen duten ekintzez gain (Gazteria Zuzendaritzak eta Lanbidek egindako azterlanak, diagnostikoak, ebaluazioak eta ikerketak), prestakuntza espezifikoak (STEAM diziplinetan proiektu berritzaileak sustatzea, adibidez) edo lan-orientazio goiztiarrari laguntzeko ekintzak (hitzarmenak unibertsitate-zentroekin) bultzatzen dituzten ekintzak ere detektatzen dira. 2021ean 162 ikastetxek parte hartu zuten STEAM proiektuan.
- 1.1.2 jarduketa-ildoak prestakuntza dualeko sistemaren garapen integrala da. Hezibi programaren helburua, hain zuzen ere, gazteen kualifikazio-maila handitzea da, enpleguarekin txandakatutako prestakuntzaren bidez. 2021ean 693 pertsonak parte hartu zuten programan, 2.845ek Plan osoan.
- 1.1.3 jarduketa-ildoaren helburua enplegurako prestakuntzan berrikuntza sustatzea da: enplegatzaileen sentsibilizazioa eta konpromisoa. Azkenean, ez da jarduketa-ildo horretako jarduketarik programatu.

### **a) Jarduketak egitea**

Helburu hori 32 jarduketatan gauzatu da (urtean 8 jarduketa, batez beste), eta gauzatze-maila handia izan da (% 94). Gainera, ezarritako helburu-balioen % 97 betetzea lortu da. Esku-hartze ildoen arabera, egiaztatu da IV. Gazte Planaren erreferentziako aldian ez dela programatu enplegurako prestakuntzan berrikuntza sustatzeko jarduketarik.

### **b) Helburu-balioaren betetze-maila**

Eraginkortasunaren ikuspegitik, datuek berresten dute bete egin direla egindako jarduketetan ezarritako helburu-balioen % 97, eta, batez ere, prestakuntza lan-merkatuaren eskarira egokitzeko helburua bete da.


### **c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

Gazte Plana indarrean egon den lau urteetan 10,5 milioi euro inbertitu dira hezkuntza-eremura hurbiltzeko, aurreikusitakoa baino gauzatze-maila handiagoarekin.

Helburu hori Gazte Planaren aurrekontu osoaren % 1,2 da, eta joera irregular samarra izan du, neurri batean urte anitzeko programazio- eta egikaritze-sistemak azalduta.

Esku-hartze ildoen arabera, lehenengo bi lerroetan soilik gauzatu da aurrekontua. Zehazkiago, 5,2 milioi euroko gastua egin da prestakuntza lan-merkatuaren eskarira egokitzeko, eta 5,4 milioi euro prestakuntza dualeko sistemaren garapen integraleko lerroan. Gazte Planaren aldian, ez da lortu enplegurako prestakuntzan berrikuntza-jarduketarik egitea (enplegatzailleen sentsibilizazioa eta konpromisoa).

3.5 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren helburu espezifikoaren adierazle nagusiak <Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- arloaren transiutan>



## 1.2. Helburua Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago

Enpleguaren arloko bigarren helburu estrategikoaren xedea gazte gehiagok kalitatezko enplegua izatea da. Helburu hori 7 jarduketa-ildotan banatzen da:

1.2.1. Lehen lan-esperientzia izateko bide ematea

1.2.2.- Esperientzia duten gazteen kontratazioari bultzada

1.2.3.- Gazteen lan-aukeren hobekuntza

1.2.4.- Enplegarritasun-baldintzen hobekuntzara bideratutako gaikuntza

1.2.5.- Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa

1.2.6.- Pertsona gazteentzako lan-aukeren sustapena EAEko sektore estrategikoetan

1.2.7.- Aktibaziorako prestakuntza

- 1.2.1 jarduketa-ildoak lehen lan esperientziak erraztea du helburu. Lehen Aukera programaren helburua da langabezian dauden eta titulazioarekin lotutako enpleguetan esperientzia gutxi edo batere ez duten pertsonak kontratatzea, praktikaldiko kontratu baten edo kontratu mugagabe baten bidez (2021ean 132 kontratu mugagabe egin ziren). Eremu honetan txertatzen dira, halaber, lehen lan-esperientzia horiek sustatzen dituzten beka (Transitubekak, Global Training beka, Unibertsitateak, Gazteak prestatzeko beka Kanpo Ekintzaren arloan, Nekazaritza-sektorerera hurbiltzeko beka, Ibilbide eta Ekintzailtza beka, Turismoaren arloko beka) edo enplegua sortzeko laguntzak sektore edo tipologia desberdinetan (dantza, antzerkia, artea, besteren konturako kontratazioa, Ez-Leader landa-eremuetan, Reactivate programa...) edo Gazteria Zuzendaritzaren diru-laguntzak gazteen emantzipazioa sustatzeko (2021ean diruz lagundutako 9 proiektu gauzatu ziren). Jarduketa-ildo horretan eragile askok esku hartzen dute: Lanbidek eta Lan eta Enplegu Sailak, Hezkuntza Sailak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Lehendakariak, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, Garapen Ekonomiko, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak. 2021ean 208 pertsonak parte hartu zuten Reactivate programan.
- 1.2.2 jarduketa-ildoak esperientzia duten gazteen kontratazioa bultzatu nahi du. Epigrafe honetan, tokiko eta eskualdeko enplegu-proiektuak eta -planak garatzeko laguntzak, desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko diru-laguntzak eta gaur egun berriz ebaluatzen ari diren gazteak itzultzeko programak agertzen dira.
- 1.2.3 jarduketa-ildoak Gazteen enplegu-aukerak hobetu nahi ditu. Horretarako, Lan eta Enplegu Sailak profesionalak prestatzeko programak hedatzen ditu garapenerako lankidetzaren arloan, txanda-kontratueterako laguntzak, langabezian dauden langileentzako prestakuntza-programak, enplegu-nitxo berrietan (IKTB, zaintzak, eta abar) prestakuntza-proiektueterako laguntzak eta laneratzeko enpresak sortzen eta mantentzen laguntzeko programa. Bestalde, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak BEK beka ditu (Garapenerako Lankidetzaren arloan espezializatzeko beka, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bulegoetan egiten den 12 hilabeteko beka baten bidez).
- 1.2.4 jarduketa-ildoak enplegarritasun-baldintzak hobetzera bideratutako gaikuntzan oinarritzen da. Bertan, kualifikazio txikiagoa edo desegokiagoa duten gazteen prestakuntza (Lan eta Enplegu Saila) eta Itsasoratu programa (arrantza-enpresei laguntzak ematea, ikasleek arrantza-ontzietan prestakuntza-egonaldia egin ahal izan ditzaten) babesten dira. (2021ean 195 gazte prestatu ziren).

- 1.2.5 jarduketa-ildoak informazioa eta orientazio sozio-laborala eskaini nahi die gazteei beren laneratze-prozesuan. Hona hemen Lanbideren Orientazio Programa, GazteBizHitza ekimena –Gazte Zuzendaritzaren ikasketei, lanari eta etxebizitzari buruzko orientazio- eta aholkularitza-zerbitzua–, bai eta laneratzean berrikuntza sustatzeko eta enplegarritasuna hobetzeko hitzartutako ekintzak ere. (2021ean 64.727 bisita izan ziren GazteBiziHitza webgunera).
- 1.2.6 jarduketa-ildoak EAEko sektore estrategikoetan gazteentzako lan-aukerak sustatzea du helburu. Ildo horrek honako ekimen hauek biltzen ditu: Bikaintek programa, doktorego industrialak egiteko; langileak kualifikatzeko laguntzak, euskal nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektorearen ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko; laguntzak, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako, bereziki eremu eta udalerrri behartsuei zuzenduta; beka, merkataritza-sektorea hobeto ezagutzeko; edo beka, itsas eta arrantza-sektorean ikasteko. (2021ean 16 doktore-tesi industrial egin ziren laguntzekin).
- Azkenik, 1.2.7 jarduketa-ildoak Aktibatze prestakuntza du ardatz, eta ikasten eta lan egiten ez duten gazteen kolektiboari erantzun nahi dio. Lanbide arlo horretan inskribatutako ekintza guztiak gauzatzen ditu: prestakuntza-ekintzen finantzaketa (kontratazio-konpromisoarekin edo gabe), berariazko prestakuntza-programak (nekazaritza-, elikagai- eta itsas-arrantzako sektorea edo teleprestakuntza).

#### **a) Jarduketak egitea**

2018tik 2021era bitartean, 147 jarduketa egin dira gazteen artean enpleguaren kalitatea hobetzeko, eta, horren ondorioz, gauzatze-maila altua izan da (% 91).

#### **b) Helburu-balioaren betetze-maila**


Eraginkortasunaren ikuspegitik, datuek batez besteko helburu-balioen lorpen-mailak berresten dituzte. Zehazki, uste da, bultzatutako jarduketek bidez ezarritako balioen % 79,5 betetzea lortu dela. Esku-hartze ildoen arabera analisiak alde handiak antzematen ditu ezarritako helburuen lorpenean. Lehenik eta behin, laneko informazio- eta orientazio-ildoak ezarritako balioak ondo betetzen direla nabarmendu behar da. Beste muturrean, esperientzia duten gazteen kontratazioa bultzatzeko ildoak daude, eta, neurri txikiagoan, enplegarritasun-baldintzak hobetzera bideratutako gaitzuntasunak, ez baitute lortu ezarritako balioak betetzea.

#### **c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**


Inbertitutako aurrekontuaren bolumenari dagokionez, helburu espezifiko horrek 261 milioi euroko gastu globala gauzatzea lortu du 2018 eta 2021 artean, hau da, Euskadiko Gazte Planean inbertitutako gastu osoaren % 30. Aurreikusitako aurrekontuaren % 93,5 gauzatzea lortu da. Esku-hartze ildoen arabera, azpimarratzekoa da lehen lan-esperientziak errazteko gauzatutako aurrekontuaren bolumen handia, 216 milioi euro inbertitu baitziren 2018 eta 2021 artean.

Gainerako lineetan inbertitutako aurrekontua txikiagoa da. Hala ere, aipatu behar da 19 milioi euro inbertitu direla esperientzia duten gazteen kontratazioa bultzatzeko, eta 11 milioi euro aktibaziorako prestakuntzaren arloan.

3.6 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren helburu espezifikoaren adierazle nagusiak <Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago>







### **1.3. Helburua Gazteen lan-baldintzak hobetzea**

1.3 Helburuak gazteen lan-baldintzak hobetzea bilatzen du, eta 3 jarduketa-ildotan zehazten da.

---

1.3.1.- Informazioa eta komunikazioa

---

1.3.2.- Ezbeharren kopurua murriztea

---

1.3.3.- Osasunaren zainketa

---

- 1.3.1 jarduketa-ildoan laneko segurtasunari eta osasunari buruzko informazioa eta komunikazioa sortzera bideratuta dago, laneko arriskuen prebentzioaren kultura bultzatzeko eta jokabide seguruak eta osasungarriak sustatzeko. Hemen dago "GaztePreben" ekimena, Osalanen webguneko atal espezifikoak gazteentzat. Bertan, arriskuen prebentzioaren arloko edukiak zabaltzen dira hainbat arlotan: etxean, eskolan, aisialdian, lanean, formatu digital interaktiboan eta deskargagarrietan.
- 1.3.2 jarduketa-ildoaren helburua ezbehar-tasa murriztea da, eta, horretarako, ADI proiektua dago, gazteriaren arloan lan-arriskuen prebentzioa sustatu nahi duena, OSALANek Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin (FTSI) sinatutako hitzarmen baten bidez, Euskadiko Lanbide Heziketako prestakuntza-zentroak bisitatzeko eta ikasleek Osalanera egindako bisiten bidez, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko informazioa eta dokumentazioa jasotzeko.
- 1.3.3 jarduketa-ildoan osasunaren zaintzara bideratua. Ez da lortu ildo horretako jarduketarik abian jartzea.

#### **a) Jarduketak egitea**

Gazte Planaren aldirian 10 jarduketa baino ez dira egin, gazteen lan-baldintzak hobetzeko helburuarekin. Planaren esparruan gauzatze-maila ertaina izan da (% 83). Ez da lortu gazteen artean osasuna zaintzeko 1.3.3 ildoan inolako jarduketarik abian jartzea.





#### **b) Helburu-balioaren betetze-maila**

Helburu horretan ezarritako helburu-balioak lortzeko eraginkortasun-maila txikia izan da (% 62). Hala ere, alde handiak daude esku-hartze ildoen artean. Informazio- eta komunikazio-jarduketan ezarritako helburuak lortu dira, baina ez dira lortu ezbehar-tasa murriztearen kasuan espero ziren balioak.

#### **c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

2018tik 2021era 32.000 euroko aurrekontu globala inbertitu da helburu horretan, gazteen artean ezbehar-tasa murrizteko.

3.7 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren berariazko helburuko adierazle nagusiak <Gazteen lan-baldintzak hobetzea>

Gazteen lan-baldintzak hobetzea					
Jarduketan bilakaera		Gauzatze- eta eraginkortasun-maila			
					
Batez besteko eraginkortasun-maila (Lortutako balioaren % -a helburu-balioaren gainean)					
Informazioa eta komunikazioa		101,9		●	
Ezbehar-tasa murriztea		58,8		●	
Aurrekontuaren gauzatze-maila esku-hartze ildoen arabera					
					
Programatutako eta gauzatutako aurrekontuaren bilakaera					
					
Esku-hartze ildoak		Programatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontuaren %	
Ezbehar-tasa murriztea		32.000,0	32.000,0	100,0	●

**1.4. Helburua Gazte ekintzaile gehiago**

1.4 Helburuak gazte ekintzaile gehiago lortzea du helburu, eta 3 jarduketa-ildotan gauzatzen da:

---

1.4.1.- Ekintzailtza-bokazioak bultzatzea

---

1.4.2.- Ekimen ekintzaileak babestea

---

1.4.3- Ekintzailtza eta gizarte-ekonomia

---

- 1.4.1 jarduketa-ildoak Bokazio ekintzaileak bultzatu nahi ditu. Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntzak daude, sorkuntza artistikorako (koreografikoa, muskala, antzerkikoa, literarioa) eta NOKA Mentoria programarako, zeinak baliabideak eskaintzen baitizkie film laburrak edo obra luzeak sortzen dituzten emakumeei.
- 1.4.2 jarduketa-ildoak Ekimen ekintzaileei laguntzea sustatzen du. Hemen aipatzekoak dira Lanbideren ekintzailtzarako laguntzak (2021ean 698 pertsona izan ziren laguntzen onuradun) edo Gaztenpresa programa, enpresa-ekimena duten gazteei aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua eskaintzen diena, edo Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren laguntzak, landa-udalerrien sustapenera, garapenera eta dibertsifikazio ekonomikora bideratuak, edo profesional gazteak arrantza-ontzien jabetzara edo ekintzaile-izpiritua landa- eta kosta-eremuan sustatzera bideratutako laguntzak, ONEKIN ekimena (Gaztenek eta Geroa Programak) elikaduraren balio-kateari, zuraren balio-kateari edo landa-ingurunean eta itsasertzean kokatzen diren proiektuei lotutako enpresa-proiektuak abian jarri nahi dituzten ekintzaileei eta/edo ekimen ekintzaileei laguntza integrala emateko zerbitzua da, edo nekazaritzaren sektorean pertsonak sartzea bilatzen duen Txanda Irekiko programa. (2021ean 182 ekintzaile izan ziren) Halaber, ildo horretan kokatzen dira Gazteria Zuzendaritzaren ekintzailtza-bekak, ekintzailtzarekin lotutako gaitasunak garatzeko (2021ean 2.430 beka eskaini ziren).
- 1.4.3 jarduketa-ildoak Ekintzailtza eta Gizarte Ekonomia bultzatu nahi ditu, gazteentzat bereziki egokia den enpresak sortzeko modu gisa. Lan eta Enplegu Sailak, Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren bitartez, hiru ekintza proposatzen ditu: gizarte-ekintzailtzako programa bat, lurraldean eta lurraldeko hainbat eragileren esku-hartzearekin (hezkuntzakoak, enpresak...) sustatzea helburu duena; gizarte-ekonomiako enpresak sortzea, jarduketa-planak egiten, garatzen eta gauzatzen lagunduz; gizarte-ekonomiako enpresetan bazkide langileak sartzeagatiko diru-laguntzak; eta gazteentzako gizarte-ekonomia prestatzeko eta zabaltzeko ikastaroak.

**a) Jarduketak egitea**

2018 eta 2021 artean 71 ekintza ezarri dira gazteen ekintzailtza sustatzeko (aurreikusitako jarduketaren % 95).

**b) Helburu-balioaren betetze-maila**


Helburu-balioei dagokienez, gazteen ekintzailtzaren arloan ezarritako balioen % 80 betetzea lortu dela uste da. Esku-hartze ildoen arabera, ekintzailtzako eta gizarte-ekonomiako esku-hartze ildoaren kasuan ezarritako helburuak bete izana nabarmentzen da. Ezarritako helburu-balioen betetze-maila txikiagoa izan da garatutako beste bi ildoetan.

### **c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

Aurrekontuaren ikuspegitik, Gazte Planak 12 milioi euroko aurrekontua mugiaraztea lortu du helburu espezifiko horretan. Programatutako aurrekontuarekin alderatuta, IV. Gazte Planean aurreikusitako aurrekontu orokorraren % 58 baino ez da gauzatu. Bilakaeraren ikuspegitik, 2021eko ekitaldian gauzatutako aurrekontuaren hazkunde handia egiaztatzen da.

Esku-hartze ildoen arabera, Planaren aldian 10 milioi euro gauzatu dira ekimen ekintzaileei laguntzeko lerroan, milioi 1 bokazio ekintzaileak bultzatzeko eta 865.385 euro gizarte-ekonomian ekintzaitza sustatzeko. Jasota utzi behar da azkenean gauzatutako aurrekontuaren bolumena aurreikusitakoa baino dezente txikiagoa izan dela. Hau da, ekintzaitza sustatzeko aurreikusitako aurrekontuaren % 58 gauzatu da.

3.8 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren helburu espezifikoaren adierazle nagusiak <Gazte ekintzaile gehiago>



**1.5. Helburua Baztertua geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzea**

Enpleguaren arloko azken helburua bazterkeria-arriskuan dauden gazteak laneratzea da, eta bi jarduketa-ildotan zehazten da:

**1.5.1.- Prestakuntza/kualifikazioa hobetzea****1.5.2.- Orientazio eta laguntza espezifikoak**

- 1.5.1 jarduketa-ildoak enplegurako prestakuntza- eta kualifikazio-jarduketak garatu nahi ditu, eta gizarteratzeko eta laneratzeke ibilbideak garatu. Lanbidek laguntza ekonomikoak ematen dizkie laneratzeke proiektu bereziei, enplegua lortzeko edo mantentzeko zailtasunak dituzten pertsona landunentzat eta langabeentzat. Hezkuntza Sailak, bestalde, Ikaskuntzako Bitartekararien Sarea du, prestakuntza eta bizialdi osoko ikaskuntza euskal herritar guztiei hurbiltzeko, arreta berezia jarriz egoera ahulenean dauden eta prestakuntza-zirkuituetatik urrun dauden pertsonen.
- 1.5.2 jarduketa-ildoak orientazioa eta laguntza bilatzen ditu laneratze-prozesuan. Ekintza horien bidez, enplegu lagundurako laguntzak emango dira, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa, eta HEMEN programa garatuko da, gazte atzeritarrei orientazioa eta laguntza emateko.

**a) Jarduketak egitea**

Gazte Planean helburu hori duten 16 jarduketa egin dira, programatutako jarduketaren gauzatze-maila ertaina izanik (% 76).

**b) Helburu-balioaren betetze-maila**


Eraginkortasunaren ikuspegitik, ezarritako jomuga-balioak betetzeari dagokionez, % 71 inguruko batez besteko balioa lortzen da 1.5 helburu horretan. Esku-hartze ildoen arabera, laneratze-prozesuan orientazioaren eta laguntza espezifikoaren kasuan ezarritako helburuak betetzea lortu dela berresten da. Aitzitik, ez dira prestakuntza eta enplegurako kualifikazioa hobetzeko ildoaren kasuan espero ziren balioak lortu.

**c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

Aurrekontuari dagokionez, 2018 eta 2021 artean 3,9 milioi euro erabili dira bazterketa-arriskuan dauden gazteak laneratzea sustatzeko, gehienbat prestakuntzaren/kualifikazioaren hobekuntzaren ildotik (3,7 milioi euro). Datuek erakusten dute 2018an ahalegin handia egin dela aurrekontuan helburu horretan. Orientazio- eta laguntza-ildo espezifikoaren gastua askoz txikiagoa izan da (241.850 euro, Planaren aldiaren).

Bilakaeraren ikuspegitik, helburu horretan inbertitutako aurrekontuak behera egin duela egiaztatu da, eta, gainera, hasieran programatutako aurrekontuarekiko gauzatze-maila txikiak izan ditu. 2018an aurrekontu-ahalegin handia egin zen helburu horretan, eta gero nabarmen uzkuritu da Gazte Plana ezarri den gainerako urteetan.

3.9 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren helburu espezifikoaren adierazle nagusiak <Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzea>





## 3.2. 2. Arloa. Etxebizitza

### 3.2.1. Jarduketan deskribapen orokorra

1. ardatzarekin –Emantzipazioa eta autonomia– jarraituz, 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 2. arloa Etxebizitzari dagokio, eta etxebizitzaren eskuragarritasuna errazteko erronkari erantzuten saiatzen da, batez ere alokairuan, benetako emantzipazio-adina EAEko gazteek nahi dutenera hurbiltzeko. Etxebizitza Arloak honako helburu estrategiko hauek ditu: gazteentzat etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago, eta esku hartzeko 2 ildo, gazteentzat etxebizitza babestua lehentasunez erreserbatzea eta gazteen alokairua bultzatzeko formula eta neurri berriak garatzea helburu dutenak.

## 2.ARLOA: ETXEBIZITZA

### 2.1. Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat

2.1.1. Gazte-kolektiboari etxebizitza babestuak lortzeko lehentasuna ematea

2.1.2. Gazte-alokairua hobetzeko formula eta neurri berriak garatzea

- 2.1.1 jarduketa-ildoak etxebizitza babestuaren lehentasunezko erreserba ezarri nahi du gazteentzat. IV. Gazte Planak ez du ildo horren barruko jarduketa zehatzik erregistratu. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza babestua 36 urtetik beherako gazteei lehentasunez esleitzeko araudi orokorraren barruan sartu du.
- 2.1.2 jarduketa-ildoak gazteen alokairua bultzatzeko formula eta neurri berriak garatzean datza. Esku-hartze ildo horren ekimen nagusia GAZTELAGUN programa da, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren alokairua eta etxebizitzarako eskubide subjektiboari lotutako prestazio ekonomikoa ordaintzen laguntzeko eta etxebizitzarako eskubide subjektiboari lotutako prestazio ekonomikoa emateko. (2021ean 2.462 pertsonak jaso zuten Gaztelagun programa). Sail beraren beste ekintza giltzarri bat da etxebizitza babestuen lehentasunezko erreserba bat ezartzea gazteentzat. (2021ean sustapen berriko 2.587 etxebizitza eraiki ziren gazteentzako). Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, bestalde, jakintza sortzearen esparruko ekintzak garatzen ditu (adierazleak, diagnostikoak, gazteei eta etxebizitzari buruzko txostenak).

### a) Jarduketak egitea

Helburu estrategikoen arabeko aurrekontuen banaketak erakusten du bazterkeria-arriskuko egoerak prebenitzeko helburuarekiko nagusitasuna, 131 milioi euroko aurrekontu gauzatuarekin. Egindako gastuaren bolumena txikiagoa izan da Gizarte Ekintza eta Berdintasunaren arloko beste hiru helburuetan, eta aurrekontu-gauzatze maila baxuak erregistratu dira identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egiteko eta tratatu txar modu berriak prebenitzeko helburuaren kasuan.

3.31 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planeko Gizarte Ekintza eta Berdintasuna arloaren adierazle nagusiak



### **3.5.2. Emaitzen ebaluazioa helburu estrategikoen arabera**

#### **5.1 Helburua. Bazterkeria-arriskuko egoerak prebenitzea**

Gizarte Ekintza eta Berdintasuna arloaren lehen helburu estrategikoen xedea bazterkeria-arriskuko egoerei aurrea hartzea da, eta jardun-ildo bakar batean zehazten da:

##### **5.1.1.- Oinarrizko premien estaldura**

- 5.1.1 jarduketa-ildoak, oinarrizko premiak betetzeari buruzkoak, pobrezia-arriskuan eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden gazteen premiak arintzea du helburu. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak parte hartzen duten ekintzak dira. Lehenengo kasuan, hiru ekintza mota daude eremu horretan: Toki Erakundeei laguntza ekonomikoak ematea immigrazioko teknikarien jarraipenerako eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduketak garatzeko; premia bereziko egoera puntualetan haurrei arreta emateko programa pilotuak garatzea; eta hirugarren sektore sozialeko jarduketak sustatzea diru-laguntzak emanaz eta ingurune irekiko zentro, zerbitzu eta programen sareari eutsiz, gazte-sareari ezarritako askatasun-gabetzaileak ez diren neurriak betetzen direla bermatzeko. Lan eta Enplegu Sailaren bi ekimen nagusiak honako hauek dira: batetik, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eskaintzea (2021ean, 4.613 titular gazteak ziren), eta, bestetik, eremu maskulinizatuetan emakumeei zuzendutako prestakuntza-proiektuak finantzatzeko laguntzak.

#### **a) Jarduketak egitea**

Gazteen oinarrizko premiei erantzuteko asmoz, 14 jarduketa ezarri dira guztira, eta programatutako jarduketaren % 93 egin dira.


#### **b) Helburu-balioaren betetze-maila**

Lortutako helburu-balioek ezarritako helburuak gainditu dituzte, % 153ko eraginkortasun-maila lortuz.

#### **c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

Gazte Planaren lau urteetan 131 milioi euro bideratu dira gazteen oinarrizko beharrei erantzuteko, hau da, IV. Gazte Planaren aurrekontu osoaren % 15. Bilakaeraren ikuspegitik, 2021ean gazteak ardatz hartuta inbertitutako aurrekontuaren gorakada handia agerian geratzen da.

3.32 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Bazterkeria-arriskuko egoerak prebenitzea> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak



**5.2. Helburua - Identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea**

Gizarte Ekintza eta Berdintasuna arloaren bigarren helburu estrategikoaren xedea Euskadin identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea da, eta bi jarduketa-ildotan zehazten da:

**5.2.1.- Berdintasuna etxean/familian (kontziliazio erantzukidea)****5.2.2.- Kolektiboen arteko berdintasuna**

- 5.2.1 jarduketa-ildoak "Berdintasuna etxean/familian" Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak garatutako ekintzak biltzen ditu. Azpimarratzekoak dira familia eta lana bateragarri egiteko familientzako laguntza-ildoak (seme-alabak eta adingabeak zaintzea, adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko kontratazioa, kotizazio-aldietako eragina, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, kontziliazio erantzukidea) (2021ean, 370 pertsonak jaso zituzten laguntza horiek). Horretaz gain, honako hauek ere badaude: haurren eta familien tokiko diagnostikoak eta planak egiten laguntzeko ekintzak, familiei laguntzeko gidak egitea, Kontzilia zerbitzuak bultzatzea (2021ean 180.000 bisita egin ziren web orrira), kontziliazio erantzukidea zabaltzera bideratuak, bai enpresei, bai herritar guztiei. Hemen ageri dira, halaber, kontziliazioaren arloan lider eta erreferente diren enpresen egiaztatze- eta ziurtatze-ereduen azterlanak, diagnostikoak eta kontziliazio-planak egiteko enpresei zuzendutako ekintzak, kontziliazio erantzukideari buruzko gizarte-sentsibilizazioko kanpainak, eta uztartze-politikak enpresei eta gizarteari zabaltzeko eta aurkezteko jarduketak, enpresen eskura jarritako tresnak eta baliabideak zabalduz, eta enpresak kontziliazio erantzukidearen aldeko apustua egitera animatuz.
- 5.2.2 jarduketa-ildoak "Kolektiboen arteko berdintasuna" LGTBI kolektiboan berdintasunean aurrera egiteko ekimenak hedatu nahi ditu. Horretarako, haurrei eta nerabeei laguntzeko telefono bidezko zerbitzu telematikoa dago, 116111 Zeuk Esan, arazo, zailtasun edo kezka bat duten adingabeei orientazioa, aholkularitza eta informazioa eskaintzen diena. (2021ean gazteen 567 kontsultari erantzun zitzaizen (12-18 urte). Inguruan dituzten adingabeen babesgabetasun-egoeren edo eskubideen urraketan berri eman nahi duten helduei ere zuzendua. Kirolean indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurka borrokatzeko publizitate-kanpainak ere aipatu behar dira (kirol-ikuskizunetan indarkeria-gertakariak saihestea, adibidez).

**a) Jarduketak egitea**

5.2. Identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea helburuak 30 jarduketa egitea lortu du IV. Gazte Planaren aldian, eta aurreikusitako jarduketan gauzatze-maila handia izan da (% 77).

**b) Helburu-balioaren betetze-maila**

Ezarritako helburu-balioen azterketatik % 70eko betetze-maila lortzen da, eta maila ertaineko lorpenzat jotzen da. Esku-hartze ildoari dagokionez, ikusten da ezarritako helburuak betetzea positiboa izan dela kolektiboen arteko berdintasunaren aldeko ekintzen kasuan, baina ez dira lortu etxean/familian berdintasuna sustatzera bideratutako jarduketa-ildoan ezarritako helburuak (kontziliazio erantzukidea).


### **c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

Gazte Planaren lau urteetan 28 milioi euro inbertitu dira Euskadiko gazteen artean identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egiteko jarduketak garatzeko. Helburu hori IV. Gazte Planaren aurrekontu orokorraren % 3,2 da. Bilakaerari dagokionez, urteko joera desberdina da, bi urteko programazioen ondorioz. Programaturako aurrekontuarekin alderatuta, Gazte Planaren aldiaren aurreikusitako aurrekontu orokorraren % 65 baino ez da gauzatu.

Esku-hartze ildoaren arabera, Planaren aldiaren, etxeko/familiako berdintasunarekin lotutako jarduerak (kontziliario erantzukidea) 27,4 milioi euroko gastu-bolumena izan dute. Kolektiboaren arteko berdintasunera bideratutako partida (801.494 euro).



3.33 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak



**5.3. Helburua - Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea**

Gizarte Ekintza eta berdintasun arloko 5.3 helburuak emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea du helburu, eta bi jarduketa-ildotan zehazten da:

**5.3.1.- Sentsibilizazioa eta prebentzioa (zero tolerantzia)****5.3.2.- Arreta integrala**

- 5.3.1 jarduketa-ildoak "Sentsibilizazioa eta prebentzioa (zero tolerantzia)" emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko gizarte-kontzientziazioa areagotzera bideratuta dago. Emakundek, Beldur Barik Kanpainarekin, bereziki gazteriari eragiten dio, eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sortu eta prebenitu nahi ditu (2021ean 2.496 pertsonak hartu zuten parte Beldur Barik kanpainan); halaber, unibertsitate-masterretako ikasleei laguntzak ematen dizkie berdintasunari buruz edo emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruz, arlo horietan profesionalak prestatzen laguntzeko, eta diru-laguntzak ematen dizkio Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, bestalde, emakumeen eta gizonen berdintasunerako programa bat garatzen du jarduketa fisikoan eta kirolean.
- 5.3.2 jarduketa-ildoak "Arreta integrala" genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei kalitatezko arreta emateko zerbitzu bat eskaini nahi du, laguntza ekonomikoen eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko 24 orduko arreta-zerbitzu espezializatuaren bidez (Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila), eta Segurtasun Siletik biktimari arreta emateko zerbitzuaren ebaluazioa egin nahi du. (2021ean 290 laguntza eman zitzaizkien emakumeei).

**a) Jarduketak egitea**

Gazte Planaren aldian 26 jarduketa baino ez dira egin emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko, eta helburu horretarako programatutako jarduketa guztiak bete dira. Zehazki, 17 sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduketa egin dira (zero tolerantzia), eta 9 arreta integraleko jarduketa.


**b) Helburu-balioaren betetze-maila**

Ezarritako helburu-balioak lortzeko eraginkortasun-maila ertaina da (% 79). Esku-hartze ildoan arabera, bete egin dira sentsibilizazioko eta prebentzioko esku-hartze ildoaren kasuan ezarritako helburuak (zero tolerantzia), eta, aldiz, ez dira lortu arreta integraleko jarduketan kasuan lortu nahi ziren balioak.

**c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

Aurrekontu mailan, 2018 eta 2021 artean 2 milioi euroko aurrekontu globala gauzatu da emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko. Zehazki, arreta integraleko jarduerak 1,3 milioi euroko aurrekontua izan dute, eta sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak (zero tolerantzia) 727.111 eurokoa.

3.34 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak



#### **5.4. Helburua - Tratu txar modu berriak prebenitzea**

Gizarte Ekintza eta Berdintasuna arloaren laugarren helburua gazteen artean tratu txar mota berriak prebenitzea da, eta bi jarduketa-ildotan zehazten da:

5.4.1.- Gurasoen aurkako indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta

5.4.2.- Eskola-jazarpena detektatzea, prebenitzea eta artatzea (bullyinga eta ziberbullyinga)

- 5.4.1 jarduketa-ildoak "Gurasoen aurkako indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta" gurasotasun positiboaren kontzeptua garatzeko lan egin nahi du. Horretarako, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren hainbat ekimen sartzen dira: familiekin harremanetan lan egiten duten profesionaleri zuzendutako ekintzak, gurasotasun positiboaren gakoak transmiti ditzaten, judizioz kanpoko familia-bitartekaritzako zerbitzua (judizializatu gabeko gatazkak konpontzea eta Familia Bitartekaritzako Zerbitzu estrajudizialek eratorritako familientzako terapia-zerbitzua, familia zaugarriari esku-hartze terapeutikoa behar duten familia-gatazkak konpontzen laguntzeko.
- 5.4.2 jarduketa-ildoak "Eskola-jazarpena detektatzea, prebenitzea eta artatzea (bullying eta ziberbullying)" prestakuntza/sentsibilizazio ekintzak jasotzen ditu, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailetik zabalduak, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren esparruan gazteekin lan egiten duten profesionaleri zuzenduak, zibersegurtasunari, sare sozialen erabileran erantzukizunari eta eskola-jazarpenerako kasuak jasan dituzten gazteen arretari dagokienez.

#### **a) Jarduketak egitea**

2018 eta 2021 artean, gazteen artean tratu txar mota berriak prebenitzeko 15 ekintza ezarri dira, hau da, programatutako jarduketaren % 94.


#### **b) Helburu-balioaren betetze-maila**

Xede balioei dagokienez, aztertutako datuek erakusten dute helburu horretan ezarritako balioak gainditu direla (% 121). Bi jardun-ildoetan ezarritako helburuak betetzea lortu da.

#### **c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

2018 eta 2021 artean, helburu espezifiko horretan gauzatutako azken aurrekontua 600.000 eurokoa da. Aurrekontuaren % 39 baino ez da gauzatu, helburu horretarako programatutako gazteria ardatz hartuta. Esku-hartzeko ildoen arabera, aurrekontuaren zatirik handiena gurasoen aurkako indarkeria detektatzeko, prebenitzeko eta artatzeko lerroan (592.896 euro) kontzentratu da. Eskola-jazarpena detektatu, prebenitu eta artatzeko aurrekontuaren bolumena (bullying eta ziberbullying) txikia izan da, baina jarduketa hori Eusko Jaurlaritzaren baliabideekin egiten dela adierazi behar da.

3.35 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren <Tratu txarren modu berriak prebenitzea> helburu espezifikoaren adierazle nagusiak



# 4. ARDATZA. PARTAIDETZA ETA KONPROMISO SOZIALA

**6. Arloa: Partaidetza**

**7. Arloa: Kontsumoa**

### 3.6. 6. Arloa. Parte-hartzea

#### 3.6.1. Jarduketan deskribapen orokorra

4. ardatzaren barruan –Partaidetza eta Konpromiso soziala–, 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 6. arloa Partaidetzari dagokio, eta honako erronka honi erantzun nahi dio: *"Gero eta parte-hartze handiagoa duen eta ekimena duen gazteria handitzea eta babestea"*. Partaidetza arlo honek helburu estrategiko bakarra du: *"Komunikazioa, partaidetza eta elkar ezagutzea bultzatzea"*, eta 4 esku-hartze ildo.

## 6. Arloa: PARTAIDETZA

### 6.1. Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea

- 6.1.1. Gazte-elkarteen ekimenak babestea
- 6.1.2. Gazte-boluntariotzaren bultzada
- 6.1.3. Partaidetzaren kultura eta eztabaidarako guneak
- 6.1.4. EGK-Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetzak

- 6.1.1 jarduketa-ildoak "Gazte-elkarteen ekimenak babestea" Berdintasunaren, Justiziaren eta Gizarte Politiken Saileko gazteriaren arloko programak eta jarduketak garatzeko elkartei diru-laguntzak emateko deialdia barne hartzen du, gazte-elkarteen eta aisialdi parte-hartzailearen jarduketa indartzeko.
- 6.1.2 jarduketa-ildoak "Gazteen boluntariotzari bultzada ematea" gizarteak parte hartzeko modu gisa, aisialdiko hezkuntza sustatzen duten ekintzak biltzen ditu, begirale, zuzendari eta dinamizatzaile soziokulturalaren tituluak emanez, prestakuntza-ekintzak eginez, Gazte Boluntariotzaren Zelaiak Programaz elkarrekin eta udalekin lankidetzan, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren bidez eta Ingurumen Boluntariotzaren Programaren bidez.
- 6.1.3 jarduketa-ildoak "Parte hartzeko kultura eta elkarrizketarako guneak" Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eskusiboki garatutako ekintzak hedatzen ditu. Gazteen kolektiboa sentsibilizatzea eta gazteen parte-hartzea bultzatzeko dauden instrumentuak eta tresnak ezagutzera ematera bideratuta dago. Hemen sartzen dira, besteak beste, Euskadiko Gazte Informazio Zerbitzua-SIJE, bere web orriaren bidez informazioa gaika zabaltzea, gazteen artean presentzia handiena duten sare sozialak, prestakuntza-ekintzak (teknologia, jokoak, sormena eta talde-lana, adibidez), Gazteakera.euskadi.eus ataria (2021ean 1.700.000 bisita lortu zituen) eta Euskadiko gazteen leihatila bakarra, azterlanak, buletinak eta artikuluak egitea, Gazteen Euskal Behatokiaren Dokumentazio Zentroa kudeatzea, haurren parte-hartzea sustatzeko proiektu pilotua abian jartzea edo toki-eremuan gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko diru-laguntzak ematea.
- 6.1.4 jarduketa-ildoak "EGK-Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetzak" Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (CJE-EGK) diru-laguntza izendunaren bidez finantzatzean datza, gazteen emantzipazioa eta ohiko jarduketak bultzatzeko programarako.

#### a) Jarduketak egitea

2018 eta 2021 artean 61 jarduketa egin dira guztira Partaidetza arloan (15 jarduketa urtean, batez beste). Programatutako jarduketan % 92 gauzatzea lortu da.

**b) Helburu-balioaren betetze-maila**

Ezarritako helburu-balioen betetze-maila ere altua dela esan daiteke, % 88ko batez besteko eraginkortasun-mailarekin. Esku hartzeko lau ildoetatik, helburu-balioen betetze-maila txikiagoa izan da gazteen boluntariotzari emandako bultzadaren kasuan, Covid-19aren osasun-krisiak eragindako ildoak baita.

Estaldurari dagokionez, adierazi behar da 2021ean Gazteakera atariak 1.700.000 bisita izan zituela.

Partaidetza arlo horren barruan, interesgarria da jasota uztea 2021ean 1.029 begirale, zuzendari eta dinamizatzaile soziokultural titulu ematea babestu zela (3.264 titulu IV. Gazte Planaren indarraldiko 4 urteetan).

**3.36 Taula IV. Gazte Planeko Partaidetza Arloaren jarduketan estaldura-adierazle nagusiak, 2021**

	<b>2021</b>	<b>Adierazlea</b>
Gazteakera ataria	1.700.000	Bisita-kopurua
Begirale, zuzendari eta dinamizatzaile soziokulturalaren tituluak ematea	1.029	Jaulkitako tituluaren kopurua


**c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

Aurrekontu mailan, 2018 eta 2021 artean 6 milioi euro egikaritzea lortu da, Partaidetzaren 6. arloan egindako jarduketan bidez, Euskadiko gazteen arteko komunikazioa, parte-hartzea eta elkar ezagutzea bultzatzen saiatuz. Bilakaerari dagokionez, 2019an eta 2020an gauzatutako aurrekontuan beherakada gertatu zen, eta susperraldi txiki bat 2021ean.

Esku-hartze ildoei dagokienez, Planaren aldian 2,1 milioi euro inbertitu dira gazteen asoziazionismoko ekimenak sustatzeko eta laguntzeko, 1,6 milioi euro parte hartzeko eta elkarrizketa-guneak sustatzeko kulturaren aldeko apustuan eta 1,5 milioi euro gazteen boluntariotza bultzatzeko. EGKren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioak eta lankidetzak 920.000 euroko aurrekontu globala ekarri du 2018 eta 2021 artean.



3.37 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 6. arloaren adierazle nagusiak eta helburu espezifikoak (komunikazioa, parte-hartzea eta elkarrekiko ezagutza bultzatzea)



### 3.7. 7. Arloa. Kontsumoa

#### 3.7.1. Jarduketan deskribapen orokorra

4. ardatzaren barruan –Partaidetza eta Konpromiso soziala–, 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 7. arloan sartzen da Kontsumoa. Arlo horren erronka da gazteen kolektiboaren kontsumo arduratsuan sustatzea eta hezteak, eta helburu bakar batean zehazten da: kontsumoaren aurrean ardura duten gazte gehiago izatea. Bi esku-hartze ildotan zehazten da.

## 7. Arloa: KONTSUMOA

### 7.1. Kontsumo arduratsua egiten duen gazte gehiago

7.1.1. Baliabideen kontsumo eta erabilera jasangarria egiteko heziketa eta prestakuntza

7.1.2. Komunikazio-mota berrietara egokitutako tresna teknologikoen garapena

- 7.1.1 jarduketa-ildoak Baliabideak arduraz kontsumitzeko eta erabiltzeko hezkuntza eta prestakuntza jasotzen ditu, gazteei kontsumitzaile gisa dituzten eskubideak ezagutarazteko eta kontsumo arduratsua eta arrazionala gauzatu ahal izateko ezagutza emateko ekimenen bidez. Hemen nabarmentzekoak dira MUGI-BAT-BARIK garraio-txartelen programa (2021ean 752.947 txartel egin ziren), garraio publikoa errazteko asmoz, hiru lurraldeetan BAT- BARIK-MUGI txartelak erabiltzea ahalbidetuz. Programa hori Garraio Sailak garatu du, eta Kontsumobideek hainbat gairi buruz (etiketak, erosketak eta zerbitzuak, kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak, segurtasuna, finantza-zerbitzuak eta elikadura, bai eta IKTen arloko jardunaldiak) egindako tailerrak ere sartzen dira. (2021ean 2.003 tailer egin ziren).
- 7.1.2 jarduketa-ildoan “Komunikazio-modu berrietara egokitutako tresna teknologikoak garatzea” Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak esku hartzen du, gazteen artean azterlanak eta inkestak eginez (sare sozialen erabilera, etab.) eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, garraio publikoaren sareari eta bidegorrien sareari, bizikleta-bideei eta bizikletak alokatzeko puntuei buruzko informazioa emanez (Moveuskadi.com ataria).

#### a) Jarduketak egitea

Gazte Planaren 4 urteetan, 21 jarduketa egin dira kontsumoaren arloan, eta programatutako jarduketa guztiak gauzatu dira (urteko batez besteko 5 jarduketa).

#### b) Helburu-balioaren betetze-maila

Kontsumoaren arloan, ezarritako helburu-balioen betetze-maila handia lortu da (% 84). Esku-hartze ildoen arabera, komunikazio-modu berrietara egokitutako tresna teknologikoak garatzeko jarduketan kasuan ezarritako helburuak betetzeari buruzko balio positiboak erregistratzen dira. Baliabideen kontsumo eta erabilera arduratsurako hezkuntza- eta prestakuntza-ildoaren kasuan, ez da lortu ezarritako helburuak betetzea.

Estaldurari dagokionez, nabarmentzekoa da MUGI-BAT-BARIK garraio-txartelen programak 750.000 txartel inguru jaulki dituela 2021ean. Bestalde, kontsumo-arloan, nabarmendu behar da 2.000 tailer baino gehiago egin direla komunikazio-modu berrietara egokitutako tresna teknologikoak garatzeko.

### 3.38 Taula IV. Gazte Planeko (2021) Kontsumo arloko jarduketan estaldura-adierazle nagusiak


	<b>2021</b>	<b>Adierazlea</b>
MUGI-BAT-BARIK garraio-txartelen programa	752.947	Txartel-kopurua
Komunikazio-modu berrietara egokitutako tresna teknologikoak garatzea	2.003	Egindako tailerren kopurua

#### **c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

2018. eta 2021. urteen artean 900.000 euro inguru egikaritu dira kontsumoaren arloan, hau da, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planean gauzatutako aurrekontuaren zati txiki bat (guztizkoaren % 0,1). Lau urtekoan, kontsumoaren arloari lotutako gauzatutako aurrekontua programatutako aurrekontu osoaren % 73 izan da.

Esku-hartze ildoen arabera, Planaren aldian baliabideen kontsumo eta erabilera arduratsurako hezkuntza- eta prestakuntza-jarduketak egin dira, 820.792 euroko balioarekin. Komunikazio-modu berrietara egokitutako tresna teknologikoen garapenak 65.585 euroko gastua ekarri du.

3.39 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 7. arloko (kontsumoa) adierazle nagusiak eta helburu espezifikoak <Gazte arduradun gehiago kontsumoaren aurrean>



# 5. ARDATZA. SOZIALIZAZIOA

**8. Arloa: Kultura**

**9. Arloa: Kirola**

**10. Arloa: Aisialdia**

### 3.8. 8. Arloa. Kultura

#### 3.8.1. Jarduketan deskribapen orokorra

5. ardatzaren barruan –Sozializazioa–, Kulturako 8. arloak bi erronka horiei erantzun nahi die: kultura-jarduketak aktiboki garatzen dituzten gazteen kopurua handitzea eta gazteei kultura-eskaintzarako sarbidea erraztea. Arlo hori helburu espezifiko batean ere zehazten da: kultura-kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak garatzeko interesa indartzea, eta 3 esku-hartze ildo ditu.

## 8. Arloa: KULTURA

### 8.1. Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak garatzeko interesa indartzea

- 8.1.1. Gazteentzako kultura-jardueren sustapena
- 8.1.2. Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak
- 8.1.3. Irakurtzeko ohitura sustatzea

- 8.1.1 jarduketa-ildoan “Gazteentzako kultura-jarduketak sustatzea” Kultura eta Hizkuntza Politika Saila da protagonista nagusia, nahiz eta Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako ere badagoen, gazteen kultura-ohiturei buruzko azterlanekin. Ekintza aipagarriak dira kultura-sektorearen eskarian eta eskaintzan eragitea edo sormena eta ekintzaitza sustatzea helburu duten programak eta ekimenak: Airakurri programa (irakurzaletasuna sustatzen du eskoletan), eskola-antzerkiko erakusketak (Debagoienan, adibidez) (2021ean 1.088 ikusle izan ziren), Kimuak programa (euskarazko film laburrak) edo haur eta gazteei zuzendutako arte eszenikoen programazioa (BIARGI SAREA) eta euskal arte eszenikoen programazioa. (2021ean 1.337 ikusle izan ziren) edo Kultura Ondarea Saria.
- 8.1.2 jarduketa-ildoak Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berrietara bideratuta dago, eta kultura-edukiak eskuratzeko modu berriak erraztea du helburu, teknologia kanal gisa erabiliz. Hauek dira ekintza nagusiak: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazte Txartelaren urteko kanpaina (2021ean 330.746 txartel eman ziren) eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Irakurketa Sareko liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko eta/edo garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia.
- 8.1.3 jarduketa-ildoak Irakurzaletasuna sustatu nahi du, eta, horretarako, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako funtsak berritzeko edo/eta handitzeko laguntzak ematea aurreikusten du, kultura-eskaintza erakargarri eta irisgarri bati eusteko, edo Game Erauntsia: bideojokoak euskaraz, bideojokoaren esparruan euskara sustatzeko programak finantzatzen dituena.

#### a) Jarduketak egitea

2018 eta 2021 artean 38 jarduketa egin dira kulturaren arloan, eta programatutako jarduketan % 95 gauzatu dira (urtean 10 jarduketa, gutxi gorabehera).

**b) Helburu-balioaren betetze-maila**

Eraginkortasunaren ikuspegitik, kontsumoaren arloan hasieran ezarritako xede-helburuak gainditzea lortu da, kulturaren kontsumoa bultzatuz eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak garatzeko interesa indartuz.

Estaldurari dagokionez, 2021ean 331.000 Gazte Txartel jaulki dira Euskadin.


**3.40 Taula IV. Gazte Planeko Kultura Arloaren jarduketan estaldura-adierazle nagusiak, 2021**

	<b>2021</b>	<b>Adierazlea</b>
Gazte Txartela	330.746	Jaulkitako txartel kop.
BIARGI SAREA, haur eta gazteei zuzendutako euskal arte eszenikoen programaziorako	1.337	Ikusle-kopurua
Debagoienako Eskola Antzerki Erakustaldia	1.088	Ikusle-kopurua

**c) Aurrekontuaren gauzatze-maila**

IV. Gazte Planaren 4 urteko indarraldian, 3,7 milioi euroko gastua gauzatu da kultura sustatzeko jardueretan, hau da, gauzatutako aurrekontu osoaren % 0,4. Jarduketa-ildoen arabera, nabarmentzekoa da gazteentzako kultura-jarduketak sustatzeko 2,5 milioi euroko ekintzak egin direla. Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriek eta irakurketa-ohituraren sustapenak inbertsio-maila txikiagoak dituzte.

3.41 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 8. arloaren (kultura) eta helburu espezifikoaren (komunikazioa, parte-hartzea eta elkarrekiko ezagutza bultzatzea) adierazle nagusiak





### 3.9. 9. Arloa. Kirola

#### 3.9.1. Jarduketan deskribapen orokorra

5. ardatzarekin –Sozializazioa- jarraituz, Kiroleko 9. arloak gazteen kirol-jarduketa sustatzeko erronkari erantzun nahi dio. Arlo honek helburu bat du: kirol-jarduketa maila guztietan sustatzea, eta bi jarduketa-ildotan zehazten da.

## 9. Arloa: KIROLA

### 9.1. Kirola maila guztietan sustatzea

9.1.1. Kirola sustatzea

9.1.2. Kiroleko talentu gazteen aintzatespena

- 9.1.1 jarduketa-ildoan Kirola sustatzeari dagokio, eta barne hartzen ditu, besteak beste, Kirolaren Euskal Eskola, prestakuntza-ekintzak programatzen dituen, edo Eskolako Kirol Jokoen antolaketa.
- 9.1.2 jarduketa-ildoan “Kirol-talentu gazteak aintzatestea” goi-mailako kirol-emaitzak lortzea helburu duten kirolari gazteei laguntza teknikoa eta biomedikoa ematean datza; BAT Basque Team fundazioari laguntzak ematea, goi-mailako lehiaketetan kirolarien parte-hartze handiagoa eta kirol-emaitza hobekitzeko; eta goi-mailako kirolari gazteei laguntzeko programa, gainerako euskal gazteei irudi eredugarria ematen laguntzeko.

#### a) Jarduketak egitea

IV. Gazte Plana indarrean egon den 4 urteetan 23 jarduketa egin dira kirolaren arloan, eta programatutako jarduketan % 92 egitea lortu da (batez beste 6 jarduketa urtean).

#### b) Helburu-balioaren betetze-maila

Kirol-arloan ezarritako helburu-balioen eraginkortasun-maila handia da (% 86). Kirol-talentu gazteen aintzatespen-lerroan ezarritako helburuak behar bezala bete dira. Hala ere, lorpenak neurritsuagoak izan dira gazteen artean kirol-jarduketa sustatzearen kasuan.


Estaldurari dagokionez, adierazi behar da 2018 eta 2020 artean gutxi gorabehera 6.000 gaztek parte hartu zutela eskolako eta unibertsitateko kirol-jokoetan. 2021ean ez dago jarduketa horri buruzko informaziorik.

#### c) Aurrekontuaren gauzatze-maila

2018 eta 2021 artean, kirolaren arloan 2,3 milioiko gastua egin da, kirol-jarduketa maila guztietan sustatzeko. Programatutako eta gauzatutako aurrekontuaren konparazioari esker ondoriozta daiteke helburu horretan aurrekontu-gauzatze maila txikia izan dela (% 64).

Jarduketa-ildoei dagokienez, nabarmendu behar da 1,8 milioi euro inbertitu direla kirol-talentu gazteak aintzatesteko, eta 500.000 euro inguru gazteen artean kirol-jarduketa sustatzeko.

3.42 Taula 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planaren 9. arloaren (kirola) eta helburu espezifikoaren (kirola maila guztietan sustatzea) adierazle nagusiak



### 3.10. 10. Arloa. Aisialdia

#### 3.10.1. Jarduketan deskribapen orokorra

Amaitzeko, 5. ardatzaren barruan –Sozializazioa–, aisialdiko 10. arloa sartzen da, aisialdiko jardueretan euskararen erabilera bultzatzeko erronkatik abiatuta. Arlo hau helburu espezifiko batean, aisialdiko inguruneetan euskararen erabilera sustatzeari dagokiona, eta jarduketa-ildo batean zehazten da.

## 10. Arloa: AISIALDIA

### 10.1. Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea

#### 10.1.1. Euskararen erabilera aisialdirako esparruetan sustatzea

- 10.1.1. “Aisialdiko inguruneetan euskararen erabilera sustatzea” jarduketa-ildoak izaera desberdineko ekintza asko barne hartzen ditu, hala nola azterketak egitea (euskararen erabilera aktibatzeke formulak, familian euskararen transmisioa, kirolean euskararen erabilerari buruzko datuak), deialdi edo diru-laguntza izendunen bidez laguntzak ematea (gazte euskaldunentzako sareak sortzea, euskara kirolean sustatzea, komunikabideetan euskara sustatzea, irakurzaletasuna sustatzea, euskara eremu ez-formaletan sustatzea, hala nola eskolaz kanpoko jardueretan, etab., euskararen presentzia ingurune digitalean, aldizkari digitalean, etab. indartzera bideratutako ekintzak), gazteen udalekuak, Lanbide Heziketako praktikak euskaraz egiteko programak, etab. (2021ean 4.000 pertsona harpidetu ziren Euskal kirolari programan).

#### a) Jarduketak egitea

2018 eta 2021 artean, 49 jarduketa egin dira guztira aisialdiaren arloan, aisialdi-inguruneetan euskararen erabilera sustatuz (12 jarduketa urtean, batez beste), eta programatutako jarduketan % 94 gauzatzea lortu da.

#### b) Helburu-balioaren betetze-maila

Ezarritako helburu-balioen betetze-maila ere altua dela esan daiteke, % 97ko batez besteko eraginkortasun-mailarekin.

Estaldurari dagokionez, baieztatu behar da 2021ean Youtube Euskal Kirolari kanalak 4.000 harpidetza/jarraitzaile zituela.


#### 3.43 Taula IV. Gazte Planeko Aisialdi Arloko jarduketan estaldura-adierazle nagusiak, 2021

	2021	Adierazlea
Euskal kirolari Programa	4.000	Youtube Euskal Kirolari kanalaren harpidetza/jarraitzaile kopurua
Euskal Wikilarien Elkartearek dirulaguntza izenduna	1.000	Euskarazko Wikipediaren bidez sortutako edo egokitutako artikuluen kopurua

#### c) Aurrekontuaren gauzatze-maila

2018 eta 2021 artean, aisialdiaren arloan 5,7 milioi euroko gastua egin da, gazteen artean aisialdi-inguruneetan euskararen erabilera sustatzeko. Programatutako eta gauzatutako aurrekontuaren konparazioari esker ondoriozta daiteke helburu horretan aurrekontu-gauzatze maila ertaina lortu dela. Bilakaerari dagokionez, aisialdiaren arloan programatutako eta gauzatutako aurrekontuan behera egin dela ikusten da gazteei zuzendutako ekintzetan, 2018 eta 2021 artean.

3.44 Taula IV. Gazte Planaren (2018-2021) Aisialdiko 10. arloaren adierazle nagusiak eta helburu espezifikoak "aisialdi-inguruneetan euskararen erabilera sustatzea"



# #04

## Ondorioak eta Gomendioak



## 4. Ondorioak eta gomendioak

### 4.1. Emaitzak eta ondorioak

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren emaitzen ebaluazioaren bidez, planaren indarraldia amaitu ondoren, plan horrek gazteen kolektiboan izan dituen ondorioak ezagutu nahi dira, bai eta eragiten jarraitzea beharrezkotzat jo diren lan-esparruak identifikatu ere. Hala ere, aipatu behar da balorazioa, funtsean, plana garatu den urteetan jasotako informazio eskuragarrian oinarrituta egin dela.

#### **Gauzatze-mailaren balorazioa**

- 2018 eta 2021 artean, gazteei zuzendutako **jarduketa-kopuru handia** (886) ezartzea lortu da, eta gauzatze-maila orokorra positiboa izan da (aurreikusitako jarduketaren % 92 egin dira).
- Programatutako **jarduketak ez egiteko arrazoi nagusiak** honako hauek dira: helburuak berrikustea, inplikaturako zuzendaritzek eta erakundeek planteatutako ekintzen lehentasunak aldatzea, edo Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz jarduketak eta deialdiak bertan behera uztea.
- Programatutako **jarduketaren gauzatze-maila handia** izan da (% 85etik gorakoa) 5 ardatzetan eta 10 ildo-estrategikoetan. Helburu estrategiko gehienetan gauzatze-maila altua lortu da. Gauzatze-maila txikiagoa izan da 4 helburu estrategiko hauetan:
  - Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza
  - Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea
  - Unibertsitateko ikasleen laneratze handiagoa
  - Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea

#### **Eraginkortasun-mailaren balorazioa**

- Jarduketa gehienetan, ezarritako helburuak betetzea lortu da. IV. Gazte Planaren parte hartu duten zuzendaritzan, entitateen eta erakundeen % 77k uste du jarduketetan ezarritako helburuak lortu dituela, eta % 7,5ek helburuak bete ditu, baina partzialki.
- Egindako jarduketei buruz erregistratutako informazioan oinarrituta kalkulaturako helburu-balioen betetze-maila handia dela esan daiteke (Gazte Plan osorako % 90eko batez besteko eraginkortasun-mailarekin).
- Eraginkortasun-maila handia izan da IV. Gazte Planaren ardatz estrategiko guztietan, Ongizate eta Bizitza Osasungarriaren ardatzean izan ezik.
- Arloka, ezarritako helburu-balioen betetze-maila handia izan da 7 arlotan, eta maila txikiagoa lortu dute Enplegu, Osasun eta Kontsumo arloek.
- Helburu-balioen betetze-maila altua izan da 13 helburutan, eta 8 helburutan maila bitartekotzat jo da. Gazteen lan-baldintzak hobetzeko helburuetan eta gazteen artean sexu-bizitza osasuntsua bultzatzeko helburuan ezarritako helburu-balioak ez dira lortu.

### **Aurrekontuaren gauzatze-mailaren balorazioa**

- 2018 eta 2021 artean, IV. Gazte Planak 875 milioi euroko gastua egin du, gazteria ardatz hartuta, Gazteria Zuzendaritzaren beraren, Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza batzuen eta Planean parte hartzen duten erakunde eta organismoen baliabideekin.
- 2018. eta 2021. urteen artean, aurreikusitako aurrekontuaren % 94,3 gauzatzea lortu da (927 milioi euro).
- Era berean, garrantzitsua da azpimarratzea IV. Gazte Planaren benetako aurrekontua handiagoa izango litzatekela, ekintza askok ez baitakarte aurrekontu zehatz bat zehaztuta, baliabide propioekin egiten baita gastu orokorren bidez, zenbatetsi gabe.
- Emantzipazioa eta Autonomia 1. ardatzak, Enplegu, Etxebizitza eta Hezkuntza arloak osatzen duenak, gauzatutako aurrekontuaren % 78 biltzen du, 685 milioi euroko gastuarekin.
- Berdintasunaren eta Gizarteratzearen 3. ardatzean 162 milioi euroko inbertsioa lortu da, IV. Gazte Planaren guztizkoaren % 18,5.
- Bilakaerari dagokionez, Planaren indarraldiaren azken urtean gauzatutako aurrekontuaren igoera berresten da. Gauzatutako aurrekontuaren bilakaera nahiko irregularra izan da IV. Gazte Plana indarrean egon den urteen eta helburu estrategikoen eta esku-hartze ildoen arabera.
- Oro har, IV. Planean programatutako aurrekontua behar bezala gauzatzea lortu da (% 94ko gauzatze-maila). Hala ere, aldeak daude aurrekontuaren betearazpenean, arloen, helburu estrategikoen eta esku-hartze ildoen arabera. Aipatzekoak dira Osasun, Kontsumo, Kirol eta Aisialdi Arloetako gauzatze-maila txikiagoak.

## 4.2. Gomendioak

### 4.1 Taula IV. Gazte Planaren ebaluazio globalaren laburpena arloka

	Jarduketan gauzatze-maila		Helburu-balioen betetze-maila		Gauzatutako aurrekontuaren % programatuaren gainean	
Enplegua	91,1	●	81,9	●	87,7	●
Etxebizitza	95,0	●	91,5	●	96,3	●
Hezkuntza	90,9	●	97,1	●	102,9	●
Osasuna	92,1	●	81,5	●	80,9	●
Gizarte Ekintza eta Berdintasuna	88,5	●	93,3	●	95,6	●
Partaidetza	92,4	●	88,0	●	86,0	●
Kontsumoa	100,0	●	83,8	●	72,8	●
Kultura	95,0	●	127,3	●	95,3	●
Kirola	92,0	●	85,6	●	64,1	●
Aisialdia	94,2	●	96,9	●	74,7	●
<b>Guztira</b>	<b>91,6</b>	<b>●</b>	<b>89,8</b>	<b>●</b>	<b>94,3</b>	<b>●</b>



## 4.2 Taula IV. Gazte Planaren ebaluazio globalaren laburpena helburuen arabera

Arloa	Helburua	Jarduketan gauzatze-maila		Helburu-balioen betetze-maila		Gauzatutako aurrekontuaren % programatuaren gainean	
Enplegua	Hurbilketa eta abiadura handiagoa hezkuntza-eremuan	94,1	●	97,1	●	133,5	●
	Kalitatezko enplegua duten gazte gehiago	91,3	●	79,5	●	93,5	●
	Gazteen lan-baldintzak hobetzea	83,3	●	61,8	●	100,0	●
	Gazte ekintzaile gehiago	94,7	●	79,6	●	57,9	●
	Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzea	76,2	●	70,9	●	19,4	●
Etxebizitza	Etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago gazteen kolektiboarentzat	95,0	●	91,5	●	96,3	●
Hezkuntza	Balioetan hezte	89,1	●	102,0	●	111,0	●
	Gazte euskaldun eleaniztun gehiago	93,2	●	77,1	●	105,3	●
	Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman	92,7	●	107,5	●	104,8	●
	Gazte ikertzaile gehiago	96,4	●	99,0	●	95,7	●
Osasuna	Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea	90,9	●	91,8	●	205,2	●
	Gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea	100,0	●	147,1	●	70,2	●
	Sexu-bizitza osasuntsua bultzatzea gaztaroan	100,0	●	64,6	●	67,8	●
	Arrisku-portaerak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean	87,5	●	70,1	●	89,8	●
Gizarte ekintza eta Berdintasuna	Bazterkeria-arriskuko egoerak prebenitzea	93,3	●	153,0	●	107,6	●
	Identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea	76,9	●	70,0	●	64,9	●
	Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea	100,0	●	79,3	●	81,9	●
	Tratu txar modu berriak prebenitzea	93,8	●	121,3	●	39,0	●
Partaidetza	Komunikazioa, parte-hartzea eta elkar ezagutzea bultzatzea	92,4	●	88,0	●	86,0	●
Kontsumoa	Kontsumoaren ardura duten gazte gehiago	100,0	●	83,8	●	72,8	●
Kultura	Kultura-kontsumoa bultzatzea eta gazteentzako eta gazteentzako kultura-jarduketak garatzeko interesa indartzea	95,0	●	127,3	●	95,3	●
Kirola	Kirola maila guztietan egin dadin sustatzea	92,0	●	85,6	●	64,1	●
Aisialdia	Aisialdiko inguruneetan euskararen erabilera sustatzea	94,2	●	96,9	●	74,7	●
<b>Guztira</b>		<b>91,6</b>	<b>●</b>	<b>89,8</b>	<b>●</b>	<b>94,3</b>	<b>●</b>

## **Arreta bereziko eremuak V. Gazte Plana egiteko**

IV. Gazte Planaren **eragin-adierazleek** agerian uzten dute ezarritako helburuak bete ez diren eremuak. Eremu horiek, beraz, hurrengo Gazte Planean lantzen jarraitu beharreko eremuak dira:

- Enplegua (langabezia-tasa handia eta lan-baldintza prekarioak)
- Ekintzaitza (norberaren konturako enplegu-tasa txikia)
- Emantzipazioa (tasaren jaitsiera, adin berantiarra, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak)
- Hezkuntza eta balioak (gero eta intolerantzia ideologiko handiagoa)
- Osasunaren arloko ohiturak eta portaerak (sexualitateari dagokionez, tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa, cannabisa...)
- Berdintasuna (genero-desberdintasunen pertzepzioa lanean, emakumeen aurkako indarkeria-tasa)
- Parte-hartzea (asoziazionismo-tasa txikia)
- Kultura-ohiturak (irakurzaletasuna...)

Bestalde, txosten honetan egindako eta islatutako **ebaluazio-ariketak** agerian utzi du IV. Planak helburu jakin batzuk izan dituela, eta helburu horietarako planteatutako esku-hartze ildoek ez dutela inolako garapenik izan. Hori da, hain zuzen ere, emakume gazteen ikerketa-karreraren kasua. Beste batzuetan egiaztatu da planteatutako ekintzek garapen eskasa izan dutela. Azterketa horretatik ondorioztatu da, halaber, helburu batzuk daudela, eta helburu horietarako egindako ekintzek ez dituztela lortu ezarritako helburu-balioak eta/edo ez dutela ekarri aurreikusitako aurrekontu-betearazpena. Baldintza horietakoren batean daude honako helburu hauek (ikus 4.1 eta 4.2 taulak):

Enpleguaren arloa, oro har, eta, zehatzago esanda:

- Gazteen lan-baldintzak hobetzeko helburua
- Gazte ekintzaile gehiagoren helburua
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzeko helburua

Osasun-arloa eta, zehatzago esanda:

- Gazteen artean bizitza sexual osasuntsua sustatzea

Gizarte Ekintza eta Berdintasun arloa, eta, zehazkiago:

- Identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egiteko helburua
- Tratu txarren modu berriei aurrea hartzeko helburua

Kirol arloa eta, zehazkiago:

- Kirola maila guztietan egitea sustatzea

Askotan, Planaren laurtekoan jarduketa asko gauzatu diren arren (ahalegin handia eginez, beraz), lortutako emaitzen arabera, Plan berriari begira lehentasunezko arreta-eremuak izaten jarraitu behar dute.

Gainera, IV. Planaren helburuak lortzeko esleitutako **baliabide ekonomikoen bilakaeran arreta jarrita**, ikusten da zer eremutan murriztu diren aurrekontuak Planean zehar. Egoera horri honako helburu hauek dagozkio:

- Hurbilketa eta abiadura handiagoa hezkuntzaren eta lan-eremuaren artean
- Gazteen lan-baldintzak hobetzea
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzea
- Gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea
- Sexu-bizitza osasuntsua sustatzea gaztaroan
- Arrisku-portaerak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean
- Identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea
- Tratu txar modu berriak prebenitzea
- Komunikazioa, parte-hartzea eta elkar ezagutzea bultzatzea
- Kontsumoaren ardura duten gazte gehiago
- Kultura-kontsumoa sustatzea eta gazteentzako eta gazteentzako kultura-jarduketak garatzeko interesa indartzea
- Aisialdiko inguruneetan euskararen erabilera sustatzea

2018-2021 aldirako egindako ebaluazioari esker, halaber, Plana indarrean egon den urteetan zehar **esku-hartze arlo berriak edo garrantzi handiagoa hartu duten arloak hauteman ahal izan dira**, sortzen ari diren problematika edo kezken isla gisa edo gero eta erronka handiagoak dakartzatenak, eta, zalantzarik gabe, datozen urteetan horiei arreta ematen jarraitu beharko da:

- Osasunerako arriskuak eta adikzioak: sustantziarik gabeko adikzio-jokabideak (jolasak), arrisku digitalak, etab.
- Prestakuntza eta gaikuntza STEAM diziplinetan
- Genero-berdintasuna
- Ekintzaitzarako laguntza
- Teknologia berriak eta aisialdian, kulturaren eta euskararen duten eragina
- Eskola-jazarpena, ziberjazarpena
- Haur eta gazte etorkinentzako kulturartekotasuna eta eskola-errefortzua sustatzea
- Gizarteratzea (LGTBI kolektiboa eta kirola)
- Eskola inklusiboa gaitasun handiko ikasleentzat
- Iraunkortasunarekin eta planeta zaintzearekin lotutako programak

Gorago adierazitako guztia kontuan hartuta, honako hau esan eta apuntatu daiteke **Plan berriari** begira:

- Enplegua erabat lehentasunezkoa da V. Gazte Planerako:
  - Enpleguen kalitatea da datozen urteetan urrats erabakigarriak eman beharko diren funtsezko gaietako bat (Enplegu Plana 2021-2024).
  - EAEko gazteek modu egokian kokatu behar dute ekonomia berrian. Etengabe berrikusten ari diren tresnen bidez lagundu behar zaie lan-merkatu aldakor batean, eta etorkizuneko enpleguetarako gaitu behar dira (STEAM, prestakuntza duala, praktika-programak).
  - Eraldaketa digitalak gazteak etorkizuneko enpleguetarako tresna egokiak prestatu eta hornitu beharra planteatzen du (gaitasun digitalak).
  - Ekintzaitzaren arreta indartzea eta espiritu ekintzailea sustatzea.
- Osasun mental positiboa erraztea. Gazteak dira Covid-19aren pandemiak psikologikoki gehien kaltetu dituen kolektiboetako bat. Horregatik, hiru frontetan lan egin behar da: Osasun mental positiboa bultzatzea, portaera osasuntsuak hartzea eta elikadura-ohitura egokiak hartzea sustatzea eta bizimodu fisikoki aktiboa sustatzea. (Osasun Plana)
- Osasun fisikoa sustatzea ohitura osasungarriak hartuz (elikadura, kirola egitea...).
- Etxebizitzak eskuratzen laguntzeko politiken arloko ahaleginei eustea, gazteen emantzipazioa bultzatzeko (2021-2023 Etxebizitza Plan Zuzentzaile berria).
- Iraunkortasunak eta klima-aldaketaren aurkako borroka leku nabarmena dute gazteen kezka eta aldarrikapenen artean. Planetaren zaintzari buruzko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa (eskoletatik) gogor lantzen ari den gaia da, eta horretan sakontzen jarraitu beharko da.
- Aukera-berdintasunean, inklusioan eta aniztasunean erabakitasunez aurrera egitea, hobetzeko tarte zabalak daudela egiaztatuta.
- Gazteentzako sortutako eta/edo zuzendutako kultura-eskaintza bultzatzea, eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko estrategia berriak proposatzea.
- Gazteek bizitza politikoan eta politika publikoen formulazioan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzea, sentsibilizazio handiagoaren eta parte hartzeko formula berrien diseinuaren bidez. Gazteek protagonista izan behar dute euskal gizartean.
- Belaunaldien arteko oreka ardatz izango duten jarduketak garatzea, gazteen eta adinekoen belaunaldien itxaropenek eta interesek gizartean elkarrekin bizitzeko modu egokian eta ekitatiboan ingurunea izan dezaten. Belaunaldien arteko elkarriketa sustatu behar da, talde bakoitzaren ekarpenei eta indarrei balioa emanez, haien bizi-egoeraren arabera (bultzada, kualifikazio altua, gaitasun digitalak, etab., jakinduriaren, esperientziaren, ikuspegi globalaren eta denbora-ikuspegiaren aurrean).